

II LIBURUKIA

ERTZANTZAREN ETA  
UDALEN ATXILOKETA  
EGOITZEI BURUZKO  
TXOSTENA

©ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.


Papel erreziklatua.

I.S.B.N.: 84-87122-20-5. Liburu Osoa.

I.S.B.N.: 84-87122-22-1. II Liburukia.

L.G.: BI-1532-91.

L.G.: BI-1534-91.



---

ARARTEKO

---

II LIBURUKIA

EUSKO LEGEBILTZARRARI  
TXOSTENA  
1990

# AURKIBIDEA

<b>I ATALA. SARRERA</b> .....	11
1.1. TXOSTENAREN ESPARRUA ETA HELBURUAK .....	13
1.2. AINTZIN OHARRA .....	14
<b>II ATALA. EUSKAL ERKIDEGO AUTONOMOKO ATXILOKETA ZENTRUEN EGOERA</b> .....	15
2.1. SARRERA .....	17
2.2. ATXILOKETA ZENTRUEN EZAUGARRIAK .....	25
<b>III ATALA. ESPAINIAKO TESTUINGURU JURIDIKOA</b> .....	37
3.1. SARRERA .....	39
3.2. KALABOZO MOTAK .....	39
3.3. UDAL KALABOZOEN IZAERA JURIDIKOA .....	40
3.4. ESTATUKO ARAUAK .....	44
3.5. ESTATUKO ARAUAK NAZIOAZ GAINDIKO IKUSPUNTUTIK .....	46
3.6. ATXILOKETAREN SUJETU PASIBOAK ETA AKTIBOAK ...	46
3.7. ATXILOTUEN BERMEAK ETA ESKUBIDEAK .....	50
3.8. BITARTEKO EKONOMIKOAK. EGUNEROKO JANARIA .....	54
<b>IV ATALA. AZTERKETA KONPARATUA</b> .....	57
4.1. SARRERA .....	59

4.2. OHARPEN METODOLOGIKOA .....	59
4.3. GALDEKETA .....	60
4.4. HERRIALDE EZBERDINETAN JASOTAKO ERANTZUNAK .....	64
4.5. LABURPENA .....	89
<b>V ATALA. NAZIOARTEKO ARAUTEGIA .....</b>	<b>97</b>
5.1. GILTZAPETZE-EGOERATAN EZAR DAITEKEEN JAURPI- DEAREN ZIRRIBORROA, NAZIO BATUEN ZENBAIT SAI- LEN BIDEZKO ERABAKIETAN OINARRITURIK .....	99
5.1.1. Sarrera .....	99
5.1.2. Giltzapetuekiko jokabidean jarraitu beharreko gutxie- neko arauak .....	100
5.1.3. Legea betearazteko ardura duten lanarientzako joka- bide-arauak .....	101
5.1.4. Adin-gabekoentzako Zuzentza-Administraritzako Gu- txieneko Arauak .....	102
5.1.5. Edozein baiketa edo giltzapetan dagoen edozein ba- besteko irizpide multzoa .....	103
5.1.6. Askatasuna kendutako adin txikidunen babeserako Nazio Batuen Arauak, 1990 .....	105
5.1.7. Ondorioak .....	108
5.2. EUROPAKO KONTSEILUAREN ARAUDIA .....	108
<b>VI ATALA. AZKEN ONDORIO ETA GOMENDIOAK .....</b>	<b>113</b>
BIBLIOGRAFIA .....	117

I ATALA

**SARRERA**

## 1.1. TXOSTENAREN ESPARRUA ETA HELBURUAK

Txosten honen helburua Ertzantzak nahiz Udaltzaingoak atxilotutakoak askatasunik gabe ordu batzutan, berriro aske utzi edo, agiango epaia egin dakien, epaikarien esku jarri arte egoten direneko, Euskadiko udal kalabozo eta Ertzantzaren expetxeen benetako eta lege-aldetikako egoera aurkeztea da.

Erakunde hau gai honekikoan jokatzera eraman duten arrazoiak ugari izan dira: lehenengo, atxilotuta edukitzeko tokiak Euskadin aurkitzen direneko egoera tamalgarria dela geure begiz ikusi izana; gure ustea Síndic de Greuges Erakundeak bere lurralde-eremuan egindako baliozko ikerketen bidez egiaztatu dela, horrek Catalunya Legebiltzarrari aurkeztutako txosten bikain eta zehatza arazo hau Autonomi Elkarte honen eremutik gaindikoa dela argi uzten duen eredu da eta. Bestetik, Legebiltzar honetako legebiltzarkide zenbaitek alde honetatik egindako eskeari erantzun eman nahi zaio.

Atxilotuta edukitzeko zeldak orain aurkitzen direneko egoerarako hurbiltzeta egingo da, beraz; lehenengo adieraztekoa izango da, eta hortik abiatuta, sarritan giza duintasunari eraso eginezkoa den egoerari herri-agintarien erabaki sendoa izanezko jokabidez konponbide emateko izango diren irteerak bilatzen saiatuko gara.

Hala ere, adierazi beharra dago, benetako egoerei aurre egitea ez dela aski, ezarri beharreko legegideetan dauden huts haundiak beteko dituzten araupide-aldetikako aintzin-ohartemateak jartzera jo behar da azken baten baizik.

Guzti horregatik, txosten honetan hirugarren sail bat ere aztertzen da, gaiari buruz Espainian diren irizpide eta legegideak; laugarren sailean, herrialde jakin batzuetako legegideak eta jokabidea: Alemanian, Argentinan, Austrian, Belgikan, Frantzia, Britaina Handian, Holandan, EE.BB-etako Massachusetts-en eta Suizan. Azkenik, gaiari buruzko nazio-mailaz gaindikoa agiri-sorten azterketa zehatza egiten da.

Azterlanaren xedea, beraz, orrialdeetan zehar agertzen da: lehenengo, Legebiltzar honi eta gizarte osoari, "kalabozo" izenekoan oraingo egoerari eta gaiari buruzko legegideari eta guragarri litzatekeen horien eraberrikuntzari, eguneroko aribidean zein puntu zehatz zuzentzea mereziko lukeeni, egin daitezkeen hobekuntzei, etabarri buruzko argipideak eman.

Artez edo beste ezer baino lehen Estatuko edo Elkarteko legegideak eraberritzeko asmorik ez den arren, aretoei, garbitasun-neurriei, elikadurari, segurtasunari, drogaren menpe dauden gazteen kasu zehatzei, espetxeratuak legelarien laguntza izateari, zenbait udaltzain eta ertzain berariz gai-



tzeari, epai-agintariak zaingoa izateari, etabarri buruzkoan, somatutako akatsak zuzentzeko baliozkoak izan daitezkeela uste deneko baliapideak etorkizun laburrean burutzea, bai, atsegin izango litzaiguke.

Atxilotzeari buruzko goitik beherako azterlanaren aurrean ez gaudela badakigu, berez zerbait soilagoa nahi da eta, herritar ugarirentzako (ez atxilotzen direnentzat eta horiek egiten dituztenentzat bakarrik, baita hauen inguruko pertsona ugarirentzat ere) giza mailan oso baliagarri izanezko emaitzak eman ditzake eta behar ditu eman. Bereizkeriari ahalik eta tokirik gutxien utziz, Euskadiko udal zaindegiak eta Ertzantzaren espetzeak nola aurkitzen diren agerian utzi eta horien teoriatzko eta lege aldetikako antolamendu nagusiak laburki azaldu nahi dira, hau baino azterketa sakonagoak badaude eta. Baina atxilotetako biltegien teoriari, legeei eta aribideari buruz beste herrialdeetan, zehazki Alemanian, Argentinan, Austrian, Belgikan, Frantzian, Britaina Handian, Holandan, EE.BB-etako Massachusetts-en eta Suizan egiten denari buruzko aipamen zabalean, gauza berria eskaintzen dela uste dugu.

## 1.2. AINTZIN-OHARRA

Datozen orrialdeetan, lehenengo, zaindegiak etorkizunean ere orain direnentzakoak izaten jarraituko dutelako ustetan, oraingo irizpideen eta Estatuko eta nazio-mailakoez gaindiko arauen argitara iruzkin labur-laburrak eginez, Euskadiko udal zaindegiei eta Ertzantzaren espetxeei buruzko azalpena egiten da.

Hala ere, ondorengo sailetan egiten diren gogarketarik gehienetan eragina izan dezakeen aintzin-galdera egiteari egoki erizten zaio: azterketa honen gai diren atxiloteta-zaindegietara joango direnak zein izango diren zehaztea.

Atxiloteta zentruetara joan daitezkeenak badaezpada atxilotutakoak eta aldi laburrerako askatasun-gabetezko zigorra jarri zaienak ere izan badaitezke, atera daitezen azken ondorioak erabat aldatuko dira.

Horretarako, inolako espetxerik ez dagoeneko epaikaritza-barrutietako buru diren udalerrietan atxilotuak, badaezpada atxilotutakoak eta agindu-bidez zigortutakoak zaintzeko zerbitzua izatea ohartematen duen, abenduaren 12ko 2.715/86 Errege-Dekretuaren 2.1 ataleko araupidean ohartematen denaren norainokoa zehatz-mehatz mugatu beharra dago.

Era berean, irizpide-aldetikako joerarik aurreratuenak espetzeak beste era batekoak izatearen aldekoak direla ez da ahaztu behar, zentru txikiagoen, familikoengandik eta euren hurbileneko ingurutik hurbilagokoak izatearen alde azaltzen dira eta.

Joera berri hauek bai 1980.eko Zigor-Bildumako Egitasmoan eta 1983.eko Zigor-Bilduma Berriaren Egitasmotarako Saloan, baita Espetxeei buruzko Lege Organiko Nagusian eta Espetxetako Araudian gauzatu dira.

II ATALA

**EUSKAL ERKIDEGO AUTONOMOKO  
ATXILOKETA ZENTRUEN EGOERA**

## 2.1. SARRERA

Ondoren, Euskadiko udal zaindegi eta Ertzantzaren espetxerik gehienak nolakoak diren eta horien ihardunbidea nolakoa deni buruz zati bateko baina garrantzizko azalpena eskaintzen da.

Txosten hau gertatzeko, Arartekoak eta honen Ondokoak, 1990.en urtean zehar, hogeita hamabost atxiloketa zentru ikusi eta aztertu dituzte.

Ikerketako eremua, Ararteko Erakundeak gaitasunik duenekoa izan da, hots, udal zaindegiak eta Ertzantzaren espetxeak.

Epaikaritzaren Muga eta Antolapidetzari buruzko abenduaren 28ko 38/88 Legeko I Eraskinean udalerrien zerrenda epaikaritza-barrutika bilduz ematen da, LRBRL delakoaren ezarpenek eragiten dituen euskal udalerriak zehazteko balio diguna.

Ondoren, aipaturiko udalerrri zerrenda hori transkribatzen da, non epaikaritza-barruti buruak azpimarratuta agertzen bait dira:

### Arabako Probintzia

Epaikaritza-barrutia	Udalerriaren izena
1	<b>Amurrio</b>
1	Artziniega
1	Aiala
1	Laudio
1	Okondo
1	Urkabustaiz
1	Gaubea
2	Alegria-Dulantzi
2	Aramaio
2	Araminon
2	Arrazua-Ubarrundia
2	Asparrena
2	Baños de Ebro
2	Barrundia
2	Beranturi
2	Bernedo
2	Kanpezu

Epaikaritza-barrutia	Udalerriaren izena
2	Zigoitia
2	Kripan
2	Koartango
2	Burgelu
2	Eltziego
2	Bilar
2	Iruna
2	Iruraiz-Gauna
2	Bastida
2	Lagran
2	Biasteri
2	Lantziego
2	Lantaron
2	La Puebla de Labarka
2	Legutiano
2	Leza
2	Maeztu
2	Moreta
2	Nabaridas
2	Oion
2	Urizarra
2	Erribera Goitia
2	Erribera Beitia
2	Gesaltza
2	Agurain
2	Samaniego
2	Donemiliaga
2	Harana
2	Uriona
2	<b>Vitoria-Gasteiz</b>
2	Ekora
2	Zalduondo
2	Zanbrana
2	Zuia

### Gipuzkoako Probintzia

Epaikaritza-barrutia	Udalerriaren izena
1	Abaltzisketa
1	Aduna
1	Albiztur

Epaikaritze-barrutia	Udalerriaren izena
1	Alegia
1	Alkiza
1	Altzo
1	Amezketza
1	Andoain
1	Anoeta
1	Arama
1	Asteasu
1	Ataun
1	Beasain
1	Belauntza
1	Berastegi
1	Berrobi
1	Elduain
1	Ezkio-Itxaso
1	Gabiria
1	Gainza
1	Hernalde
1	Ibarra
1	Idiazabal
1	Ikastegieta
1	Irura
1	Itsasondo
1	Larraul
1	Lazkao
1	Leaburu-Gaztelu
1	Legorreta
1	Lizartza
1	Mutiloa
1	Olaberria
1	Ordizia
1	Orexa
1	Ormaiztegi
1	Segura
1	<b>Tolosa</b>
1	Villabona
1	Zaldibi
1	Zegama
1	Zerain
1	Zizurkil
2	Aizarnazabal
2	Aia
2	Azkoitia

Epaikaritze-barrutia	Udalerriaren izena
2	<b>Azpeitia</b>
2	Beizama
2	Bidegoian
2	Getaria
2	Errexil
2	Zarautz
2	Zestoa
2	Zumaia
3	Antzuola
3	Aretxabaleta
3	Arrasate
3	<b>Bergara</b>
3	Eskoriatza
3	Legazpia
3	Leintz-Gatzaga
3	Onati
3	Urretxu
3	Zumarraga
4	Deba
4	<b>Eibar</b>
4	Elgoibar
4	Mendaro
4	Mutriku
4	Soraluze
5	<b>Donostia-San Sebastián</b>
5	Hernani
5	Lezo
5	Orio
5	Oiartzun
5	Pasaia
5	Orereta
5	Urnieta
5	Usurbil
6	Hondarribia
6	<i>Irún</i>

## Bizkaiko Probintzia

Epaikaritze-barrutia	Udalerriaren izena
1	Abadiño
1	Zornotza
1	Arantzazu
1	Areatza
1	Atxondo
1	Bedia
1	Berriz
1	Arteaga
1	Zeanuri
1	Dima
1	<b>Durango</b>
1	Elorrio
1	Ermua
1	Garai
1	Igorre
1	Izurza
1	Lemoa
1	Mallabia
1	Manaria
1	Otxandio
1	Ubidea
1	Zaldibar
2	Abanto Zierbena
2	<b>Barakaldo</b>
2	Muskiz
2	Ortuella
2	Portugalete
2	Santurtzi
2	Sestao
2	Trapagaran
2	Amoroto
2	Arrieta
2	Aulesti
3	Bakio
3	Bermeo
3	Berriatua
3	Busturia
3	Ea
3	Etxebarria
3	Elantxobe
3	Ereno

Epaikaritza-barrutia	Udalerriaren izena
3	Errigoiti
3	Fruiz
3	Gamiz-Fika
3	Gautegiz Arteaga
3	<b>Gernika-Lumo</b>
3	Gizaburuaga
3	Ibarrangelua
3	Ispaster
3	Lekeitio
3	Markina-Xemein
3	Menaka
3	Mendaka
3	Mendexa
3	Morga
3	Mundaka
3	Mungia
3	Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz
3	Muxika
3	Ondarroa
3	Sukarrieta
4	Arakaldo
4	Arrankudiaga
4	Arrigorriaga
4	Basauri
4	<b>Bilbo</b>
4	Derio
4	Erandio
4	Etxebarri-Donostebeko Elizatea
4	Galdakao
4	Larrabetzu
4	Lezam
4	Loiu
4	Orduna
4	Orozko
4	Sondika
4	Ugao
4	Zamudio
4	Zaratamo
4	Zeberio
5	Artzentales
5	<b>Balmaseda</b>
5	Karrantza



Epaikaritzza-barrutia	Udallerriaren izena
5	Galdames
5	Gordexola
5	Gueñes
5	Lanestosa
5	Sopuerta
5	Turtzioz
5	Zalla
6	Barrika
6	Berango
6	Gatika
6	<b>Getxo</b>
6	Gorliz
6	Laukiz
6	Leioa
6	Lemoiz
6	Maruri
6	Plentzia
6	Sopelana
6	Urduliz

Epaikaritzza-barrutiko buru diren ondorengo udallerrietan daude udal zaindegiak:

Araban: Vitoria-Gasteizen

Gipuzkoan: Azpeitian  
Donostian  
Eibarren  
Irunen

Bizkaian: Barakaldon  
Bilbon  
Durangon  
Gernika-Lumon  
Getxon

Ondoren ematen diren epaikaritzza-barrutiko buru izanezko udallerrietan, alderantziz, ez dago atxiloketako udal zaindegaririk:

Araban: Amurrion (udal zaindegia dago eta Laudion Ertzantzarena)

Gipuzkoan: Bergaran (Ertzantzaren espetxea dago)  
Tolosan (Ertzantzaren espetxea dago)

Bizkaian:        Balmasedan (Ertzantzaren espetxea dago)

Bestetik, Erakundea udal zaindegiak dituzten epaikaritzza-barrutietako buru diren udalerrri guztietako atxiloketako zentru guztiak ikusten izan da.

Halaber, LRBRL-ko azken erabakietako boskarrenean agintzen denaren nahitaezko menpeko ez diren arren, atxilotuentzako udal zaindegiak aribidean dituzten udalerrrietako atxiloketa-zentru batzuren ikerketa ere egin da.

Azkenik, Ertzantzak dituen espetxe guztiak ikusi direla esan daiteke.

Zehazki, honako atxiloketa zentru hauek egin da ikustaldia:

*Udal zaindegiak:*

- Araban:            – Laudio  
                      – Vitoria-Gasteiz
- Bizkaian:         – Barakaldo  
                      – Bermeo  
                      – Bilbo  
                      – Durango  
                      – Gernika  
                      – Getxo  
                      – Lekeitio  
                      – Ondarroa
- Gipuzkoan:      – Azpeitia  
                      – Donostia-San Sebastián  
                      – Eibar  
                      – Irun  
                      – Ordizia  
                      – Orereta

*Ertzantzaren espetxeak:*

- Araban:            – Laudio  
                      – Vitoria-Gasteiz
- Bizkaian:         – Balmaseda  
                      – Bilbo  
                      – Durango  
                      – Erandio  
                      – Galdakao  
                      – Gernika  
                      – Getxo  
                      – Lekeitio  
                      – Ondarroa  
                      – Plentzia

- Gipuzkoan:
- Andoain
  - Arrasate-Mondragón
  - Azkoitia
  - Beasain
  - Bergara
  - Tolosa
  - Zarautz
  - Zumarraga

Azterlanaren zati honetan atxiloketa-zentruetako baldintzen azalpen egitera mugatuko gara, izan ere, horien lege-aldetikako nolakoari buruzko azterlan zehatza legezko antolamendua aztertzean egingo da eta.

Beste hau ere adierazi beharra dago, aginpide-eremu ezberdinak izatearen ondorioz, hiri berean atxiloketa zentru bat baino gehiago izatea gerta daitekeela, alegia.

Honela, adibidez, zenbait hiritan, hona nola, Bilbon, elkarren artean nahi litzatekeen lankidetzarik gabe, antzeko hiru atxiloketa zentru daude: Udaltzaingoaren zaindegia, Luis Brinas kalean,; Ertzantzarena, Maria Diaz de Haro kalean, eta Polizia Nazionalarena, Gordoniz kalean.

Donostian eta Vitoria-Gasteizen gertatzen dena antzekoa da.

## 2.2. ATXILOKETA ZENTRUEN EZAUGARRIAK

Atal honetan, Erakunde honek Euskal Erkidego Autonomoko hiru lurralde historikoetan aztertu dituen Ertzantzaren atxiloketa zentruen eta udal kalabozoen bizigarritasun egoera zertan den azalduko dugu.

Hemen ematen ditugun datuak eskuratzearren, alde batetik, halako galdetegi bat, denentzat berdina, bete arazi zitzaizen bisitatu genituen atxiloketa zentru guztiei, azpiegiturez nola hornituta zeuden eta, bestalde, nolako antolakera eta funtzionamendua duten jakiteko asmoz; eta, beste aldetik, bisitaturiko zentru bakoitzeko arduradunekin izandako elkarrizketetan Erakundeak bildu ahal izan dituen argibideen bitartez, aztertutako zentruak, gertatzen diren edo gerta daitezkeen atxiloketa moten arabera, zernolako asistentzia ematen duten edo eman dezaketen neurtu nahi izan dugu.

Esan dezagun, baita ere, batzuetan Erakundeak atxilotuarekin edo atxilotuekin zuzenean egoteko aukerarik izan duela, horrela gonbaratu ahal izan ditugularik jaso ditugun datu desberdinak; horretaz gainera, zentru horietan sartutakoek adierazitakoak zehaztasun gehiago eman dizkigu edozer dela eta atxilotuak izan direnen egoerari buruz.

### 2.2.1. Atxiloketa zentruen kokapena. Sarbideak

Atxiloketa zentruen ezaugarriak azaltzeari ekin aurretik, komeni da haien egoitza diren lekuen kokapenari buruzko aipamen labur bat egitea.

Ertzantzaren komisaldegien kokapenari dagokionez, esan dezagun polizia honek Euskal Erkidego Autonomoan egin duen hedapenaren ondorioz

sortutako zentruak direla, eta, horren ondorioz, batzuetan beren instalakuntzak behin-behinekoak baino ez direla, Erandio, Bermeo eta Azkoitikoak kasu, edota, bestela, alokeran hartutako egoitzak betetzen dituzte (Lekeitio). Errepide nazionaletik edo, bestela, eskualdeko errepidetik sarbide erreza izatea ere faktore garrantzitsua izanik ere, askotan ez da kontutan hartu inoiz larritasunen bat gertatuko balitz ere.

Udaltzaingoaren zentruen kokapenari gagozkiolarik, ordea, udaletxe ondoan kokatuta egon ohi izan diren arren, hiriburuetakoa beste kokaleku batzuetan jarri behar izan dira udalen bulego edo zerbitzuak zabaldu edo berriak ireki ahal izatearren; horregatik, Udaltzaingoaren egoitzak hirien beste alde batzuetara aldatu izan dira, eta eraikuntza zabalak egiteko leku gehiago izanik, oraingo egoitza berriak askoz ere egokiagoak dira azpiegitura aldetik eta zerbitzu aldetik ere, oro har esanda.

Azkenik, berez atxiloteta zentruak direnen kokapenari begiratzen badiegu, ikusten da gehientsuenetan Udaltzaingoaren edo Ertzantzaren etxearen behekaldean egoten direla (soto edo erdisotoetan). Haietara sartu ibilgailuentzako alboko edo atzeko patio batetik egin daiteke, baina inoiz salbuespenak ere badira, Ertzantzaren Lekeitio eta Zarauzko egoitzak, eta Ordizia eta Ondarroako udaltzaingoarenak esate baterako. Zertzelada hori, atxilotua guztiz ikusgai jartzen duelarik ezinbestez, intimitaterako eskubidearen kalterako gerta dakioko atxilotuari.

### 2.2.2. Zelden neurriak

Esan bezala, atxilotua hartzeko dauden lekuak etxeetako behekaldean egoten dira, bai Ertzantzaren komisaldegietan, bai udaltzaingoan ere, baina leku horren zelda banaketari eta zelda horien neurriei dagokienez alde nabarmenak ikusi ahal izan dira. Segituan ematen ditugun datuek erakusten dute esandako hori:

#### Ertzantza

Herria	Banakako zeldak	Zabaleram <sup>2</sup> -tan	Taldeko zeldak
Gasteiz	5	5,5	—
Laudio	6	6	2
Balmaseda	7	6	2
Bermeo (Behin-behinekoak. Atxilotuak Gernikara eramaten dituzte)			
Bilbo (trafikoa)	11	5	2
Durango	4	4	1
Galdakao	2	4	—
Gernika	8	3,5	2
Getxo	13	6	2
Ondarroa	3	4	1
Bergara	4	6	3
Arrasate	2	9	1
Zarautz	5	4	2
Zumarraga	6	6	1

## Udal kalabozoak

Herria	Zelda kopurua	Zelda mota	Zabalera ggb.
Gasteiz	6	ban.	7
Laudio	2	—	10
Bilbo	—	—	6
Barakaldo	3	—	4,5
Bermeo	—	bik.	12
Gernika	2	bik.	6
Getxo	3	—	4,5
Lekeitio	2	bik.	6
Azpeitia	2	—	9
Errenteria	3	—	5
Donostia	2	—	6

Hemengo datu hauek erakusten dutenez, Ertzantzaren komisaldegiek hirutik zortzira bitarteko banakako zeldak dauzkate, Bilbokoak eta Getxokoak izan ezik, 11 eta 13 bait dauzkate hurrenez hurren. Haien zabalera 4 eta 6 metro karratu bitartekoa izaten da, Arrasateko komisaldegian izan ezik, bertan banakako bi gela atondu bait dira, bakoitza 9 metrokoa gutxi gorabehera. Era berean, Ertzantzaren zentruak taldekako atxiloketa zentru bat edo bi izaten dituzte.

Udal kalabozoei dagokienez, aldiz, eredu bakarrari baino gehiago udal-erri bakoitzak dituen berezitasunei jarraitzen dieten erizpideen arabera moldatuta daude kalabozoak.

Orain arte azaldu duguna laburbiltzearen, esan dezagun epe mugatu batean pertsona bakar bat egoteko gutxienezko espazio bezala 6 metro karratu dituen zabalera bat jo daitekeela askitzat. Baina, jakina, zabalerari begira onargarri diren baldintza horiekin batera bizigarritasuna neurtzen duten beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontutan, esaterako: argi naturala eta artifizia, aireztapena, osasun instalazioen kokapena, eta hornigai eta tresnen egoera.

Bestalde, beste gela batzuren beharra ikusten da, lehen egipideak egiteko, abokatuarekin elkarrizketatzeko, medikuaren bisita edo familiarekiko harremanak izateko balioko duena. Garrantzi handikoa da gela guztiek atxilotuen intimitatea berma dezaten, eta ildo horretatik, ahaleginak egin behar dira bisita-gela amankomuna izan ez dadin.

### 2.2.3. Zelda bakoitzeko ateak

Ikusi denez, gai sendo eta metalikoz eginiko ateak erabili ohi dira, irekidura bat daukatenak, bai eta inoiz burniak ere. Horren eginkizuna zelda barrua ikusi ahal izatea da, eta zentzu horretan gomenda liteke horretarako leihatila finkoak, material garden eta apurtuezinezkoak ezartzea atean, inolako erizpiderik ez bait dago zelda barruak zaintzeko telebista zirkuitu

itxiak erabiltzeko aukerari buruz, atxilotuaren intimitate eskubidea kolokan jar dezakeenez gero.

Zelda barrua ikusteko egokientzat hartu den eredu telebista zirkuitu itxia bada ere, aukera honek zenbait arazo planteatzen du atxilotuen gutxienezko intimitate neurri bat bermatu nahi bada.

#### 2.2.4. **Argi naturala eta artifiziala. Leihoak**

Atxiloketa zentruetan argi natural gutxi egoten da, esan bezala egoitzetako behekaldeko solairuetan jarrita egoten direlako. Horri gehitu behar zaio, gainera, bisitatu ditugun hogeita hamabost zentruetatik ia gehienetan leihoren bat badago ere, leiho hori nahiko txikia izaten dela, ez gardena, eta barneko patio batera jotzen duena. Hamaika kalabozotan bakarrik ikusi dugukanpokaldera jotzen duen leihorik.

Beste alde batetik, argi artifizialari dagokionez, lanpara bakarra egon ohi da, ez beti behar bezala babestua, eta gehienetan zelda barruan.

Esan dugun guzti honetatik argiari buruzkoa azpimarratu behar dugu batez ere, oso gutxitan konpondu bait da hutsune hori, eta, gainera, lehen-tasuna eman zaie segurtasun erizpideei; ezinbestez kontutan hartzekoak izan arren, erizpide horiekin batera ez da aurkitu bestelako konponbide egokirik, eta hori honelako arazoak hasiera batetik erraz aurrikus daitezkeela.

Azkenik, agerian jartzekoa da Bilboko Udalak emandako konponbidea, oso erreferentzi puntu egokia bait da bisitatu ditugun kalabozo gehienetan aurkitu ditugun akats hauek zuzentzeko.

#### 2.2.5. **Horma eta zoluak**

Ohizko horma lau eta pintatuz edo zoluetako terrazoaz gainera, oraintsu baldosa edo azulejoa ere sartu da, nahiko modu egokian, itxuraz, zeren eta lehenago hormetatik ateratako kare edo pintura irestean gertatzen ziren istripuak galerazten bait dira horrela.

Ikusi da, halaber, mosaikoa baldosa edo azulejoz aldatzen ari direla, segurtasun neurriak direla medio, mosaikoa erraz aska bait lezakete drogamenpekoek bere burua zauritzeko.

#### 2.2.6. **Haltzari eta tresnak**

Zeldetan jarrita egoten den haltzari bakarra hormigoi edo porlanezko egitura bat izaten da, batzuetan baldosaz hornitua, haren gainean lastai edo koltxoneta bat jarriz ohe moduan erabiltzen dena. Hau dela eta, gomendatzekoa da erabiltzen diren koltxoiak suaren aurkako produktu batez inpregantzea, oso datu ezaguna bait da Espainiako kalabozo eta espetxeetan gertatzen diren heriotzen kausa nagusia atxiloketa zentruak dauzkaten go-

maespumazko koltxonetak erretzean aireratzen den karbono monoxidoaren keak eragindako itolarria izaten dela.

Atxilotuak zeldan eman behar badu gaua, manta bat edo bi ematen zaizkio, arau bezala, erabili ondoren bota edo, gutxienez, garbitu eta desinfektatu behar direnak. Honen inguruan, berriz aipatu nahi dugu arau hori zorrotz bete behar dela.

### 2.2.7. Osasun instalazioak

Bisitatu ditugun kalabozo guztiek dute komunik, baina oso gutxitan egoten dira zelda barruan, eta ez dira banakako erabilerakoak. Lababoak eta dutxak ere, halakorik egonez gero, taldekako erabilerakoak izaten dira, eta zeldetatik kanpo egon ohi dira. Ordu batzuk igaro behar dituzten atxilotu guztiei xaboia, paper higienikoa eta toaila eman behar zaizkie.

Osasun instalazioen egoera, ikusi denez, gutxienez onar daitekeena bada ere (Tolosa eta Lekeitioko kalabozoetan izan ezik), gomendio batzuk egingo ditugu ondoren, oraingo eskeintzaren kalitatea oraindik hobegotzeko.

Ohiturarik ez dagoela egia bada ere, ez da alferrikoa izango esatea guttiz desagokia dela atxilotuek eta zaindarien komun berberak erabiltzea.

Ahalegina eskatzen diegu alor honetako arduradunei zelda gehienek edo, gutxienez, gau osoa edo hamabi ordu igaro behar dituztenen zeldek komuna izan dezaten barruan. Gauza bera esan beharko dugu, gainera, zelda barruetan ur korrontea eta edatekoa egoteaz ere.

Zentru guztiek ur beroko dutxa zerbitzua eduki behar dute, behar adi-na, eta zelda kopuruen eta atxilotuen batz bestekoaren arabera.

### 2.2.8. Janaria

Erizpide bateraturik ez dago atxilotuei eman beharreko janariaz. Praktikan, hurbileko taberna batetik eramaten da (batzuetan jubilatutako zentru batetik edo udal asilotik), eta plater konbinatuak edo otarteko hotz edo beroak izaten dira ematen direnak; egunean hiru aldiz errepikatu behar bada, esan beharrik ez dago janari hori ez dela batere egokia.

### 2.2.9. Segurtasun neurriak

Atxiloketa zentru batek eskeintzen duen segurtasun maila atxilotuari bezala zaindariari ere dagozkien era askotako faktoreren ondorioa izaten dela uste dugu. Bestela esanda, onar daitekeen gutxienezko maila bat ego-teak esan nahi du hartutako neurriak baliagarriak direla eta galeraz deza-ketela, alde batetik, atxilotua istripuz edo ustekabean, edota nahita, zauritua gertatzea, gaisotzea edo ihes egitea. Bestalde, kalabozoak eskeintzen dituen segurtasun garantiak neurtzean kontutan hartu behar dira, baita ere, polizia

zaindariak jasan ditzakeen era guztietako arriskuen maila (erasoak, gaisotasunak, kutsadurak). Guzti horregatik, azken ondorioaren neurketan bateratzen diren faktoreek berezko zainketari bezala, beste tresna batzuen eraginkortasunari ere begiratu behar diote, hots, istripuen aurkako prebentzioari, laguntza medikuari, etab.

Jarraian emango ditugun oharren bitartez, halako baldintza batzuek benetako segurtasun mailan zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen erakutsi nahi dugu.

Zainketarako tresnen instalazioari dagokionez, ez da gomendagarria burni soilez osaturiko atea jartzea, zaindariarentzat arrisku pasibo bat izan daitezkeelako. Orobat, dagokion atalean aipatu dugun bezala, leihatila fin-koak, gardenak eta material hautsezinezkoak ipintzea gomendatuko genuke.

Beste alde batetik, egin ditugun bisitaldietan jakin dugunez, zentzurik sortuberrietan telebista zirkuitu itxia egoten da zelda barrua bezala kanpoaldea ere zaintzeko. Zainketa etengabe, erraz eta eraginkorra egiteko aukerakoa izatea da sistema honen alde ona, hari esker zaindariak ez bait du zuzenean eta jarraian zelda ondoan egon beharrik; hori bai, kamerari denbora guztian begira egotera behartzen du zaindaria.

Azkenik, telebista zirkuitu itxiei buruz hartzen diren erabilpen erizpideei dagokienez, azpimarra dezagun gogoeta bat egin behar dela zainketa eraginkorra eta atxilotuaren intimitate eskubidearenganako errespetua banatzen dituen mugari buruz.

Argindarraren instalazioaren inguruan egon daitezkeen izkutuko arriskuak direla eta, ez da komeni atxilotuaren eskumenean kablerik egotea. Lanparak zelda barruan egonez gero, argitasun aski eman eta behar bezala babestuta egon behar dute.

Desiragarria litzateke, orobat, atxiloketa zentruak keak detektatzeko sistemaren batez hornituta egotea, eta, zentzu honetan, lehenago ere esan dugun bezala, gomendatuko genuke suaren aurkako produktu batez inpregnaturiko koltxonetak erabiltzea, suteagatik gertatzen diren ezbeharren maila ahalbait gutxienera jaistearren.

Zelden barrukaldearen antolaketari dagokionez, ertzik edo atxilotuak bere burua zauritzeko erabil litzakeen ezer ez egotea komeniko da, eta, jakina, atxilotuaren gauzak arretaz eta zorrotasun osoz arakatu behar dira, bere burua zauritzeko joera duelako susmoa dagoenean, atxilotuak objektu zorrotzik edo bere burua kaltetu edo zauritzeko erabil dezakeen ezer ez denez eduki bere eskumenean.

Orain arte esandakoari gehitu dakizkioke, baita ere, higienari buruzko baldintzen inguruan eta osasun instalazioen egoeraren inguruan adierazi ditugunak, gaisotasunak kutsatzeko arriskuari buruzkoak batik bat.

Azkenik, Erakunde honek ondo asko daki zeinen zaila den segurtasun maila egokia lortzea, ardura dutenen esku dauden giza eta teknologi mailako baliabide guztiak erabiliz, baina, aldi berean, pertsonaren eskubideenganako errespetua inoiz ere galdu gabe eta gestio orok duen aurrekontu mugapena gainditu gabe lortzea, hain zuzen ere. Alabainā, Ararteko honek, bere gain utzi diren egitekoak betetzearren, alor honetan ardura daukatenei ahalegin sendoa eskatu behar die hemen adierazi ditugun akatsak zuzen-



tzen joateko, horrela kalitate maila onargarria izan dezaten eskeintzen dituzten zerbitzuek eta betetzen dituzten eginkizunek.

### 2.2.10. Atxilotu kopurua. Atxiloketaren iraupena

Erakunde honen bisita jaso duten Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen komisaldegiek bidali dizkiguten datuen argitan, esan daiteke oro har urtebetean egiten diren atxiloketak 50tik 250era bitartekoak izaten direla, hiriburuetan kokatutako zentruetan izan ezik, haietan askoz ere kopuru handiagoak ateratzen bait dira: 2.000 Bilbon, 1.000 Donostian eta 450 Gasteizen, gutxi gorabehera.

Atxiloketaren denbora, bestalde, delituaren arabera aldatzen da, eta, honi buruz, hiru multzo handi bereiz genitzake.

Lehen multzoa osatzen dutenak alkoholzaletasunagatik atxilotutakoak dira. Ordu eta erditik sei ordura bitartean egoten dira zentruetan atxilotuta.

Bigarren multzoan droga trafikogatik atxilotutakoak sartzen dira, eta, kasu hauetan, 24 ordutik gorakoa izaten da zentruotan egiten duten egonaldia, batzuetan 48 ordutara ere irits daitekeelarik.

Hirugarren taldea osatzen dutenak, aldiz, era guztietako delituengatik atxilotutakoak izaten dira: lapurretagatik, lapurtu eta erasotzeagatik (drogazaletasunaren inguruan sarri), jabetzaren kontrako kalteengatik, erasoengatik, agintearen aginduak ez betetzeagatik, edota aginte judizialak bilatuak izateagatik, etab. Kasu hauetan, atxiloketaren denbora 48 ordutara iritsi daiteke, eta noiz edo behin 72 ordutara ere bai.

### 2.2.11. Laguntza medikua

Laguntza medikuak ezin ukatuzko garrantzia daukan gaia izanik ere, oso gutxitan eman zaio behar adina arreta.

Ikertu ditugun atxiloketa zentruetan normalean ez da egoten bisita medikurako erabil daitekeen lokalik. Udal kalabozoetan eta Ertzaintzaren atxilotegietan ez da antolatu atxilotuentzako atentziorako zerbitzu mugikor edo etengaberik ere. Sendagileen bisitak atxilotuak eskatzen duenean egiten dira. Inoiz ere gertatu da Osasun Zerbitzuko sendagile forenseak halako atentzio bat ematera ukatzea, zerbitzuan lanpeturik egoteko aitzakiaz.

Jaso dugun informazioaren arabera, ezinbestekoa da erakundeek konpromezua har dezaten laguntza medikurik ez egoteagatik atxilotuak babesik gabe gera ez daitezen.

Puntu horri dagokionez, atxiloketa zentruetan ikusi dugun arazorik garrantzitsuenetako bat abstinentzia sindromepean dauden drogazaleen tratamendua da. Praktikan, sendagilearen bisitaldia atzeratzen denean, edota hurbileko eritetxe bateko larrialdi zerbitzuetara eraman aurretik, atxiloketa zentruetako arduradunek pastila lasaigarriak ematen dizkiete, bai eta batzuetan metadona ere.

Ezin uka daitekeen egia da honelako kasuei aurre egin behar zaienean atxiloketa zentruak ez daudela ongi hornituta, baina egia da, baita ere, bes-

talde, kasu horien tratamendua sendagilearen kontrolpean utzi behar dela, gaur egun egiten ez den arren.

### 2.2.12. Erregistro liburua

Erakunde honek bisitatu dituen zentruetan ez dago erregistro liburuaren eredu baturik. Inoiz libururik ere ez dagoela ikusi da (Ordizia eta Irungo udal kalabozoetan), eta beste batzuetan parteetarako fitxa eta orriak erabiltzen dira (Lekeitio eta Bermeoko udal kalabozoetan).

Beharrezkoa da, beraz, dagokien sail administratiboek akats hau on deritzaien moduan konpontzea, atxiloketa zentru guztiek erregistro liburuaren eredu berbera izan dezaten atxilotuaren nortasunezagarri funtsezkoak (adina barne), atxiloketaren zergatia, ordua eta iraupena, eta haren objektu pertsonalen zerrenda jasotzeko. Beharrezkoa da, orobat, emandako laguntza medikuaren kontrola egitea, bai eta egiten den beste edozein bisitaldiren ere.

Ertzantzaren Zuzendaritzak jakinerazi duenez, badago erregistroaren eredu normalizatu bat, dena den, Ertzantzaren atxiloketa zentru guztiek ez dute halakorik, informazio ezagatik edo banatze arazoengatik. Beharrezkoa izango da, beraz, aipatu ereduaren Ertzantzaren kalabozo guztietara heleraztea.

### 2.2.13. Familiarekiko harremanak

Bisitatu ditugun zentru guztietan errespetatzen da atxilotuak bere familiarekin edo berak nahi duen pertsonarekin harremanetan egoteko duen eskubidea. Bisitak, aldiz, aitortzea hartu edo, bestela, galdeketa egin ondoren onartzen dira, horretarako jarrita dauden orduetan.

Gomendio moduan esango genuke gela berezi bat edo batzuk ipini behar harko lirartekeela senitartekoen edo sendagilearen bisitak hartzeko, edota gelariarekin egoteko.

Azkenik, esan dezagun Erakundeak delitu arruntengatik edota droga-zaletasunengatik atxilotutakoekin "in situ" egoteko aukera izan duenean, denek adierazi dutela tratatu egokia eman zaiela.

### 2.2.14. Azken oharrak

#### a) Zenbait kasu esanguratsuren azterketa

Galdetegi beraren bitartez lortu ditugun datuek alde batetik, eta, bestetik, Erakunde honek atxiloketa zentru bakoitzeko arduradunekin eduki dituen elkarrizketek gorpuztu dute orain arte azaldu duguna. Gure azalpenetan udal kalabozoen eta Ertzaintzaren atxilotegien ezaugarrien berri ematen ahalegindu gara, batez ere bizigarritasunari, funtzionamenduari, eta

gure Erkidego Autonomoan atxilotzen diren pertsoneri ematen zaizkien zerbitzuei begiratuz.

Egia esateko, ugari dira aurkitu ditugun akatsak, eta askotan horiek denak zentru berebean biltzen badira ere, gure ustez berehalako irtenbideak bilatu beharko dira akats asko dituzten kasuetarako; honako hauek dira horren beharrean daudenak: Ertzantzak Tolosan eta Lekeition dituen atxilotegiak, eta Ordiziako, Irungo eta Bermeoko udal kalabozoak.

#### — Tolosako Ertzantzaren atxilotegia

Tolosa herria izen hori bera duen barruti edo eskualde judizialeko burua da, eta bi auzitegi dauzka.

Komisaldegia oraingoz betetzen duen behin-behineko egoitza lehena-go beste helburu batzuetarako erabiltzen ziren pabiloi batzuk dira, eta N-1 errepide nazionalaren lehengo bidetik gertu dago. Komisaldegira ibilgailuentzako patio baten bidez sar daiteke. Zeldak nahiko txikiak dira neurritz. Ateak zurezkoak dira. Hormak porlanezkoak eta zoluak terrazozkoak, eta gaizki isolatuta daude, halako goibel itxura dutelarik, argi naturalik ez egotean areago, gainera.

#### — Lekeitioko Ertzantzaren atxiloketa zentrua

Bizkaiko herri honetako egoitza herriko erdialdeko kale bateko behekaldean alokatutako lokal batzuetan kokaturik dago.

Komisaldegi etxearen aldetik dago sarrera, hau da, ez dago ibilgailuentzako alboko edo atzeko patiorik atxilotua jendearentzat ikusgai ez egoteko.

Kalabozoak zabalak dira, baina osasungaitzak. Zeldetako ateak, zurezkoak, leihatila batez hornituak daude, eta horixe da dagoen airebide bakarra. Argia ere eskasa eta desegokia da, segurtasun neurriak bezala. Dauden osasun instalazio bakarrak atxilotuek eta polizia zaindarien erabiltzen dituzte ezinbestez. Haien egoera higienikoa ere txarra da. Ez dago erregistro libururik, eta, haren orde, parte-orriak erabiltzen dira.

Atxiloketa gehienak alkohol intoxikazioagatik egiten dira, eta tratamendu berezia behar duten atxilotuak Gernikako zentrura eramaten dira.

#### — Bermeoko udal kalabozoa

Erabilera bikoitzeko zelda bat da, kanpoko leihorik ez ateko leihorik ere ez duena. Garbiketarako zerbitzuen egoera eta higiene baldintza orokorrak ere txarrak dira. Kalabozoetarako sarrera poliziaren egoitzaren administrazio bulegoetatik egiten da. Atxiloketa gehienak drogazaletasunagatik egiten dira, eta sendagileen bisita ez da egiten eskatzen den aldi guztietan.

— *Irungo udal kalabozoa*

Haren egoitza herriko udaletxeko behekaldean dago kokatua. Zeldek ez dute argi naturalik jasotzen, eta atxilotuei ematen zaizkien mantak ez daude onartzeko moduko egoeran. Erregistro libururik ez dago. Zeldak berruko osasun zerbitzua aldatzea derrigorrezkoa da.

— *Ordiziako udal kalabozoa*

Udaletxe ondoan kokatua dago. Zeldak bakarraz osatua dago, eta ertz eta bultzakiak dituen burnizko etzaleku bat dauka, nahiko arriskutsua, zau-riak edo istripuak eragin ditzakeelako. Ur hodiak agerian daude, eta komu-neko kateak ere esandako arrisku bera dauka.

b) *Ondorio eta gomendioak*

1. Atxilotuentzat Euskadin dauden udal kalabozoei, salbuespen bako-  
tzat kanpo, ez dituzte betetzen beraien barneratutako pertsonen oi-  
narrizko eskubideak. Aldiz, esan daiteke, eska daitezkeen gutxieneko baldin-  
tzak betetzen ez dituzten Ertzantzaren kalabozoei salbuespen bat direla, eta  
hori gehienak behin-behinekoak direla kontuan hartuta.

2. Trataera pertsonalean eta egoitzen baldintzetan duela gutxiatik ho-  
nera aldaketa handiak nabari dira, halabaina, erabat egokiak izan daitez-  
en, txostenean zehar atxilotuen egoitzei buruz egiten diren gogoetak kontuan  
hartzea komeniko litzateke.

3. Azken ohar hauen sarrerako zatian aipatu dugun bezala, aurkitu  
ditugun akatsak era askotakoak dira, eta haien artean premiaz konpondu  
beharrekotzat jotzen ditugunak nabarmentzearren, ondoan jarri ditugu la-  
burbildurik:

— Banakako erabilerako zelden gutxienezko zabalerak ezin du 6 metro  
karratu baino gutxiagokoa izan.

— Atxilotuei eta zaindarien osasun instalazio bereziak eduki behar di-  
tuzte, eta egoera higieniko onetan mantendu behar dira.

— Janari egoki eta osoa eman behar zaie atxilotuei 12 ordutik gora  
igaro behar badute.

— Erregistro liburuentzat eredu bateratu bat erabili behar da. Ertzantza-  
ren atxiloteta zentruak badira dagoen eredu ofiziala erabili beharko da.

Atxilotuen gauzak, eta sendagileen eta senideen bisitak kontrolatzeko beste liburu batzuk ere erabili behar dira.

— Bisitaldietarako leku bereziak ere atondu behar dira.

— Kalitatezko osasun laguntzarako zerbitzu bat ipini behar da atxilotu drogazaleentzat.

— Istripurik, edo beren buruen kontrako erasorik eragin dezaketen elementuak aldatu edo kendu behar dira.

— Atxilotuen kalabozaok argi naturala duten lekuetan kokatu behar dira (ez sotoetan), ur korrientea -eta edatekoa- eta higiene eta osasun baldintza hobeak eduki behar dituzte (Nazio Batuen presondegiarako gutxieneko arauak esigitzen duten eran).

4. Beharrezkoa izango da, zenbait kasutan, zentru berriak eraikitzea, eta beste zenbaitetan daudenak eraberritzea, sortu zireneko helburua bete dezaten, beti ere atxilotuen eskubideak errespeta daitezen.

III ATALA

**ESPAINIAKO TESTUINGURU  
JURIDIKOA**

### 3.1. SARRERA

Euskal Herriko Atxiloketa Zentruen egoera errealari buruz egindako azterketaren ondoren, gai hori buruzko testuinguru dotrinal eta juridikoari buruzko azterketa egingo da txosten honen hirugarren atalean. Bertan, atxilotuentzat dauden kalabozo motak, kalabozoen izaera, arau nazionalak, atxiloketaren sujetu aktiboak eta pasiboak, berme penal eta prozesalak eta Atxiloketa Zentruen finantziaketa gastuak aztertuko dira.

### 3.2. KALABOZO MOTAK

Apirilaren 2ko 7/1985 Udal Erregimenaren Oinarrien Lege 9Arauemaileak, atxilotuentzat kalabozoei buruz sortzen diren arazo batzuk konpontzeko bidean aurrerapauso oso positiboa ematen du, baina konpontzeke uzten ditu atxilotuen kalabozoetan maila ekonomiko, pertsonal eta giza eskubideen mailan gertatzen diren beste arazo asko. Bestalde, ez du jasotzen presodengirik ez duten barruti judizial buru izateko baldintzak betetzen ez dituzten udalerrri askotan dauden kalabozoen arazoa.

Azterketa hau egiterakoan beraz, atxilotuentzat dauden gordailu edo kalabozo moetak bereiztu behar dira:

1. Bestelako presondegi eraikuntzarik ez duten eta barruti judizialaren buru diren udalerrietan kokatutako eta Udaltzaingoaren esku dauden udal kalabozoak (abenduarien 28ko 38/1988 Mugaketa eta Solairu Legearen I Eraskinean jasotzen direnak).
2. Bestelako presondegi eraikuntzaren bat izan eta barruti judizialaren buru diren udalerrietan kokatutako eta Udaltzaingoaren esku dauden udal kalabozoak.
3. Barruti judiziala ez diren udalerrietan kokatutako eta Udaltzaingoaren esku dauden udal kalabozoak.
4. Ertzantzaren esku dauden kalabozoak, Polizia Gorputz honen he-dakuntza gauzatutako herrietan daudenak.
5. Hiri batzutan Polizia Nazionalaren esku dauden kalabozoak.

## 6. Hiri batzutan Guardia Zibilaren esku dauden Kalabozoak.

Barruti judizialaren buru diren baina bestelako presondegirik ez duten udalerrietan kokatutako atxilotuen kalabozoei eskeini izan zaie arretarik handiena lege egileen eta teorikoen aldetik. Nagusiki, horiei buruz jardungo da baita lan hau. Baina legean espreski aipatzen ez diren kalabozoei buruzko erreflesioak ere egingo dira, UEOLA delakoan udal kalabozoentzat ezarzen diren arau guztiak ezarri behar zaiela bait deritzogu. Kalabozoen beharrari buruz jarrerarik hartu gabe, garbi dago, Udal Erregimenaren Oinarrien Lege Arauemaileak espreski jasotzen ez dituen udalerrietako atxiloteta zentruak, Legeak jasotzen dituen kalabozoentzat aginduz esigitzen dituen bizigarritasun eta errespeto baldintza eskubide berberak bete behar dituztela.

### 3.3. UDAL KALABOZOEN IZAERA JURIDIKOA

Atxiloketarako udal kalabozoen izaera juridikoari buruzko azterketa xehari heldu aurretik, "atxiloketaren" kontzeptu juridikoa zehatz-mehatz finkatu beharko da.

Zentzu honetan, Nicolás Díaz Méndez irakaslearentzat atxiloteta hau da: "pertsona, bere borondatez jarrera zilegi bat bere kabuz egiteko implikaturik edo oztopaturik aurkitzen ez den edozein egoera, eta atxiloteta ez da prozeduran zehar hartzen den erabaki bat, egoera faktiko bat baizik, arau legalen arabera, atxiloketaren eta libertatearen artean erdibiderik aurkitu ezin delarik".

Dotrinak, izaera orokorrarekin, honi dagokion legedia interpretatzera koan, gauza batean ados dago eta esaten du, atxiloteta ez dela badaezbadako neurria, ez aurretiko zigorra, ez eta seguritate neurria ere. Baina ez dira falta, esate baterako Francisco Ramos Méndez, atxiloteta badaezbadako neurritzat jotzen duten autoreak.

Egia esan, badaude kasu batzuk, esate baterako, alkohol intoxikazioarekin motordun ibilgailu baten gidariarena, eta kasua badaezbadako neurritzat jo daiteke, baina autore guztiak diote atxiloteta sekula ez dela zigorra, ez neurri penala eta ez dela kriminaltasun zantzueta oinarritzen, eta honek ondorio garrantzitsuak dakartza atxiloketaren eskubide eta garrantzietzat.

Udal kalabozoak atxiloteta zentruak direla begibistakoa den arren, zehaztu behar da horiek egiazko presondegi eraikuntzak ote diren.

Ez gaude eztabaida akademiko soil baten aurrean, baizik udal kalabozoak presondegi eraikuntza bezala hartzen baditugu, atxiloketaren sujetu pasiboentzat ondorio garrantzitsuak eratortzen dira.

Kalabozoei, Presondegien Lege Organiko Orokorrean presondegi eraikuntzat jotzen ez direlako, eta atxilotuek beraietan denbora gutxi pasatzen dutelako, izaera hori ez dutela adierazten dutenen parean, beraientzat egiazko presondegi erakunde izaera defendatzen dutenen dotrina dago, eta eritzi hau, praktikan gauzatuta frogatu daiteke.



Horrela, zentzu honetan, Francisco Bueno Arús-ek ikuspegi holistikotik hau dio: "...atxilotuen udal kalabozoak prebentziozkoen egiazko presondegiak dira, PLOO-r<sup>e</sup> egiten den mailaketaz at, eta bere helburua, eginbide judizialak egin, presondegien artean tralasoak burutu eta libertatea kentzen duten zigor motzak, hala nola atzipenaldi txikia edo (bere garaian) asteburuko atzipena betetzeko, atxilotuak, preso prebentibo eta epaituak epailearen eskuetan jartzea da".

Ezaugarri hauetako bakoitza poliki aztertu behar da, "egiazko presondegi" izaeratik hasita.

Izatez eta zuzenbidez, kalabozoak presodendegi estatal edo autonomikoaren osagarriak dira; justiziaren administrazioarako beharrezko funtzioak betetzen dituzte presondegiak ez dauden lekuetan, eta horiek urruti daudenean diligenzia polizial edo prozesalako behar bezain azkar egiteko aukera ematen dute, edo barruti judizialean ez dauden egoitza judizial edo presondegietaraino atxilotuak eramateko egin behar den denbora eta diru gastua neurritz kanpokoa denean, guzti hori aurrezten dute.

Udal gordailuak edo kalabozoak, esan dugun bezala 1979ko Presondegien Lege Organiko Orokorreko 7. artikuluan espreski aipatu ez diren arren, agindu horrek ez bait du izaera zehatza, egiazko presodengizat jo daitezke beren izaera kontuan izanik: "prebentiboen eraikuntzak...atxilotuen eta presoaren atzipen eta zaintzara bideratuak" (PLOO-ren 8. artikulua arabera). Kualifikazio hau (bi tokiak parekatzen dituena) Presondegien Zuzendaritza Nagusiaren Memoriek baieztatzen eta osatzen dute, atxilotuen kopurua arruntki "kartzelak" deiturikoen barruan sartzen bait ditu. Azken estatistika ofizialetan ikusten den bezala, adibidez 1976, 1977, 1981 eta 1982ko abenduaren 31koetan, atxilotu hauen kopurua oso txikia da, eta ez da diferentziarik egiten atxilotu hauen ("kartzeletakoen") eta kalabozoetan atxilotutakoen artean.

Udal kalabozoaren presondegi "maila" aztertzeke, beharrezkoa da UEOLA-ren 27. artikulua eta bere 5. azken xedapena xeheki aztertzea, eta osorik traskribitzea merezi du.

UEOLA-ren aipaturiko 27. artikulua hau dio:

"1. Estatuaren, Lurralde Autonomoen eta beste herri Erakunde batzuen Administrazioek Udalerrien esku utzi ahal izango dituzte beren interes propioei eragiten dieten gaien ahalmenak garatzeko gaitasuna, horrekin gestio publikoaren eraginkortasuna hobetzen eta hiritarren partaidetza maila handiagoa lortzen bada. Uzteari buruzko xedaketa edo akordioak, berorren maila, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, Administrazio delegatzaileak berretzat gordetzen duen ahalmena eta transferitzen dituen bitarteko pertsonal, material eta ekonomikoak bezala.

2. Nolanahi, utzitako zerbitzuen burutzea zuzentzeko eta kontrolatzeko, izaera orokorreko agindu teknikoak eman ahal izango ditu, eta edozein momentutan udal gestioaren berri eskatu ahal izango du, eta bere esku egongo da baita komisionatuak alde batera uztea eta ikusten diren hutsegiteak konpontzeko eskaerak egi-

tea. Aginduak betetzen, eskatutako informazioak ematen eta egin-dako eskariei erantzuten ez bazaie, Administrazio delegatzaileak uztea ezereztu dezake edo Udalerriaren esku utzitako ahalmenak berak bete ahal izango ditu. Honen ekintzak, Administrazio delegatzailearen organu eskudunen aurrean errekurritu ahal izango dira.

3. Uztea gauzatzeko, interesaturiko Udalerriak bere onespere eman beharko du, eta behar izanez gero, Lurralde Autonomoari kontsultatu eta informea pasa beharko zaio, Legez derrigorrez ezartzen den kasuan salbu, kasu horretan, agintzen dena betetzeko behar diren zuzkidurak edo neurri ekonomikoen gehikuntza eman beharko zaiolarik.

4. Delegatutako ahalmenak Estatuaren edo dagokien Lurralde Autonomoaren legediaren arabera gauzatu dira, edo bestela, udal erakunde delegatzaileak onartutako araudiaren arabera”.

Agindu hori, bosgarren azken xedapenak osatzen du, eta horrela dio:

“Lege hau indarrean sartzen denetik, presondegirik ez duten barruti judizialen buru diren Udalerriek, delegatutako ahalmen bezala, epailearen esku jarri beharreko atxilotuen kalabozo zerbitzua burutzeaz arduratuko dira, atxilotu horien zaintza lanak Polizia Judizialaren funtziotan Udaltzaingoak egin beharko dituelarik.

Presondegia gaitan eskuduna den Administrazioak, aurreko atalean aipatzen diren Udalerri horien esku jarriko ditu, dagokion saileko legediak iragarritako moduan, aipaturiko zerbitzuak betetzeko behar diren bitarteko ekonomikoak.”

Transkribitutako lege honen aginduetatik, zalantzarik gabe eratoritzen da, kalabozoak udalen ahalmen delegatuak direla, zehazki baieztatzen delako Estatuaren Administrazioak (kasu honetan Presondegien Zuzendaritza Nagusia), edo lurralde autonomoek udalerrien esku utzi ditzaketela atxilotuen kalabozoei dagozkien ahalmenak “horrekin gestio publikoaren eragin-kortasuna hobetzen...eta hiritarren partaidetza maila handiagoa lortzen bada...”

Aginte delegatzaileak (27. artikulua horren arabera), uztearen xedapen edo akordioan, delegazioaren maila, edukia, baldintzak eta iraupena, eta berretzat gordetzen duen kontrola eta trasferitzen dituen bitarteko pertsonalak, materialak eta ekonomikoak zehaztu BEHARKO DITU. Bigarren mailako puntuetan salbu (finantziaketa aztertzean ikusiko den bezala), uztearen puntu erabakior horiek ez dira behar bezain zehazki formulatu. Beraz, hutsune hori lehen bait lehen bete behar da.

Era berean, Administrazio delegatzaileak, delegatutako zerbitzuen burutzea zuzentzeko eta kontrolatzeko izaera orokorra duten agindu teknikoak eman AHAL IZANGO DITU. Agindu horiek ere ez daude, eta dudarik gabe behar dira, atxilotuen kaltetan egin daitezkeen gehiegizko aginteari eta obligazioak ez betetzeari ihes egiteko.

Logikoki, udalerriek Administrazio delegatu bezala, delegazioaren eraginkortasuna onartu BEHARKO DUTE, hori derrigorrez ezartzen bada (baina hori formalki ez da gertatu), edo derrigorrez ezartzen ez bada, onartu DEZAKETE.

UEOLA-ren bosgarren azken xedapenean udalerriei ezartzen zaien derrigortasuna, arauaren beraren testuinguruan interpretatu beharko da 27. artikuluan agintzen denarekin adostasunean, zeinaren arabera finkatu beharko diren delegazioaren maila, edukia, baldintzak eta iraupena, eta dagoen kontrol judiziala ere. Aginduko beste baldintzak ere bete beharko dira.

Praktikan ordea, ez da Udalerrien onarpena eskatu, baizik bosgarren azken xedapeneko derrigortasuna ezarri da, eta ez du berekin eraman beharrezko zuzkidura ekonomikorik.

Administrazio delegatzailea-Administrazio delegatua binomioa, ahalmenen banaketa ikuspegitik planteiatu beharko da gainera.

Halaxe da, gaur egun, Konstituzioaren testuko 150.2 artikulua eta honekin batera 149.1.6. artikulua eta Kataluniako Autonomi Estatutuaren 11.1. artikulua arabera, Kataluniako Lurralde Autonomoak bakarrik dauzka transferituta "Justizia Ministerioaren Presondegien Zuzendaritza Nagusiaren eta honen pean dauden Erakunde Autonomoen zuzendaritza, antolamendu eta ikuskaritza funtzioak, Lurralde Autonomoan kokatutako maila guztietako Presondegietan".

Ondorioz, Kataluniako Lurralde Autonomoan, Generalitatea bera izango da Administrazio delegatzailea.

Estatuko beste lurraldetan, Euskal Lurralde Autonomia barne, Estatuaren Administrazioa da, Justizia Ministerioaren Presondegietarako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Administrazio delegatzailea.

Gogoratu behar da, jadanik jakina den bezala, Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua Estatuaren esku uzten duela presondegien legediari buruzko ahalmen osoa.

Gure Autonomi Estatutuak bestalde, presondegiei dagokien bi agindu zehatz jasotzen ditu.

Alde batetik, Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 10. 14 artikulua xedatzen du, ahalmen eksklusiboak dituela "Adin Txikikoen Babeserako, presondegietarako eta bergizarteratze erakundeetan, zibil, penal eta presondegi gaietan legedi orokorrak dionarekin adostasunean".

Gainera, EHAE-aren 12.1 artikulua dio, EEA-ri dagokiola Estatuaren legedia gauzatzea "presondegietako legedi" gaietan.

Halere, Euskal Lurralde Autonomoari Estatuaren bidez aitortzen zaion ahalmenak erabat betetzeko behar diren bitarteko pertsonal eta materialak ez zaizkio oraindik transferitu.

Puntu honetan azpimarratzekoa da, 198ko irailaren 24ko datarekin Eusko Legebiltzar honetako Giza Eskubideen Batzordeak onartu zuen ez legeko proposamena:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritza premiatzen du, kartzelen antolamendu, erregimen eta funtzionamendu gaietan Estatuaren 10.4 artikulua Euskal Herriari ematen dion trasferentziak negoziatzeko eta Presondegien Administrazioaren Koordinaziorako behin-behineko arauak ematen dituen ekainaren 20ko 1.436/84

Erret Dekretua bertan behera uzteko edo aldatzeko tramiteak hasi ditzan”.

Guzti horregatik, aipaturiko transferentzia egiten denean, UEOLA-ren 27. artikulua xedatzen duenerako Euskal Lurralde Autonomoko Administrazioa Administrazio delegatzaile bilakatuko dela gogoratu behar da, eta txosten honetan egiten diren erreflesio guztiak ezarriko zaizkiola.

### 3.4. ESTATUKO ARAUAK

Lehenik, txosten honetarako interesgarrienak diren eta dagokien erakunde estatal, autonomiko eta munizipalek kontutan hartu behar dituzten Estatu mailako arau legal nagusiak aztertuko dira. Ondorengo orrietan atxilotetaren sujetu pasiboei eta aktiboei buruzko oinarritzko puntuak eta bearien eskubideak eta bermeak komentatuko ditugu.

Lege aurrekinen artean, 1849ko uztailaren 26ko Kartzelen Legea jotzen da adostasunez kontutan hartzeko zaharrena bezala, eta bere 7. artikulua hau xedatzen zuen: “atzipenaldi txikia betetzera kondenatutako eta barrutiko kartzeletara eramateko interin kriminalki epai bidean aurkitzen direnak gordetzeko Gordailu edo Kalabozo bat egongo da udalerrri bakoitzean”.

Judiziamendu kriminalaren Lege zaharrak ere (geroago egindako aldaketa nahiko sakonekin), 489. eta ondorengo artikuluetan, nahiko zehazki xedatzen ditu, baina ez behar hainbat, atxilotetaren arrazoiak eta baldintzak, eta atxilotuen eta agintaritza agenteen eskubideak eta betebeharrak.

Gai honi buruz geroztik indarrean sartu diren arauak zatikatuak eta ez osoak izan dira, eta gehienetan, arau maila urrikoak.

Horrela, indarrean sartu aurretiko sistematik gogora ditzakegu, adibide gisa, 1968ko urriaren 21eko Justizia Ministerioaren Agindua, zeinak ondorengo xedatzen zuen: “Instrukzio Epaileraren esku dauden atxilotuak, barruti judizial bakoitzaren barruan, presondegirik ez dagoen kasuan, barruti burua den udalerriko udal kalabozoan sartuko dira, eta polizia jardunek behar duten denbora bakarrik igaroko dute, jarraian, eta epailearen aginduz, dagokien Arreta edo Atxiloteta Zentrura (egun Prebentiboen Lekua) eramango direlarik” (3. art.).

Gaia behar bezala tratatzeko, jarraian, eta indarrean sartutako dataren arabera, txosten honetako gaiarekin zuzenean edo zeharka erlazionatuta dauden arauak aipatzen ditugu, ondoren, pisu handiena duten arauak zehazkiago aztertzeko:

– 1970eko Giza Birgaitetaren Arriskugarritasunaren Legea eta bere Araudia (19. artikulua eta ondorengoak), inkonstituzionaltzat jo behar ez diren neurrian.

– 1978ko Espainiako Konstituzioa, 17.2 eta 3 eta 24.2 artikulua.

– 1979ko Presondegien Lege Organiko Orokorra (5, 8, 15.1, 16, 17.2, 49, e.a. artikulua) eta 1981eko bere Araudia (6.4, 17, 30, 31, 133, e.a. artikulua).

– Ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoa, Alarma, Salbuespen eta Setioaz (ekainaren 5eko EAO).

– Maiatzaren 24ko 6/1984 Lege Organikoa, Euskal Herriko ohitura eta usarioen tradizio zaharraren Habeas Corpusa arautzen duena.

– 1984ko ekainaren 20ko 1.436/84 Erret Dekretua, Presondegien Administrazioen Koordinaziorako Behin-behineko Arauak.

– Martxoaren 21eko 4/85 Legea, Extradizio Pasiboarena (8. eta 9. art.).

– Apirilaren 2ko 7/1985 Udal Erregimenaren Oinarrien Lege Arau-mailea, 27. artikuluan eta bosgarren azken xedapenean.

– Uztailaren 1eko 6/1985 Aginte Judizialaren Lege Organikoa (443. art. eta ondorengoak).

– Uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoa (uztailaren 3ko EAO), atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei buruzkoa (30. Art.).

– Martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoa (martxoaren 14ko EAO), Seguritate Indar eta Gorputzena (29. art. eta ondorengoak, 51-54). Seguritate Indar eta Gorputzek atxilotuak udal kalabozoetan zaintzen lagunduko dute pertsona arriskutsuak eta ospitalizatuak diren kasuan.

– Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legea. Udaltzaingoak, Seguritate Indar eta Gorputzen Lege Organikoan iragarritakoarekin adostasunean beteko ditu bere zereginak.

– Abenduaren 12ko 2.715/1986 Erret Dekretua. Erret dekretu honen arabera, zerbitzua “atxilotuei, preso prebentiboek eta epailearen esku dauden zigortuei hedatzen zaie”.

– 1987ko urtarrilaren 8ko Justizia Ministerioaren agindua, 1988ko apirilaren 12ko aginduak aldatua. Elikadura gastuak ezartzen ditu.

– 1990eko apirilaren 6ko agindua. Atxilotuak, presoak, eta zigortuak eramateko ibilgailuek izan behar dituzten bereiztasunak finkatzen ditu. (Ikus ADP, 1990, 303-309 orrialdeak).

Agindu honek, gai honi buruz lehenagokoetan zeuden hutsuneak betetzen ditu, trasladoak normalean errepidez, ibilgailu egokietan eta Indar

Publikoaren zaintzapean egin behar zirela besterik ez bait zen esaten, ibilgailuen datu teknikoak ez ziren zehazten. Agindu honek "aurre egiten die ahal den neurrian, atxilotuentzat, presoentzat edo zigortuentzat traslado horiek ekar diezaieketen arraisku eta ezerosotasunei" eta "gutxienezko segurtasun baldintzak" ezartzen ditu. (Agian, atxilotu gaisoen trasladoetan arreta gehiago jarri behar da. Maila honetan, hutsune oso nabariak ezagutzen dira).

### 3.5. ESTATUKO ARAUAK NAZIOAZ GAINDIKO IKUSPUNTUTIK

Atxiloketan zuzenean edo zeharka eragiten duten egoitza eta pertsonen buruzko estatu mailako arau legalak ezagutzea garrantzitsua bada, nazioaren gainetik dauden arau juridikoak ezagutzea ere oso garrantzitsua da, onetsi eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu badira, Espainian ere indarra dutelako, eta onetsi eta argitaratu ez badira ere, indarrean dauden legeak interpretatzeko oso kontutan eduki behar diren oinarritzko erizpideak ezartzen dituztelako. (Espainiako Konstituzioa, 10.2 art.).

Alegia, Estatu barruko arauak nazioaren gainetik dauden arauen tesuinguruan eta ikuspegi horretatik irakurri behar dira.

Orientabide juridiko eta deontologiko unibertsal horiek, estatu arauen erizpide hermeneutiko bezala balio behar dute edozein kasutan.

Txosten honetako bosgarren atalean aztertuko dira Nazio Batuen tresna batzuen gaiarekin lotutako xedapenak; kapitulu honetan ordea, aztergai daukagun honi ezarri lekioken nazio gaindiko araurik garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

– 1984ko Giza Eskubideen Aitorpen Unibertetsala (1, 2 eta 3. artikulak).

– Giza Eskubideen eta Oinarritzko Libertateen Babeserako Europako Hitzarmena, Erroma, 1950eko azaroak 4 (5. art.).

– 1966ko abenduaren 19ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (9 eta 10. artikulak).

– 1979ko maiatzaren 8ko Europako Kontseiluaren Poliziari buruzko Aitorpena (A. Etika, 2, 3, 8, 12 eta 14. aleak).

– Legea betetzeaz arduratzen diren funtzionarietzat Portaera Kodea, Nazio Batuak, 1979ko abenduak 17 (2, 3, 5 eta 6. artikulak).

– Europako Kontseiluaren Gomendioak (1.985/58) bere Ministraiaren Kontseiluaren bidez.

– Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Jurisprudentzia.

### 3.6. ATXILOKETAREN SUJETU PASIBOAK ETA AKTIBOAK

#### 3.6.1. Atxiloketa egin daitekeeneko egoerak

Atxiloketaren sujetu pasiboak nor diren definitzeko, garrantzitsua da lehenik hiritar bat atxilotzeko egon daitezkeen arrazoiak finkatzea. Behar bada ez modurik egokienean, baina arrazoi horiek Judiziamendu kriminalaren Legearen 490. eta ondorengo artikuluetan aipatzen dira.

Herritarrek atxilotzeari buruzkoan gerta daitezkeen egoera ezberdinak honako hauek dira:

– Herritar bat *edonork* atxilotu dezakeeneko egoerak:

- \* delitu bat egiten ahalegintzen bada;
- \* delitu bat burutzen “in fraganti” harrapatzen badute;
- \* kartzelatik ihes egiten badu;
- \* prozesaturik, edo errebeldian edo kartzelara daramatenean ihes egiten badu.

Beste hiritar bat atxilotu duen hiritarra, bere ekintza justifikatzeko prest egon behar da. (491. art.).

– *Agintaritzak* edo polizia agenteak atxilotzeko *obligazioa du*:

- \* partikular batek atxilotu ditzakeen lehen aipatutako kasu guztietan;
- \* “presoaldi txikia baina zigor handiagoa izan dezakeen delituagatik” prozesatuta dagoena, hau da, sei hilabate eta egun bateko kartzela zigorra baina handiagoa izan dezakeena;
- \* ustez, epaileak deitzen duenean azalduko ez den (baldin eta uanean bertan fiantza ordaintzen ez badu) prozesatua;
- \* arrazoiz, delitu bat burutu duela edo burutzen parte hardu duela susmatzen den pertsona (492. art.).

Epailearen aginduz, kartzela zigorrera kondenatu diren pertsonak ere atxilotu behar dira (Judiziamendu Kriminalaren Legeko 505, 512 eta hauen parekoak).

Pertsonak ezin dira atxilotu hutsegiteak burutu dituztelako bakarrik, us-tezko errudunak etxebizitza ezagunik eta atxilotu nahi duenaren ustez behar adinako fiantzarik ere ez duen kasuan salbu (495. art.).

Baina atxiloketari buruzkoan badira zenbait egoera berezi. Kargu publiko batzuk, adibidez epaileak eta magistratuak, “ageriko delitua burutu duten kasuan epaile eskudunak bakarrik atxilotu ditzake”. Era berean, bortxaezintasuna eta inmunitatea dute beste kargu publiko batzuk, hala nola, Kongresuko Diputatuek, Parlamentari Autonomikoez, Ministroek, Lurralde Autonomoetako Kontseilariek, e.a.

Bestalde, 1978an arinki aldatutako 1970eko abuztuaren 4ko Arriskugarritasun eta Bergizarteratze Legeak eta bere araudiko 64. artikulua diotenen arabera, ustez giza arriskugarria dena atxilotu daiteke. Arau hau konstituzioaren aurka egon daitekeela nabaria da.

Gazteen edo adin txikikoen alorrean hutsegite handi eta penagarri bat dago. Dagoen arautegi eskasak ez ditu asetzen oinarritzko bermeak. Adibidez, 1986ko urriaren 8an Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak hartu zuen Akordioaren arabera, Guardian dagoen Instrukzioko Epailearen esku jarri behar dira. Akordio honek, gazteari atxilotuaren bermeak eman ordez, “atxilotu” egiten du heldua bailitzan, eta “helduen” trauma eta kutsadura berdinetara behartzen du.

Beraz, 7/85 Legearen bosgarren azken xedapenak adierazten duenaren tenorean, epailearen esku jartzeko atxilotu daitezkeen pertsonen ustezko kasuak aurrekoak direla esan dezakegu.

### 3.6.2. Atxiloketaren sujetu pasiboen definizioa

Halere, atxiloketaren sujetu pasiboak nortzuk izan daitezkeen definitzerakoan arazo larri bat gertatzen da, bereziki atxilotuen berme eta eskubi-deen sisteman eta atxiloketa egoitzek bete behar dituzten baldintzetan duten eraginagatik.

Azalpenean zehar adierazi denez, atxiloketako zaindegien eta horietara eramango direnen izaera juridikoaren artean aria estu-estua dago.

Erakunde honek egindako ikerketatik ateratzen denez, Euskal Herrian orain diren atxiloketa zentruetan atxilotu besterik ez direnak edukitzen badira ere, Estatuko beste tokietan ez da honelakorik gertatzen.

Honela Sindic de Greuges-ek lehen aipatutako “Catalunyan Atxilotutakoentzako Udal Zaindegiei buruzko Txosten”ean atxiloketa kopurua neurtzeko adibide gisa ematen duenaren arabera, gainontzeko zaindegietan gertatzen denaren islada izan daitekeena, 1987. urtean Catalunyako zaindegi batetara 324 lagun eraman zituzten, eta hauetatik benetako atxilotuak 189 besterik ez ziren. Beste 135 lagunek, zati batetan edo oso-osoan, jarritako zigorrak bete zituzten: horietako batek zaindegian 121 egun eman zituen, 8k 50 egunetik 100 bitarte, 40k 25 egunetik 50 bitarte, eta gainontzeko 86k, 15 egunetik 25 bitarte.

Datu hau, indarrean dagoen araupidetzaren zehaztasunik ezagatik, ezin kezkarriago gertatzen da, izan ere, atxiloketa-zentruak, espetxe direla zehazki esaten duen araurik —horrek ekarriko lituzkeen ondoriekin— ez dagoen arren, aribidean horiek helburu horietarako erabiltzen bait dira.



Horregatik, gaia argi uzteko araupide-aldetik erabaki sendoz jokatzeko ahalik eta azkarren hasi beharra dago.

Jadanik askotan aipatu den UEOLA-ren 7/85 Legearen bosgarren azken xedapenak agintzen duenaren eta Presondegietakoa Araudiaren bi bertsioetan xedatzen denaren artean nolabaiteko kontraesana sortzen da.

Azken xedapenaren arabera, atxiloketarako udal kalabojoetan ustez sartu eta eduki daitezkeen sujetuak "epailearen agindura dauden pertsonak" direla esaten den bitartean, Presondegietakoa Araudiak 1981eko abenduaren 12ko lehen erredakzioan eta 378. artikuluan "atxilotuek, presoek eta epaituek" sortutako elikadura gastuetaz hitzegiten zuen.

Halaber, aipatu artikularen behin betiko erredakzioak, abenduaren 12ko 2.715/86 Erret Dekretuaren aldaketan oinarritzen den horrenak, "epailearen eskutan dauden atxilotuez, badaezpadako presoek eta zigortuez" dihardu.

Araupidetza horretarako lehen hurbilketan, atxilotu besterik ez direnek irizpidea "badaezpadako" eta "zigortutako espetxeratu"-etara ere zabaldu dela uler daiteke, baina hori ez da zegokion araupidez aintzin-ohartemaneko izan, behar hainbateko lege-mailarik gabeko arauen bidezkoa baizik.

Justizia Ministeritzak, hala ere, gai honi buruzkoan, eta 88-1-25ean izandako Justizia eta Barne-Batzordean 2.715/86 ED UEOLA-an esaten denari egokitzeari buruz, legebiltzarkide batek egindako galderari erantzunez, atxilotu irizpidea badaezpada eta zigorra betetzeko espetxeratueta ere zabaltzearen aurrean ez gaudela, Errege-Dekretuetarako aztertzean, Ministroen Kontseiluan sartutako "argigarritarako aldaketa" dela baizik adierazi zuen eta, hori, UEOLA-ko manuetan oharmandakoez gaineratik inoiz ez dela jokatzeko ulertuz.

Esandako "argiketa" honako honetan datza, "badaezpada espetxeratu"-ekiko aipamena epaikarritza-barrutitik "igaro-aldian" diren badaezpadako espetxeratuentzako dela ulertzean datza, horraez besteko egipide judiziala betetzeko eraman bait dira, bakoitza bere epaikarritza-barrutian azaltzea nahitaezko izanik, eta hori probintzia mailako espetxera eramaterik.

Ministroak uste zuenez, UEOLA-ko esaldia inoiz ere ez zegoen, probinsional mailako espetxea bazter utziz, atxiloketako lehen aldirako pentsatuta.

"Zigortuak" adierazpenari buruzkoan, Ministroak argitu zuenez, ez da zigorrak udal zaindegiak bete erazteko asmorik, hor egiten den aipamena "sendetsitako zigorra jasotakoak izan daitezkeenez, eta beraz zigortuak izateaz gainera, beste arrazoiren bat biderapenetan dutelako behin-behineko espetxeratu-egoeran dauden"-ei buruzkoa da.

Dena dela, horren garrantzi handiko gai bat behar hainbateko araugintza-maila izanezko arauz zehatz-mehatz arautzea ezinbesteko gertatzen da.

### 3.6.3. Atxiloketa egiten dutenen jokabidea

Atxiloketako udal zaindegien izaera juridikoaz orain arte adierazitako auziari, hots, horiek benetako espetxetzat eduki behar ote edo behar ez ote direni, eta atxiloketaren gai nortzuk izan daitezkeeni buruz eman dakion ir-

tenbidearen mende geratuko dira, zalantzarik gabe, atxiloketa egin dezaketenen mugak.

Hainbat aldiz aipatutako UEOLA-ko azken xedapenetako bosgarrenean aldarrikatzen denez, epaikaritzaren esku dauden atxilotuen zaingoa Poli Judizial lanetan diharduten Udaltzainei dagokie.

Udal zaindegien norentzakotasuna zabaltzeak, atxilotuentzako izatetik badaezpada espetxeratuentzat eta epaikaritzaren esku dauden zigortuentzat izatera aldatzeak teknika mailako beste arazoak sortzen ditu, izan ere, LOPJ delako zenbait manu hautsi daitezkeenez gainera, doakien udalen jokabiderako uka ezineko ondorioak bait dakartza eta.

Dena dela, atxiloketa egiten duten polizia taldeen jokabiderako oinarri-arauak zehaztu ahal izateko, atxilotetaren sujetu aktiboei dagokionez, hots Polizia Gorputzetaz, martxoaren 3ko Seguritate Indar eta Gorputzei buruzko 2/1986 Lege Organikoaren 5. artikulua jasotzen duen agindu deontologikoa gogoratu behar da, atxilotutako pertsonekin izan beharreko jardunerako oinarritzko hastapen bezala, hau agintzen die Seguritateko Indar eta Gorputzetako kideei: "atxiloketa egiteko unean behar bezala identifikatu behar dira" eta "atxilotzen dituzten edo beraien zaintzapean dauden pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa zainduko dute", pertsonen ohorea eta duintasuna errespetatuz.

Zentzu honetan, Europako Kontseiluko Parlamentariaren Biltzarrak Poliziari buruz onartutako Aitorpena, Poliziaren Kode Deontologikotzat jotzen dena gogoratu behar da, atxilotzean gogoan izan behar diren oinarritzko erizpideak finkatzen bait ditu. Aitorpen horrek tortura debekatzen eta indarraren erabilera mugatzen du, bereziki armen erabilera denean (honi dagokionez, 1988ko apirilaren 18an Auzitegi Gorenak eman zuen epaia aipatu daiteke). Era berean, bilatzen den pertsonaren arraza edo sinesmen politiko edo erlijiosoengatik ez atxilotzea edo atxiloketa horietan parte ez hartzea esigitzen du, eta poliziak, zaintzen duen pertsonaren osasunari arreta eskeini behar diola ere agintzen du.

### 3.7. ATXILOTUAREN BERMEAK ETA ESKUBIDEAK

Euskal Herriaren erabiltze eta ohitura tradizioen argitan, gogora dezakegu adibidez, 1400. urteko Lapurdiko Anaitasun Kuadernoak agintzen duena, alegia gaizkileak atxilotzerakoan "jo eta zauritu gabe" egin behar dela.

Gaur egun, atxilotuaren eskubide eta bermei buruzko nazioarteko arauak norabide oso garrantzitsuak ematen dituzte txosten honetako 5. kapituluaren esan den bezala.

Honi dagokionez, hemen gogora dezakegu 1988ko abenduaren 9an Nazio Batuek atxilotuaren berme eta eskubidei buruz eman zuten "edo zein atxiloketa edo kartzelaratzeko motaren pean dagoen pertsona oro babes-teko Hastapen Multzoa". Bertan esaten da, "tratu edo zigor krudelak, ez gizatiarrak edo degradatzaileak" adierazpena zentzu honetan ulertu behar dela: "fisikoak edo mentalak izan daitezkeen gehiegikeria mota guztien kontra, presoak edo atxilotuak denboraldi batez edo betirako bere zentzuetakoren

bat kenduta, ikusmena edo entzumena, ala non dagoen edo pasatzen den denboraren zentzua kenduta edukizetik ahalik eta babesik zabalena eman behar du”.

Kontuan eduki behar da baita, 1990eko irailaren 2tik indarrean dagoela Haurraren Eskubideen Konbentzioa (18 urte baino gutxiagokoena), 9.4 eta 37. artikuluetan atxiloketaz egiten dituen aipamen zehatzetaz aparte, atxiloketa kasu posibleetan hurrek eta gazteek behar duten goi mailako arretari garrantzia juridikoa ematen dio, bereziki drogomenpekotasun arazoetan.

Atxilotuaren bermeak eta eskubideak nazio gainetik ikuspuntutik aztertutik ondoren, gaiari buruz estatu mailan dauden arauak aztertzerik pasatuko gara, bereziki Espainiako Konstituzioak eta Judiziamendu Kriminaren Legeak diotena ikustera.

Konstituzioak, 17.2 eta 3 eta 24.2 artikuluetan modu garbian, baina era programatikoan bakarrik finkatzen ditu atxilotuaren oinarriko eskubideak.

Bi aginduak hitzez hitz ematen dira, atxilotuaren eskubideei berme izaerako markoa ezartzean duten garrantzia bereziagatik.

17.2. artikulua hau dio: “epai aurreko atxilotzea, egintzak argitzeko hertsiki behar den denboratik gora ez da luzatuko eta, hirurogei eta hamabi ordu barruan, atxilotua askatua izango da edo auzitegi agintarien pentsutan jarria”.

Agindu bereko 3. atalean hau xedatzen da: “edozein pertsona atxilotu lehene bait lehen jakinaraziko zaio eta era ulergarrian bere eskubide eta atxilotze arazoak, aitortzerik behartu ezingo dutelarik. Legeak agintzen duen eran, polizi eta judizial diligentzietan atxilotuari abokatu laguntza bermatzen zaio”.

24.2. artikulua hau aitortzen du: “Era berean, denek dute hontarako eskubidea: legeak lehendik izendaturiko Epai arruntengana jotzeko, baita abokatuaren defentsa eta laguntza esigitzeko ere, haien aurkako salaketaren azalpenerako, auzibide agirizkora behar ez bezalako luzapenik gabe eta garrantzia osoz defentsarako dagozkien frogak guztiek erabiltzeko, norberaren aurka ez aitortzeko, errudunak ez aitortzeko eta errugabetzat hartuak izateko.

Legeak kasuok arautuko ditu, hots, senitarteko edo sekretu profesionalagatik ustezko delituzko ekintzei buruz aitortzerik beharturik ez dira egongo”.

Orain gogoratu behar da, oso labur bada ere, Espainiako Konstituzioak aitortzen dituen eskubide horiek, aginte juridiko unibertsalaren dokumentuak baieztatzea besterik ez dutela egiten. Horrela, 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenak bere 9.2 artikuluan hau xedatzen du: “Pertsona atxilotu orori jakinaraziko zaio atxilotzen denean horren arrazoia, eta bere kontrako salaketa atzerapenik gabe esango zaio”.

Judiziamendu Kriminaren Legeak araututako berme penal eta prozesalek (489tik 501 artikulurarte, biak barne) aipamen berezia merezi dute. Hasieratik, 489. artikulua esaten du, atxiloketa ez dagoela agintaritzako agenteak nahi dituen ahalmenen barruan, baizik legeek xedatzen dituzten kasu eta xehetasunetara egokitu behar dela.

Atxilotuen berme eta eskubideei buruz planteatzen diren gairik garrantzitsuenak aztertzen dira ondoren.

### 3.7.1. Atxilotetaren iraupen epea

Atxilotuen eskubideak bermatzeko markoa ezartzean, beharrezkoa da atxilotetak iraun dezakeen epeari muga zehatzak ezartzea. Judiziamendu Kriminalaren Legeak eta Konstituzioak atxiloteta epeari buruz diote egiteak argitzeko burutu beharreko ikerketek behar duten denbora baino gehiago ez duela iraungo. Eta ez hori bakarrik, baizik ohitura den bezala, atxilotuak, libre edo eskudun epailearen eskuetan geratu arte atxilotuta pasa ditzakeen orduak finkatzen ditu, 24 ordu arau orokor bezala (JKL-ren 496. art.), eta aipaturiko legearen 497. artikulua adierazten dituen ustezko kasuetan 72 ordutara luzatu daitezke.

72 ordutako epe honentzat salbuespenak badaude. Adibidez, hitz arruntetan legedi antiterrorista deitzen zaionaren pean daudenak, horien atxiloteta epea bost egunera luzatu bait daiteke (maiatzaren 25eko 3/88 Lege Organikoa).

### 3.7.2. Atxilotuaren bermeak atxiloteta burutzean

Judiziamendu kriminalaren Legeak arautzen du atxiloteta burutzeko modua, eta 520.1 artikulua hau agintzen du: "atxiloteta eta behin-behineko kartzela, atxilotua edo preso bere izatean, ohorean eta ondarean ahalik eta gutxien kaltetuko duen eran egin beharko dira".

### 3.7.3. Atxilotuen eskubide zehatzak

Atxilotuarentzat atxilotze formak kalterik txikiena izango duen formaz egiten den oinarrizko gogarren orokor honen ondoren, Judiziamendu Kriminalaren Legeak, iraupena eta epeak, atxilotuaren eskubide zehatzak, salbuespenezko kasuak (adinez txikiak, terroristak, arriskutsuak, atzerritarrak), atxilotuen banatzea, beren eskubideak eta bermeak, e.a., zehazten ditu.

Zehazki, 520.2. artikulua hau esgitzen du: "atxilotutako edo preso dagoen pertsona orori jakinaraziko zaio era ulergarrian eta berehala zer leporatzen zaion eta zergatik uzten den libertaterik gabe, eta baita zein diren bere eskubideak...". Eskuratu diren datuen arabera, badirudi hau normaltasun osoz egiten dela Euskadiko kalabojoetan. Baina seguraski hobeto ere egin liteke. Gero, ondorioetan ikusiko dugun bezala, atxilotuari atxilotetaren lehen unean bere eskubideak jasotzen dituen (zergatik atxilotua izan den, isilik egoteko eskubidea...) ohar idatzi argi eta zehatz bat ematea komeni da. Agian, atxilotuari idatzi hori eskuratu zaiola adierazteko eta honek sinatu dezan, erregistro liburuetan tarte bat gordetzea komeni da.

Idatzi honetan, era garbi eta zehatzez, atxilotuaren oinarrizko eskubideak aitortu behar dira.

Atxilotuari oñdorengo eskubideak aitortzen dio gure prozesamendu legeak:

- isilik egotea edo epailearen aurrean bakarrik hitzegitea,
- bere aurka aitortpenik ez egitea,
- abokatuia izendatzea eta baita poliziaren eta epailearen aurrean aitortpenak egitean bere laguntza izatea,
- nahi duen familiar edo pertsonari atxilotua izan dela eta une bakoitzean non dagoen jakinaraztea,
- dohaneko interpretaria,
- sendagile errebisioa, e.a.

Era berean, Judiziamendu kriminalaren Legeak beste gai hauek ere arautzen ditu: pertsona ar eta emeen beharrezko aldentzea (521. art.); atxilotuari iruditzen zaion erosotasun eta okupazioak eman ahal izatea, salatua ez bait da oraindik preso (522. art.); bere erlijioko ministro baten, medikuaren eta familiartekoen (523. art.) bisitak, eta goragokoei idazteko baimena, hau guztiz bidezkoa bait da (524. art.).

Atxilotuek, beraien egoerarekin elkargarriak diren kasuan, denboraren okupazio eta enplegu libertatea eduki behar dute.

Segurtasun neurri berezien erabilera ezin da poliziaren nahiaren esku utzi, baizik “desobedientzia, biolentzia edo errebelio kasuetan, edo ihes egin ahalegindu edo egiteko prestaketak egin dituen kasuan” bakarrik erabili daitezke.

Bestalde, ezin dira atxilotuak lana egitera behartu “eta beraien segurtasuna eta sumarioaren erreserba konprometitzen ez dutenero, atxilotuaren arrazoinarekin eta eraikuntzaren baldintzekin elkargarriak diren erosotasunak eta okupazioak eskuratu behar zaie”. (Judiziamendu Kriminalaren legeko 52. art.).

Abokatuaren asistentziak garrantzi berezia du atxilotuaren eskubideak bermatzeko. Defendatzailearen jarduna pasiboa da; prozesamendu legearen aginduzko arau guztiak betetzen direla, ekintza normal garatzen dela, bere defendatua berme prozesal eta konstituzionalen pean dagoela eta ekintzak ezerezteko arrazoinik ez dela gertatzen ziurtatzera mugatuko da. Aitortpen hau amaitu ondoren, eta beraz, atxilotuaren komunikazio eza altxatzen denean bakarrik hitzegin ahal izango dute abokatuak eta defendatuak nahi duten gauzetaz eta bakarka.

Azkenik, atxilotuen eskubideak bermatzeko, oso egokia dirudi, nahiz eta autore batzuk ezinezko eta zentzugabetzat jo, Judiziamendu Kriminalaren Legeko 526. artikulua esigitzen duena, alegia “epaile instruktoreak astean

behin bisitatuko ditu, udalerriko kartzelak aurretiaz abisatu eta eguna finkatu gabe, Ministerio Fiskaleko pertsona baten laguntzarekin, eta hori dagokion Entzutegiko Fiskalak horretarako delegatutako udalerriko Fiskala izan daiteke; eta Epaitegi hori dagoen lekuetan, bere edo Kriminaleko Salaren Presidenteak eta Magistratu batek bisitatuko dute, Ministerio Fiskaleko pertsona batekin eta Instrukzio Juezarekin batera. Bisitan, preso edo atxilotuen egoera osoaren berri emango zaie, eta gehiegikeriarik antzeman-go balute, beraien eskumenaren barruan leudekeen neurriak hartuko dituzte”.

Tamalez, gaur egun, agintari judizial gutxik betetzen dute arau hau sarritasun eta fideltasunarekin. Halere behin eta berriz esan behar da, agintari judizialak lan garrantzitsua egin dezakela atxilotuen bermeak eta eskubi-deak bete daitezen kontrol lanak egiten. Aginte judizialaren bisita aldez aurretik ez jakinarazteko arauak, zaintza neurri horren eraginkortasuna bermatuko du noski.

### 3.8. BITARTEKO EKONOMIKOAK. EGUNEROKO JANARIA

Lehenago esan den bezala, UEOLA-ren 27.3 artikulua arabera, udal kalabozoen delegazioarekin “batera derrigor ahalmenak gauzatzeko bitarteko ekonomikoen zuzkidura edo gehikuntza beharko da”. Beraz, “presondegietaz arduratzen den Administrazioak, atxilotuentzat kalabozoetako mantentimendu zerbitzurako bitarteko ekonomikoak jarri beharko ditu” (bosgarren azken xedapena). “Egoitzaren mantentimendua” kontzeptu juridiko muga gabeaz ordea, ez du ezer esaten.

Honi dagokionez, kartzeletako araudia zehatzagoa da eta 378. artikuluan, (2.715/1986 Erret Dekretuak eta 1988ko apirilaren 12ko Aginduak aldatua) hau xedatzen du: “Presondegien ardura duen Administrazioak, kartzelarik ez duten barruti judizialen buru diren herrien esku diru kantitate bat jarriko du atxilotu eta egun bakoitzaren arabera elikadura, egoitza eta atxilotuen, prebentziozko presoen eta epailearen eskuetan jarritakoen kalabozo zerbitzuaren gastuetarako”.

Bueno Arús-ek komentatzen duen inkesta baten arabera, 1985ean atxilotuaren batz besteko eguneko kostua 7.271 pezetan kalkulatzen zen.

Atxiloketa zentruen mantentimendu eta eraikuntza berrien gastuak finkatzeak garrantzi handia du, baina hemen, elikadura gastuetaz hitzgingo da nagusiki, eta hori, ez bakarrik atxilotuengan berehalako eta pisu handiko eragina duelako, baita bizkorren konpontzeko modukoa delako ere.

Gaisotasun arrazoiengatik gastu bereziak ere ahortzi ezinak dira, absintentzia sindromeak eragindako gaisoek behar duten arretak aipamen bezeria behar duelarik.

1978ko apirilaren 12ko Aginte ministerialak, presondegietako araudi-ko 378. artikulua egiten duen aipamenean, 1.325 pezetako kantitatea finkatzen du atxilotu eta egunerako.

“Elikadura, egonaldi eta zerbitzuaren mantentimenduen” gastuak betetzeko bideratutako 1.325 pezeta horietatik, Presondegietarako Zuzendaritza Nagusiak bere egoitzetan daudenen egunerako otorduetarako bidera-

tzen duen diru kantitatearen berdina edo handiagoa jarri beharko lukela pentsatzea normala litzateke. Kantitate txikiagoa jartzeak, udal kalabozoe-tan sartzen dirertak presondegietakoak eta baita libertatea kenduta dauden gaizkile kondenatuak baino egoera txarragoan daudela esan nahiko luke.

Espainiako presondegietako otorduen balioa, 1981 gerostik, hau zen:

### 1981 eta 1982 urteak

Otorduak egunean eta plazaren arabera .....	Talde bakarra
Barneratu sanoak .....	138 pezeta
Barneratu gazteak .....	184 pezeta
Erizaintzako otorduak .....	185 pezeta
Erizaintzako otordu bikoitzak (gaiso gabetuak) .....	212 pezeta

Urteak	Otorduak egun eta plazen arabera	(1) Talea I (pta)	(2) Talde II (pta)	(3) Talde III (pta)
1983	Barneratu sanoak	195	173	168
	Barneratu gazteak	260	230	223
	Erizaintzako otordua	262	231	224
	Eri. otordu bikoitza: gaisoak	300	265	257
1984	Barneratu sanoak	215	190	185
	Barneratu gazteak	286	253	245
	Erizaintzako otordua	288	254	246
	Eri. otordu bikoitza: gaisoak	330	291	283
1985	Barneratu sanoak	239	211	205
	Barneratu gazteak	320	282	274
	Erizaintzako otordua	320	282	274
	Eri. otordu bikoitza: gaisoak	367	324	345

1986	Barneratu sanoak	263	232	227
	Barneratu gazteak	352	310	301
	Erizaintzako otordua	352	310	301
	Eri. otordu bikoitza: gaisoak	404	350	347
1987	Barneratu sanoak	308	271	266
	Barneratu gazteak	412	363	352
	Erizaintzako otordua	412	363	352
	Eri. otordu bikoitza: gaisoak	473	417	406

(1) 125 barneratu baino gutxiago dituzten zentruak

(2) 125 eta 500 barneratu arte dituzten zentruak

(3) 500 barneratutik gora dituzten zentruak

Geroztik, elikadurarako dirutza gehitu egin da. 1991ko urtarrilean dieta normala 442 pezetakoa zen, 18tik 21 urte arteko gazteena 590 pezetakoa, eta erizaintzan daudenena 834 pezeta.

Hain zuzen, eta adibide gisa, esan daiteke Madrilgo kalabozoetan (Ikus El País, 1990eko abenduak 7) eta 1990eko abendurarte, 200 pezeta bakarrik jartzen zirela atxilotu bakoitzaren eguneko janarirako. 200 pezeta horiekin atxilotuei bokadiloren bat besterik ezin zitzaien eman, eta horretaz aldameneko taberna bat arduratzen zen, eta bokadiloa ogi zati bat izaten zen mortadela edo saltxitxoi piska batekin. 1990eko abendua geroztik, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak 708 pezeta izendatu ditu beraien komisaldetietan atxilotutako pertsona eta egun bakoitzerako. 708 pezeta horiekin gosaria (20 zentilitro esne eta bost gaileta), eta lekazi, zereal edo barazkiz eta haragi edo arrainez osaturiko bazkari eta afarria eman diezaiokete atxilotuari. Dieta 2.100 kaloria, 60 gramu proteina eta beharrezko bitaminetan pentsatuz osatu da, geldik dagoen pertsona batek dituen beharrak kalkulatu. Zorro hermetikoetan itxitako behin bakarrik erabiltzeko materialarekin serbituko da: bandeja, bi plater ultrakongelaturekin, ogi zati bat eta erabili ondoren botatzen diren eta arriskurik ez duten kubiertoekin. Poliziak, janiariak berotzeko, mikroondas aparailu bat izango du.

Gaur egun, Euskadiko kalabozoetan, bokadiloak besterik ez zaie eman ohi ia betik. Atxilotuarentzat jarri behar den dirutzaz araurik ez dago, ez idatzirik eta ez ahozkorik.

Horregatik, arau zehatzak jartzea komeni da, eta ez da ahaztu behar, atxilotuaren elikadura premiei duintasunez erantzuteko, presodengiek baino bitarteko eta pertsonal gutxiago daukatela kalabozoek. Bitartekoen urritasun hau kontuan izanik, agian, presondegien erakundeak gastu horientzat jarritako diru kantitatea baina handiagoa izendatzea komeniko litzateke.



IV ATALA

**AZTERKETA KONPARATUA**

#### 4.1. SARRERA

Garbi dago, egiten ari garen estudio honetarako beharrezkoa dela beste herrialde batzuetako kalabozoetako atxiloketa legedien eta baldintzen azterketa. Bere balioa handia da, bai Euskal Lurralde Autonomoko kalabozoen egoera kontrastatzeko eta baita atxilotuei tratamendu hobea emateko proposamen pisuzkoak egitearren eskaintzen duten informazioagatik ere.

Ohartarazi beharrean gaude, halere, txostena udal kalabozoetan zentratzen bada ere, herrialde desberdinetan atxiloketa zentruen eraketa diferenteak ikusirik, naziarteko ikerketa konparatua egiterako orduan nahiago izan da erizpide orokor bati lotzea, udal izaerazko atxiloketa zentruetako detentzio baldintzak eta arautegiaren azterketara mugatu gabe. Guzti horren helburua izan da, gure inguruko herrialdeetako atxiloketa zentruetako bete behar dituzten legezko baldintzen mapa bat osatzea —nahiz praktikan beti errespetatzen ez badira ere—, udal agintaritzaren menpekoak diren ala ez alde batera utziz.

#### 4.2. OHARPEN METODOLOGIKOAK

Maila honetako estudio bat denbora laburrean egin beharrak arazo asko sortzen ditu; ikertzaile batek burutzeko, hilabete asko eta gainera, aukeraturako lekuak bisitatu beharko lirateke.

Arazo horiei irtenbidea emateko, Kriminologiaren Euskal Institutuak, daturik garrantzitsuenak biltzera bideraturako galdeketa-inkesta bat osatzea erabaki zuen. Galdeketa hau, aspalditik KREI-rekin kolaboratzen duten adituei bidali zitzaion, edo horien kolaboratzailearen bati eskatu zitzaion. Azkenik, hauek izan dira erantzun dutenak:

— *Alemania*: **Hab. Wolfgang Schone** doktorea, Freiburgeko Albert-Ludwigs-Universitat-eko Katedra arduraduna.

— *Argentina*: **E. Raul Zaffaroni Irak.** doktorea, Buenos Airesko Unibertsitateko katedraduna.

— *Austria*: **Ana Messuti de Zabala.**

— *Belgika*: **Tony Peters Irak.** doktorea, Katholieke Universiteit Leuven-eko katedraduna.

– *Frantzia*: **Jocelyne Castaignede** doktorea, Gaztediaren Gaizkiletza eta Moldagabeziaren Ikerketa eta Estudioetarako Zentruko ikertzailea, Baiona/Angelu/Miarritzeko Diziplinanzietako Fakultatea, Pabe eta Adour Herrialdeetako Unibertsitatea.

– *Holanda*: **Monique Van Fessem**, Katholieke Universiteit Brabanteko ikertzailea.

– *Inglatera*: **Robert Hazell**, abokatua.

– *Massachusetts Estatia (USA)*: **Edgardo Rotman Irak.** doktorea, Massachusetts Correctional Legal Services-eko abokatua.

– *Nazio Batuak*: **Ana Messuti de Zabala**.

– *Suitza*: **Jose Hurtado Irak.** doktorea. Fribourgeko Unibertsitateko katedraduna.

1990eko abenduaren 17an lan bilera bat egin zen Donostian, eta bertan parte hartu zuten informatzaile gehienek, eritziak trukatzeko eta galdeketako erantzun batzuk osatzeko, eta Donostiako Udalzaintzaren ikuskaritzaiko kalabozoek bisitatu ziren (bai zaharrak eta bai laster funtzionatzen hasiko direnak).

### 4.3. GALDEKETA

Jarraian, aurrerago biltzen diren datuak jasotzeko oinarri bezala erabili den galdeketaren testua traskribitzen da:

1. **Ba al dago zure herrialdean zehapen zentruak ez diren atxilotutako pertsonen erretentziorako beste lekurik?**

2. **Aurreko erantzuna baietza bada, zein dira?:**

- Zeldakalabozoek polizia nazionalaren komisaldegietan
- Zeldakalabozoek eskualde poliziaren komisaldegietan
- Zeldakalabozoek herri gardien ikuskaritzetan
- Zeldakalabozoek epaitegietan
- Zeldakalabozoek udaletxean bertan
- Zeldakalabozoek fiskalietan
- Beste batzuk (adierazi).

3. **Leku horietan sartzeko arrazoiak:**

- Ekintza deliktibo larriak egitea (edo egin dituenaren susmoa)
- Ekintza deliktibo ez hain larriak egitea (edo egin dituenaren susmoa)

- Ekintza deliktibo arinak egitea (edo egin dituenaren susmoa)
- Zigorren bat betetzea (zehaztu)
- Araudi edo ordenantza administratiboetan hutsegite ez penalak egitea
- Zigor administratiboren bat ezarria egotea (zehaztu)
- Pertsona arriskutsuak (zehaztu: zoroak, ezinduak)
- Lekuko baten inkomunikazioa
- Beste batzuk (zehaztu)

**4. Zein dira egiterik ohizkoenak?**

- Lapurretak
- Drogak
- Motordun ibilgailuak
- Beste batzuk (zehaztu)

**5. Legez, zenbat denbora egon daitezke barnean? (Behar bada, delitu, pertsona, prozedura, eta beste kategoria batzuren arabera bereiztu).**

- Praktikan, zein da batz besteko denbora epea?

**6. Ba al dago atxiloketa leku hauek arautzen dituen araudi berezirik? (Baiezko kasuan, mesedez bere fotokopia bat eskuratzea eskatzen da).**

- Nazionala
- Erregionala
- Herri mailakoa

**7. Zeldak non daude?**

- Ohizko egoitza polizia/judizial/munizipaletan
- Beste leku berezi batzuetan (esplikatu)
- Behe solairuan, sotoan, goi solairuan?
- Zergatik?
- Kale edo enparantzaren batetik sarbiderik ba al dute?
- Sarbide sistemarekin, sarrera irteeren publizitateari aurre egin nahi al zaio?

**8. Zein dira zelden ohizko neurriak?**

- Normalki ba al dute aterik, ala burdin sareak dituzte? (Beren neurriak)
- Ba al dute lehiorik?
- Horien neurriak

**9. Zein aireztatze sistema?**

**10. Zein argi sistema?**

- Naturala
- Artifiziala
- Baterez

**11. Zein seguritate sistema ezartzen dira zelden kanpokaldean?**

- Detektore elektronikoak?
- Zaintzako pertsonala bakarrik?
- Hoietariko zenbat daude zerbitzu iraunkorrean?
- Beste sistema batzuk (zehaztu)

**12. Ohizko tresneria: Ohea? Koltxoia jergoiarekin?**

- Komuna zeldan bertan? Ur korrienterik?
- Lababoa zelda barruan? Ur korrienterik?
- Ohizko osasun istalazioak? Dutzak?
- Hormak, zolua, ohea estaltzeko zerbait berezirik ba al daukate?

**13. Norberaren garbitasunerako ezer ematen al zaie? Zer?**

**14. Atxilotuari emandako errota:**

- Mantak?
- Mantak aldatzen al dira?
- Zenbat denboraz bein aldatzen dira?
- Egunero?
- Margolara bidaltzen, hala botatzen direnetakoak dira?
- Beste erroparik? (zehaztu)

**15. Elikadura: egunean, zenbat otordu?**

- Bokadiloak bakarrik?
- Janari beroa?
- Zein edari?
- Tabakorik?
- Beste batzuk (zehaztu)

**16. Sendagileak bisitatu behar al ditu?**

- Zenbat denboraz behin?
- Zein sendagilek?
- Beste pertsona batzuren bisitarik izaten al dute?: familiartekoak, profesionalak, asistente sozialak? (zehaztu).
- Zenbat denboraz behin?

**17. Judizial edo Ministerio fiskaleko agintaritzaren batek kontrolatzen al ditu lokal horiek? Nola?**

18. Atxilotuaren arakatze sistema (dagokion liburu edo fitxaren fotokopia).
19. Kasu berezietan hartu beharreko neurriak:
  - Bereziki, toxikomanoen kasuan
  - Gazteekin
  - Beste kasu batzutan
20. Sindromearen unean hartzeko neurri zehatzak
  - Buruan kaskorik jartzen al zaie?
  - Eskuburnirik jartzen al zaie?
  - Beste batzuk (zehaztu)
21. Atxilotua arakatzeko, katxeatzeko sistema:
  - Katxeatzeko baimenduriko pertsonak
  - Baimentzen eta galerazten diren gauzak
  - Katxeo intimora ukatzerik ba al dago?
22. Atxilotuei tratu txarrik ez emateko araurik edo hartzen den neurri berezirik ba al dago?
  - Zeintzuk? (zehaztu)
23. Zein eragin sortzen du atxilotuengan beren atxiloketa egoerak?
  - Lasaitzen, haserretzen ditu, ala oldarkor bihurtzen ditu? (zehaztu)
24. Nork abisatzen die familiakoei? Familiako nori? Ala lagunei abisatzen zaie?
  - Noiz?
25. Abokatuari deitzeke eskubiderik ba al dute?
26. Ba al dago ofiziozko txandarik (abokaturik)?
27. Barneratze kolektiboetarako zelda berezirik ba al dago?
  - Adin txikikoentzat zelda berezirik ba al dago?
28. Erregimen berezirik ba al daukate?
29. Ahal bada, zeldaren argazki dokumenturen bat nahi litzateke.

30. Egin nahiko liratekeen hobekuntzei buruzko profesionalen baten (polizia, epaile, abokatu) eritzirik eman al dezakezu?

- Arautegian
- Praktikan

31. Zein hobekuntza nahi dituzu zuk?

- Arautegian
- Praktikan

32. Gehitu egoki derizkiozuna.

#### 4.4. HERRIALDE EZBERDINETAN JASOTAKO ERANTZUNAK

Ondoren, galderaz galdera, herrialde ezberdinetatik jaso diren erantzunak biltzen dira.

##### 4.4.1. Atxiloketa lekuak

Zehapen zentruak ez diren atxiloketa (edo erretentzio) lekuak, normala den bezala, galdeketa egin den herrialde guztietan daude, baina polizia maila guztiek ez dituzte kalabozo edo zeldak herrialde guztietan.

**Alemanian** esate baterako, non polizia zereginak Lander deitzen eskuetan dauden, 1982 urterarte herrietan bazeuden babes edo atxiloketa zeldak. Hau, gaur egun, ezinezkoa da. Alemaniako poliziak ez du horrelakorik, eta atxilotuak, eskualdeko poliziaren esku jarri behar dituzte (antzeko zer-bait gertatzen da Ingalaterran). Polizia federalaren eta mugetakoaren zeldak ere badaude, baina hauen garrantzia bigarren mailakoa da.

**Austrian, Argentinan, Frantzian** eta **Holandan** ere ez dago udaltzainen edo udaletxeetako atxiloketa gordailu edo kalabozorik, polizia nazionala da hasieran atxilotuetaz arduratzen dena. Frantzian, "garde a vue" deitzen zaie, atxilotua etengabe ikusteko aukera ematen duen kristal garden batzuk dituztelako; herrialde askotan epaitegien egoitzetan ere badaude zeldak, bista judiziala egin bitartean zain egoteko balio dutelarik.

Azpitarragarria da gainera, **Holandako** komisaldegietan, lurralde nazionalen beharrezko dokumentu legalik gabe dauden atzerriko pertsonentzat (kanporatze espedientearen tramitazioak irauten duen denborarako, gehienez 30 egun) egonleku edo egoitzak daude.

Bestalde, **Austrian**, presondegietako estrukturan sartzen ez diren zentruak daude, Direktorioak dira, eta lau aste arteko libertate kenketako zigor administratiboak betetzeko erabiltzen dira.

**Belgikan**, udal poliziak, berak atxilotzen dituen pertsonak gordetzeko zelda propioak ditu; ez dituen kasuan, polizia nazionalaren kalabozoetan (gendarmeria) sartu behar ditu.

**Massachussets** Estatuan (USA) eta **Suitzan** zelda mota hauen arduradunak udal polizia eta/edo kantonala dira, beraien polizia antolamendu bereziagatik.

#### 4.4.2. **Atxiloketaren arrazoiak**

Atxilotuak polizia zelda hauetan sartzeko egon daitezkeen arrazoiak, herrialde bakoitzean polizi atxiloketa bat baimentzen dutenen berdinak dira. Halere, leku batzutan, lokal mota hauek zigorrak betetzeko edo pertsona arriskutsuak behin-behinekoz edukitzeko ere erabiltzen dira.

**Alemanian**, —hemen, atxilotzeko, ez da nahikoa aginduak hutsegitea eta gainera egite deliktibo ez oso larrien kasuan muga batzuk jartzen dira (6 hilabete baino gutxiagoko libertate kenketarekin edo 180 egun-isunarekin zigortzen dira)-identifikazio arrazoiengatik ere atxilotu dezake poliziak (susmagarria ez izan arren), eta gaiso psikiatrikoak alde batera utzita (epailearen aginduz, ikuskapen zentru batera trasladatuak izan daitezzen), poliziak prebentziozko arrazoiengatik atxilotu dezake, adibidez: atxilotuaren bizitzarako arrisku bati aurre egiteko, berehala seguritate edo ordena publikoan gerta daitekeen istilu bati aurre egiteko (beste era batera ezin bada), zaintzale legalak utzi dituzten adin txikidunak..., eta atzerritarrentzat, gazteentzat, etabarrentzat legedi bereziek iragartzen dituzten beste kasuetan.

**Argentinan**, normalki ez litzateke egite deliktibo arinengatik atxilotu behar, baina poliziaren aginduak hausteagatik eta “arazo aurrekinak frogatzeko” atxilotu daiteke, eta kasu hauek izaten dira sarrienak.

**Austrian**, normalki, arau hauste administratiboen egite deliktiboengatik atxilotu daiteke. Gainera, libertatea kentzen duten zigor administratiboak ere badaude (igarotze hutsegiteetan, 48 ordutik 3 edo lau asterarte) eta horiek Federal Police Directorates-etan betetzen dira. Lekukoak, probisionalki inkomunikaturik gera daitezke epaitegietako edo auzitegietako egoitzetan honetarako egokitzen diren zeldetan.

**Belgikan**, atxiloketa edo atzipen administratiboa, atzipen poliziala eta epailearen aginduz egiten den atzipena bereizten dira:

— Lege berezietan iragarritako ustezko egoerak alde batera utzita, atzipen administratiboa kasu hauetan ezarri daiteke: ordenari eusteko nortasun kontrolerako, trafiko arrazoiengatik, kalean mozkorra egoteagatik, zoro arriskutsu, arlote eta eskale kasuetan. Zehapen administratiboen kasuan, iraupena, normalean, 12 ordukoa da —batzutan 24 ordutan finkatzen bada ere (ordenari eusteko, nortasun kontrolerako, trafiko, eskale eta arlo-teentzako).

— Poliziaren zehapen edo atxiloketa (24 ordu artekoa) polizia judizialak burutzen du susmoak dituelako edo atxilotuak agiriko delitua egin duelako.

— Epaileak agintzen duenari dagokionez, hau arrazoi askorengatik gerta daiteke, eta hauen artean adierazgarria gazteena da, epaileak, gazteen



babeserako legea ezarri, 15 egunez eduki bait dezake atxiloturik. Praktika hau halere, orain gutxi alde batera utzi da.

**Frantzia**, atxiloteta polizial eta judizialaren ohizko suposizioetatik at, zeldak eta kalabozaok ez dira zigor administratiboak betetzeko erabiltzen, eta egite deliktibo arinak burutu izanaren susmoetatik gutxitan atxilotzen den arren, hutsegiteetatik (bosgarren mailako hausteak, adibidez, borondatezko bortxakeria) atxilotu daiteke. Kanean mozkortuta harrapatzen dutena, mozkorra pasa arte zeldan eduki dezakete. Baita, denbora baterako barneratu dezakete inkomunikatuta edukitzea komeni den lekuko bat.

**Holanda**, —hemen interrogatorio soil baterako 6 ordutarate eduki zinduzkete atxiloturik, baina hutsegite administratiboetatik ezin dute atxilotu eta prebentziozko atxilotetak burutzeko kasu posibleak zehatz mehatz arautzen dira—, mota honetako egoitzetan isunak ez ordaintzeetatik ardu-ara subsidiarioa bete daiteke (egun bat eta lau artean). Bestalde, poliziak batzutan ordena publikoa zaintzeko egiten ditu atxilotetak (adibidez: mozkor ezezagun eta identifikatu gabeak), eta probisionalki, berehala ospital psikiatriko batera eramateko premiarik ikusten ez zaien eta ustez egite deliktiboak egin dituzten zoro edo ezinduak gorde daitezke leku horietan.

**Inglatera**n, edozein egite deliktibo egiteetatik edo egin dela susmatzeetatik atxilotu daiteke. Bestalde, mozkorra sarritan 1.830 pezetako isuna ordaintzera edo kartzelan egun bat pasatzera kondenatzen dute, eta egun hori polizia komisaldegiko kalabozaon bete daiteke. Barneraketa ondorengo kasuetatik ere gerta daiteke: katastro zergak ez ordaintzeetatik, familiei epaitegiak agindutako janaria eman beharra ez betetzeetatik eta ustezko terrorismo kasuetatik.

**Massachusetts** Estatuan (USA), libertate kenketarekin zigortu daitezkeen egite deliktibo larriak eta ez hain larriak egiteetatik atxilotu daiteke, eta **Suitza**n, delitu larria egiteetatik sartzen dute zeldan (atxilotetak ezin du 24 ordu baino gehiago iraun), eta baita legeak hausteetatik ere, pertsonak ekintza okerrak burutzen jarrai ez dezan. Pertsonaren nortasuna identifikatzeko ere atxilotu daiteke, bere dokumentuak egiazkoak ez direla edo behar bezala identifikatzeko ez dutela balio uste denean.

#### 4.4.3. Arrazoirik sarrienak

Atxilotetarako arrazoirik sarrienak, aldatu egiten dira herrialdeen arabera.

**Alemania**n, lege prozesalarekin adostasunean burutzen diren atxiloteten kasuan, jabeagoaren aurkako delituak egitea da sarrien gertatzen den ustezko kasua (gauza bera esan daiteke **Austria**, **Frantzia** eta **Massachusetts** Estatuaz (USA)). Prebentzio erako polizia atxilotetari dagokionez, pertsona mozkorrek ematen dute indizerik handiena.

**Argentina**n, gauza bitxi bat gertatzen da, atxiloteta kasurik sarrienak, lehen aipatutako salbuespenezko usteak dira: poliziaren aginduak haustea eta aurrekinak aztetztea.

**Belgika**n, jabeagoaren aurkako delituak bortxakeria erabiliz, garraio is-tripua alkoholarekin eraginpean, eta manifestazio ilegalean parte hartzea-

gatik, kalean mozkortuta egoteagatik eta ordena nahasteagatik egiten diren atxiloketa administratiboak dira kasurik sarrienak. Gainera, hiri batzutan drogegatik atxiloketak egiten dira, eta pertsona asko atxilotzen dituzte.

Antzeko zerbait gertatzen da **Holandan**. Ebasketa eta lapurretarengatik eta drogekin zerikusia izateagatik, norbait harrapatu ondoren honi laguntza ez emateagatik, bortxakeria erabiltzeagatik edo armak eduki, erabili edo saldu-erosteagatik egiten diren atxiloketak nagusitzen dira.

**Inglaterran**, ebaspenengatik baino atxiloketa gehiago egiten dira drogegatik, eta aldi berean, ebaspenengatik, motordun ibilgailuekin egindako okerregatik baino bi bider atxiloketa gehiago egiten dira.

**Suitzan**, bestalde, lehen mailan ibilgailuen zirkulazioari buruzko legea hausteagatik egiteak daude, eta hauen artean, mozkortuta gidatzeagatik batez ere. Alkohol maila baieztatu ondoren, poliziak autoaren giltzak hartzen ditu eta atxilotutako gidaria odol analisia egin diezaioten eramaten dute. Atxiloketa, halere, beste zirkunstantzia batzurekin justifikatu behar da (portaera burugabea, ihes arriskua...). Bigarren mailan, aginte publikoaren kontrako hausteak daude, eta kasu hauetan atxiloketa justifikatuta dago baldin eta arduradunek, okerrak burutzen jarrai ez dezaten atxilotzea beharrezkoa denean. Hirugarren mailan, droga kontsumuarekin erlazionatutako kasuak eta trafikoko susmoak daudenean. Azkenik, besteen ondarearen kontrako kalteak eta pertsonen aurkako bortxakeria ekintzak daude.

#### 4.4.4. Gehienezko iraupen legala

Atxiloketaren gehienezko iraupen legala herrialdeen arabera aldatzen da.

**Alemanian**, normalean, atxilotua izan eta beranduenik hurrengo egunean jarri behar da epailearen esku. Nortasuna frogatzeko atxilotzen den kasuan, gehienez 12 ordutan eduki daiteke. Nolanahi, atxiloketa ez da adierazitako mugak, gehienezko mugak baino haruntzago luzatu behar. Poliziak dionez, praktikan epe legal osoa ez da erabiltzen, maila batean beren zelda eta kalabozoetan nahiko leku izaten ez dutelako.

**Argentinan**, poliziaren atxiloketa epea gehienez bost egunekoa da delitua dagoen kasuan, eta poliziak askotan denbora guztia erabiltzen du. Buenos Aires probintzian adibidez, epai bidean daudenak epe jakinik gabe egoten dira komisaldegietan (legalki debekatuta dagoen arren), prebentziozkoentzat nahiko leku ez dagoelako.

**Austrian**, delitu mota guztientzat atxiloketa epea 48 ordukoa da. Hutsigite administratiboetan, polizia egoitzetan betetzen diren zigorrak, 3 edo 4 astera iritsi daitezke.

**Belgikan**, ohizko atzipen judizialaren gehienezko denbora 24 ordukoa da, eta administratiboarena 12koa, salbuespenak aparte. Praktikan, atzipen administratiboarengatik, alkoholaren eraginpean egoteagatik, 6 edo 7 ordu irauten du atxiloketak. Manifestazioetan atxilotutako pertsonak, manifestazioa amaitu eta gutxira utziko dituzte libre. Poliziak manifestari asko atxilotu dituen kasuan (adibidez, ikasleak...), beren kuarteletako leku irekietan gordezen dituzte. Atzipen judizialak 24 ordu irauten ditu. Poliziak susmagarri

bat aurkitzen duenean, fiskalari jakinarazi behar dio, honek hartu dezan atxiloketari buruzko erabakia. Une hortatik aurrera, atxiloketa ikerketak egiteko erabiltzen da, eta 24 orduen barruan erabaki behar du fiskalak libre uzten duen ala epailearen esku jartzen duen instrukzioko epailea ikerketa judiziala egiten hasi dadin. Edonola, aipatutako 24 orduetan, atxilotua leku ezberdinetatik igarotzen da: itaunketa aretoetatik, polizia zeldatik, epaitegiko zeldatik...

Polizia atxiloketa **Frantzian**, normalki 24 ordurarte luzatu daiteke (gehi beste 24 ordu epaileari jakinarazita). Drogekin erlazonaturiko delituetan, atxilotua, epaileari jakinarazi ondoren, beste 48 orduz atxeki daiteke, eta beste 24 orduetako luzapena eska dezaioke poliziak epaileari. Terrorismo kasuetan, abiapuntuzko 24 orduei (gehi beste 24 ordu epaileari atxiloketaren berri eman ondoren), beste 48 orduko luzapenak jarraitu dakioke, oraingoan epailearen baimenarekin. Praktikan, eta ustezko kasu bereziak alde batera utzirik, batz best 20 ordu irauten ditu atxiloketak.

**Holandan**, ondorengo parametroak ezartzen dira: itaunketa helburua duten behin-behineko atxiloketak sei ordu iraun ditzake, baina gaueko 00.00 orduetatik goizeko 9.00 ordurarteko tarteaz ez da kontatzen, eta ondorioz, 15 ordu iraun ditzake. Ikerketarako atxiloketak 2 x 24 ordu iraun ditzake, beste 2 x 24 orduetara hedatu daitezkeelarik, nahiz eta praktikan 3 x 24 ordu iraun. Prebentziozko atxiloketak, atxiloketa egoitzetan burutu beharko litzatekeenak, baina batzutan haietan lekurik ez dagoelako komisaldegietan burutzen denak, 2 x 6 egun iraun ditzake gehienez. Isunak ez ordaintzeagatik ardura subsidiarioa bete behar den kasuko zigorra ere atxiloketa egoitzetan bete beharko litzateke, baina, arrazoi berdinengatik, praktikan komisaldegian betetzen da egun bat edo lau arte igaroz. Azkenik, atzerritarrek hilabete pasa dezakete atxilotuta.

**Inglaterrean**, gehienez 24 ordu iraun dezake atxiloketak, baina praktikan 4 edo zortzi bat ordu irauten ditu.

**Massachusetts** Estatuko (USA) poliziak adierazten du, atxiloketak batz best 12 ordu irauten dituela, baina ordutegi honetan ez dira kontutan hartzen aste buruetan edo jai egunetan egiten diren atxiloketen orduak, lehen egun judizial gaitutik hasten bait dira kontatzen.

**Suitzan**, poliziak bere zeldetan burutzen dituen atxiloketek ordu batzuk bakarrik irauten dute. Atxiloketa mota hau, batez ere gauez egiten da. Hurrengo goizean, normaltatara itzuli ondoren (mozkorren kasuan, adibidez), atxilotua libre uzten da. Kasu larrietan, poliziak agintari eskudunari ematen dio berri, beharrezko neurri behartzailea baimendu dezan.

#### 4.4.5. Araudi bereziak

Erregimen ezberdinenpean eta arrazoi baita ezberdinengatik pertsonak sartzeko zeldak eta kalabozaok egotean, beraien erabilera, ezaugarriak, e.a. arautzen dituzten araudi berezirik badagoen jakitea komeni da, eta egonez gero, beraien garrantzia ezagutu behar da.

**Alemanian**, atxiloketa leku hauen arautzeurazten den araudi federal edo erregional berezirik ez dago. Halabaina, eskualde mailan badago arau-

keta motaren bat. Horrela, Freiburgen, poliziarentzat polizia erregionalaren zuzendaritzak sortutako atxiloketa ordenantza bat badute eta, xedapen administratibo izaera du; Land Baden-Wurtenbergeko beste hiru lurraldeetan, bata Freigurg da, antzeko arauak daude. Gainera, maila honetan, atxiloketa, desintoxicazio, eta abarretarako egoitzen eraikuntza eta ekipamendu ezauzgarri buruzko xedapenak ere aurkitu daitezke.

Egin den ikerketak ez digu azaltzen **Argentinan** antzeko arauketarik ba ote dagoen. E.R. Zaffaroni irakasleak galdera honi ematen dion erantzuna oso adierazgarria da: "egon, egon behar du, baina ez dut ezagutzen eta ez dut ezagutzerik lortu. Dirudienez Estatu sekretua da".

Dirudienez, **Frantzia**n ere ez dago kode prozesal penalean xedatutakoaz aparte (C114 eta C115... 65. art.) beste arauketarik.

**Austrian**, zuzenbide administratiboan libertatea kentzen duen zigorra ezarri daitekeenez (lau asterarte iraun dezake zigor horrek), zigor hau betetzeko polizia egoitza bereziak daude. Egoitza hauek, 1988ko irailaren 28an indarrean sartu zen Barne Arazoetarako Ministerio federalaren araudiak agintzen duenera biltzen dira, eta edozein atxiloketa administratibori atxiki dakioke. Arau orokorrak hauek dira: gizon, emakume eta adin txikidunak aldenduta daude; drogazale eta zoroentzat zentru bereziak daude; atxilotuak berak nahi duen sendagilea aukeratu dezake; lokal hauetan ezin dira sartu pertsona gaisoak, zaurituak, hilabete askotako haurdunaldian daudenak edo haurra izan eta ondorengo zortzi asteetan daudenak, eta ez eta gaiso mentalak krisi garaian daudenean; gauza pertsonalen erregistroa eta gordailua; erlijio zerbitzuak; atxilotuaren gertuko familiartekoei edo berarekin bizi diren pertsonen informazioa. Beraz, federazio mailako araudia da eta Austriako lurralde osoan ezarri daiteke, ez zigor administratiboak betetzen diren lekuetan bakarrik, baizik baita, ahal den neurrian, polizien zelda eta kalabojoetan ere.

**Belgikan**, ez dago atxiloketa leku hauk izaera orokorrekarekin arautzen dituen arautegi berezirik. Halere, polizia gorputz bakoitzak baditu agindu batzuk, eta horiek arau mailako gauza batzuk zehazten dituzte. Polizia nazionalak eskuburnien erabileraz, elikaduraz eta katxeoetaz ditu aginduak. Herri poliziak, komisaldegi bakoitzean, herri izaerako araudi edo aginduak ditu.

**Holandan**, nazional mailan diziiplina ezartzeko, Judiziamendu Kriminalaren Kodea, Judiziamendu kriminalaren Kodea sartzeko Legea, eta behin-behineko atxiloketari buruzko 1925eko abenduaren 4ko Erret Dekretua daude; herri mailako beste araudi batzuk ere badira, hala nola, atxiloketa lekuak eraikitzeke baldintzei eta atxilotuen erregimen eta tratamenduari buruzko arautegia.

**Inglateran**, 1984ko Poliziaren eta Nabaritasun Kriminalaren Legea eta lege hori gauzatzeko idatzitako kodeak dira atxiloketa lekuak eta atxiloketa egiteko baldintzak arautzeaz arduratzen direnak.

Antzeko zerbait gertatzen da **Massachusetts** Estatuan (USA), Lege Orokorrekin, 40. kapitulua, 34. atala eta ondorengoak.

Azkenik, **Suitzan**, poliziaren eskumenaren ezaugarriak, eta bereziki, atxiloketaren behin-behineko izaera eta iraupen motza kontuan izanik, hori nola gauzatu behar den ez dago legalki araututa. Halere, poliziari buruzko

lege guztietan jasotzen dira eskumenari, pertsonak atxilotzeko bideari, arma eta beste neurri behartzaileei, eta abarri buruzko baldintzak, eta sakonki errotoak praktikari jarraituz, atxiloketarekin lotutako eginbideetan, funtzio anitzak dituzten egoitzak erabiltzen dira. Zeldak, nahiz eta sotoetan egoten diren, egoitza pribatu bateko gelek dituzten baldintzen antzekoak izan behar dituztela pentsatzen da arau nagusi bezala. Hiriak txikiak direnez, zeldak ez daude etengabe zainduta, eta batzutan itxi ere ez dira egiten. Nolanahi, arautegi asko daude, 24 kantoietako bakoitzak bait du bere legedia egiteko ahalmena, eta honek berdintasuna lortzeko zailtasunak jartzen ditu. Bestalde, Konstituzioak ez ditu arautzen pertsonaren funtsezko eskubiak. Ondorioz, eta gai honi buruz, Epaitegi Konstituzionalak jurisprudentzia sendoa sortu du, Konstituzioaren 4. artikulua aitortzen duen hiritar guztien berdintasun hastapenean oinarrituz osatu duelarik.

#### 4.4.6. Zelden kokapena

Aztergai diren zelda eta kalabozaok nolakoak diren deskribatzera pasatuz, eta beren kokapenetik abiatuz, esan behar da lehenik, ohizko egoitzetan aurkitzen direla eta ez beste leku berezi batzuetan.

Nolanahi, **Alemaniatik** iritsitako erantzunak dio bi leku mota bereiztu behar direla: alde batetik, denbora epe laburrerako atxilotutako edo hauen babeserako lekuak, itaunketarako ere balio dutenak, eta bestetik ebazpen edo desintosikaziorako (mozkortuentzako) zeldak. Ebazte zeldak, pertsonak denbora luzean, gaua barne, seguritatepean gordetzeko lekuak dira. Zaintza aretoak, polizia eta polizia kriminalaren eta beste polizien zerbitzu postuetan itaunketa lekuen ondoan dauden bitartean, ebazte eta desintosikazio zeldak, behe solairuan eta sotoetan egon ohi dira. Hauetarako sarbidea, barne pasilo batetik dago, eta beraietarako sarbide sistemaz ez dago beste arau berezirik. Tübingen-eko polizia erregionalaren zuzendaritzak, 20 pertsona bakarkako zelda txikietan atxilotuta edukitzeko aukera ematen dien autobus zelular bat dauka, manifestazio handi eta herrietako jaietan erabiltzeko.

**Argentinan**, zeldak poliziaren edo epaitegien egoitza normaletan daude. Normalki, behe solairuan kokatzen dira eta ez dute sarbiderik kale edo enparantzetatik, baina sarrera eta irteeren publizitateari aurre egiteko ez da neurri berezirik hartzen.

**Austrian** berriz, zeldak, beti poliziarenak, sarri lurrazpian daude. Kale edo enparantzetara sarbiderik gabeak baita, eta mugimenduen publizitateari aurre egiteko sarbide berezirik ez dute.

**Frantziatik** emandako erantzunaren arabera, poliziaren zeldetarako sarbide motarekin sarrera-irteeren publizitateari aurre egin nahi zaio, eta horregatik behe solairuan edo lurrazpian daude kokaturik, sekula ez goi solairuetan, seguritate arrazoiengatik.

Seguritate neurri hauek berak aipatzen dira **Holandan**, eta sarrera-irteerei publizitaterik ez ematearren, zeldak, goi solairuetan daude. Gainera, Holandako txostenean esaten da Shiphold-eko aireportuan, poliziaren ohizko egoitzetaz aparte, atxiloketarako beste leku berezi batzuk daudela.

**Belgikako** kasuan, Lovainako zeldak bisitatu dituen T. Peters irakasleak esaten du, epaitegian lurrazpiko hiru zelda daudela, bi behe solairuan eta bat goiko solairuan, instrukzio epailearen bulego ondoan. Udal polizia-aren komisaldegian, zeldak, behe solairuan daude, eta gauza bera gertatzen da polizia nazionalaren komisaldegian, bere lau zeldak eraikuntzatik aldentutako beste alde batean dituelarik. Hauetako bakar bat ere ez dago zuzenean kanpoarekin komunikatuta, eta daukaten kokapenagatik, epaitegiaren eta polizia nazionalaren kasuan publizitateari ihes egiteko aukera guztiak daude, baina ez ordea udal poliziarenean: atxilotua ate nagusitik sartu eta irten behar da.

**Inglaterratik** eman den erantzunak dio, zeldak han behe solairuan edo lurrazpian ezartzen direla, baina beti publikoarentzat sarbide zaila duten lekuetan, atxilotuen sarbidearen publizitateari ere ihes eginaz.

**USAko** zelda eta kalabozoen egoerari dagokionez, zeldak dituzten Bostongo 10 komisaldegietan, horiek behe solairuan daude. Poliziak Brooklinen duen sailean, sotoan daude, Cambridgekoan aldiz, batzuk behe solairuan eta beste batzuk sotoan. Bostonen, atxilotuak atzeko atetik sartzen dituzte publikoarekin harremanik izan ez dezaten. Brooklinen, epaitegitik metro gutxitara dagoen atzeko ate batetik sartze dituzte atxilotuak. Cambridgean, zeldetara kanpotik zuzenean pasa daiteke, eta atxilotuak gertu dagoen epaitegira eramaten dituzte. Orohar, atxilotetaren publizitateari ihes egin nahi izaten zaio.

Azkenik, **Suitzan**, zeldak, poliziaren egoitzen aldamenan aurkitzen dira. Ez dira beti izaten helburu honekin eraikitako lekuak. Zeuden lekuak aprobetxatzen joan dira premiei erantzuteko, eta horregatik, leku askotan lurrazpian edo behe solairuetan daude, eta ez dute kalerako sarbide zuzenik.

#### 4.4.7. Neurriak

**Alemanian**, zelden neurri arrunta 8 m<sup>2</sup> da. Zaintza zeldek burdin-sarerik gabeko leihoak, baina barrutik hautsi ezin den kristalarekin itxiak dauzkate. Atzipen eta desintosiakazio zeldek burdin-saredun leihoak dauzkate. Argitzen den azalera metro karratu batekoa izan behar da, leiho barrena gutxienez 90 zentimetroko goieran egon behar delarik.

Alemanian xehetasunen parean **Argentinako** errealitatearen kontrastea daukagu. Han, zelda gehinek atea eta leiatila dute, batzuk leihoa ere bai, eta ezin da aipatu gutxiengo neurriek buruzko araurik.

**Austrian** bakarkako zeldek atea eta leihoa dute eta neurriak 2.50 m. x 2.50 m. dira.

**Belgikan**, zeldetara egindako bisita pertsonalak hau adierazten du:

— Epaitegiko zeldetan, instrukzio epailearen bulego ondoan dagoenak (2 eta 6 ordu arte igarotzeko), azalera 3 x 1.50 metroko neurriak ditu eta goieran 3 metro, eta oraindik atea baduen arren, kontrola errazteko burdin-saredun ate batez ordezkatzeko asmoa dago. Hausten ez den kristal eta burdin-saredun leiho handi bat ere badu. Lurrazpiko hiru zeldak, epailearen edo auzitegiaren aurrean agertu behar diren atxilotuentzat erabiltzen dire-

nak (4 eta 5 ordu arte igarotzeko) bataz beste 3 x 2 m. azalera eta goieran 2.50 m. dituzte; ateak altzairuzkoak dira eta bost sarraila dituzte, eta atxilotuak kontrolatzeko leiho txiki bat ere bai; zeldek, zeharkako aireztatze sistema duen leiho bat ere badute. Behe solairuko bi zeldak eraiki berriak dira eta epailearen esku dauden pertsonak gordetzeko erabiltzen dira (polizia judizialaren itaunketak irauten duen bitartean bi edo hiru ordu igarotzeko) eta beren neurriak hauek dira: 2 x 3 m. azalera eta 2.50 metro goieran; ateak altzairuzkoak dira hiru sarrailekin eta kontrolerako leiho txiki bat ere badute.

— Udal poliziaren komisaldegiko zelda zaharrek, azalera 2.75 x 3 metro eta goieran 3 m. dituzte. Bakarkako zeldak dira, baina bi pertsona ere kabituta daitezke. Altzairuzkoa da atea, hiru sarraila eta kontrolerako leiho txiki batekin. Zeldek 0.60 x 0.50ko leiho bat dute 3 metroko goieran.

— Polizia nazionalaren zelde dagokionez (lau behe solairuan), “pasabide kartzela” ere deitzen zaie, 2.50 x 1.50ko azalera eta 2.20ko goiera dute, ateak altzairuzkoak hiru sarrailekin, eta atxilotuak kontrolatzeko leihoak eta 1 x 0.20ko leihoa 2 m.ko goieran.

**Frantzia**n, bakarkako zelda edo kalabozoen neurriak 1.50 x 2 metrokoak dira, baina handiagoak ere badaude. Leihoak, dauden kasuetan, ezin dira ireki, eta hausten ez den kristala dute. Atxilotuak beti agerian egon behar du “garde á vue” deituan.

**Holandako** polizia zelda eta kalabozoen neurriak normalki 2.20 x 2.50 eta goieran 2.80koak dira. Atea altzairuzkoa da. Eraikuntza zaharretan bakarrik daukate leihoak; besteetan hausten ez den kristal garden bat daukate 0.50 metroko goierakoa eta zeldaren zabalerakoa.

**Inglaterrian** inkestari eman zaion erantzunak adierazten du zeldek atea badutela, eta normalean, baita leihoa ere, baina zelden neurriak ez dira adierazten.

**Massachusetts** Estatuan (USA), Bostonen, bataz beste 72 oin karratu dituzte. Brooklinen, zeldek 5 x 8 oin x 10 goieran neurtzen dute. Cambridge 10 x 12 oin eta 10 goieran. Leihorik ez dute.

**Suitzan**, zelden ohizko neurria sei metro karratu da (3 x 2 m.). Zeldak behe solairuan daudenean, leihoak txikiak dira eta normala ez den goieran ezarrita daude. Bisitatutakoek ez zeukaten leihorik.

#### 4.4.8. Aireztatzea

Aireztatze sistemari dagokionez, **Alemanian** atxiloketa ordenantzaren 30. artikulua jarraituz, atxiloketa lekuak behar bezala aireztatuta eduki behar dira. Atxiloketa lekuen programaren 8. puntuak dionez, ireki/itxi ezin diren leihodun zeldetan eta komunak zelda berean dituztenetan, airea berrietzeko mekanismoak jarri behar dira.

**Argentinako** txostenak ez du aireztatzeari buruzko datu zehatzik ematen, bakarrik dio zeldetako eta kalabozoetako aireztatze sistemak penagariak direla.

**Austrian** aire naturala izaten dute, **Belgikan** berriz, epaitegiko zeldentzat dagoen arauak dio aireztatzea zeharkakoa izango dela, leiho eta ate gainetan ezarritako mekanismoen bidezkoa; udal poliziaren komisaldegian eta polizia nazionalarenean, dauden leihoen bidez aireztatzen dira zeldak.

**Frantzian**, zehar bidez aireztatzen dira zeldak, aireztatze aho baten bidez, eta **Holandan** sistema artifizial eta pasiloan eta barne bideetan dauden leihoen bidez.

**Inglaterran**, zeldek eta kalabozoek ez dute aire trataturik.

Ez eta **Massachusettes** Estatuan (USA) ere, baina aire kutsatua kanporatzeko bide eta aparailuen bidez, aireztatze sistema artifiziala izaten dute.

**Suitzan**, bisitatu edo ezagutzen diren zeldetan aireztatze sistema modernoak daude, baina hauek eraginkorrak dira azken urteetan berriztatze lanak egin badira bakarrik. Nolanahi, ez da ezagutzen aireztatu gabeko lokalik.

#### 4.4.9. Argi sistema

Argitze sistemari buruz, **Alemanian**, Freiburg lurraldeko atxiloketa ordenantzaren 29. artikulua finkatzen du, zeldek, egunaren nahiko argirik ez dutenean argitu egin behar direla. Argia, gaueko hamarretatik goizeko sei-tera itzaldu edo gutxitu egin behar da. Baina, seguritate arrazoiengatik, denbora guztian piztuta eduki daiteke.

**Argentinan**, normalean artifiziala da argia, **Austrian** berriz (**Alemanian** bezala), argi artifiziala premiazkoa denean bakarrik erabiltzen da.

**Belgikako** ohizko egoera, argi naturala oso ahula den Lovainako udal poliziaren komisaldegiko zeldetan, argia ez da sekula itzaltzen okupatuta dagoenean. Eta etengailua, kanpotik bakarrik maneiatu daiteke.

**Frantzian**, **Inglaterran** eta **Massachusetts** Estatuan (USA), argi naturala eta argi artifiziala tartekatzen dira. **Frantzian** bonbilen ordeztuak erabiltzen dira, eta kanpotik pizten eta itzaltzen dira.

**Holandako** argitze sistema artifiziala eta sistema zentral baten bidez erregulatzen dena da. Gaueko 10etan itzaltzen da argia.

**Suitzari** dagokionez, zeldek leihorik ez dutenean artifizialki argitzen dira. Normalean, nahiko argia izaten dute.

#### 4.4.10. Seguritate neurriak

Libertatea kendutako pertsonak egoteak, zeldetan seguritate neurriak hartu beharra esigitzen du.

**Alemanian**, Freiburg lurraldeko atxiloketa ordenantzaren 36. artikulua agintzen du, giltza eta sarraila duten isdura sistemak jarri behar direla. Giltzak leku seguruan gorde behar dira. Bestalde, 37. artikulua arabera, kontrol erregularrak egin behar dira, gutxienik bi orduz behin. Baldintza berezietan eskuburniak edo indar alkandorak erabili daitezke. Atxiloketa leku programako 10. puntuak dio, abisatzeko interfonodun sistema eta



guardiari deitzeko sistema bat egon behar dela, baina teknikoki entzutea galerazi behar da. Pasiloetan alarma abisatzaileak eta guardia postuarekin komunikazio sistemak egon behar dira.

**Argentinan, Austrian, Ingalaterran eta Suitzan** zeldetan dauzkaten seguritate neurriak, jaso diren erantzunen arabera, guardiako pertsonetan kokatzen dira. **Suitzan**, lokaletan txanda egiten eta beste lan batzuk burutzen dituzten pertsona berdinak izaten dira normalean.

**Belgikan**, epaitegiko zeldetan, atxiloteta leku bakoitzean bi polizia egon ohi dira, eta ez dago beste zaintza neurririk. Epaitegiko behe solairuko zeldetan, zaintza zeldak dauden lokalaren aldameneko bulegoan pertsona bat egoten da. Gauza bera gertatzen da udal poliziaren komisaldegian, aldameneko bulegoan beti polizia bat egon ohi delarik. Polizia nazionalari dagokionez, zelden zaintza guardia polizia baten esku dago, eta orduan behin gutxienez zeldetatik pasatu behar da, eta behar izanez gero, ordulaurdenean behin. Zelda hauetan gainera, timbre bat dago atxilotuak komunikazio zentruan dagoen polizia zerbitzu adierazi nahi dionerako, baina bisita egin zenean timbre guztiak hautsita zeuden; horregatik, 1991n eraikiko diren zelda berrietan hausten ez diren timbreak jartzea pentsatzen da.

**Frantziako** zelda eta kalabozo batzutan, txandaka zerbitzua burutzen duten zaintza pertsonetaz gain, bideo kamarak ere erabiltzen dira seguritate sistema modura.

**Holandan**, beste horrenbeste gertatzen da eraikuntza modernoetan. Egunezko ordutegian, zeldentzat normalki bi zaintzaile daude (Tilburgen, 18 zeldarentzat, gaueko hamar arte).

**Massachusetts** Estatuan (USA), telebisiio zirkuitu itxizko sistema edukitzen da askotan. Brooklinen eta Cambridgen zelda bakoitzak bideo kamara bat du. Bostonen, zelda bat baino gehiagorekin komunikatzen duen pasilo batean aurkitzen da kamara. Araudiak eskatzen du, zaintza lanetan dagoen ofizialak, 15 minutuero kontrolatu behar dituela zeldak, buru hilketarik gerta ez dadin. Brooklinen, gainera, soinu detektoreak dauzkate. Normalean, polizia batek bakarrik zelda guztiak elektronikoki kontrolatzeko moduko bitartekoak izaten dituzte.

#### 4.4.11. Ohizko tresneria

Zeldetako tresneria ere asko aldatzen da leku batzuetatik besteetara.

**Alemanian**, Freiburg lurraldean, zaintza zeldak bulego normalak bezala ekipatuta daude. Programaren 2. puntuak zehapen eta desintoxicazio zeldetarako ertz eta eskina guztiak borobiltzea behartzen du. Hormen azalera laua izango da, sapairaino hautsi eta karraskatu ezin den beige koloreko materialarekin estaliak eta baldosa disdiratsurik gabeak. Programaren 4. puntuarekin adostasunean, zehapen eta desintoxicazio zeldetako zolua estaltzea beharrezkoa da, erraz zaintzeko eta garbitzeko modukoa izango delarik. Zeldetan, pieza osoko komun bat egongo da, eta ez du eserlekurik eta aparteko taparik izango, eta ekintza ondartzailerik eusteko modukoa izango da (desintoxicazio zeldetan, alumniniozko edo burdin galdatzeko konketa). Tresneria hau da: 70 x 200 zentimetrodun zur prentsatzeko ohea, zolutik

35 bat zentimetrotara eta ertzak borobildutako hormigoizko bloke baten gainean ezarria, torlojuz izkutuan lotutako zur prentsatuarekin errematatua, eserlekua eta 60 x 100eko mahai tableroa (desintosikazio zeldetan ez) hormari sendoki torlojuz lotua. Zeldetan ezin da egon atxilotuek burua hiltzeko erabili dezaketen tresna edo instalaziorik (ez eta hodirik ere).

**Argentinan**, zelden hornidura bakarra, koltxoirik gabeko zementuzko ohea da.

**Austrian** aldiz, zeldek ohea, zelda barruan komuna ur korrientearekin eta lababoa daukate, eta osasun instalazio amankomunak daude dutxarekin, eta hormak eta zolua eta ohea bereziki estaliak daude.

Leuveneko (**Belgika**) epaitegiko zeldetako ohizko tresnak aulkiak edo bankuak dira (komuna eta lababoa zeldatik kanpo daude). Behe solairuko zeldek bakarrik daukate hormigoizko ohe bat eta hauek kokatutako lokalean komun bat eta ur korrientea dago. Udal poliziaren komisaldegiko zeldetan badute ur korrienterik gabeko komuna eta egurrez estalitako hormigoizko ohea. Polizia nazionalaren komisaldegiko zeldetan ere badago komuna, hormari eta lurrari lotutako zur sendodun ohe txiki bat, eta ohe gainean koltxoi mehe bat eta manta batzuk; zeldak aurkitzen diren espazioan lababo bat dago, ur korriente eta atxilotuak berekin eduki ezin dituen gauzak (gerrikoa, pospoloak, arma bezala erabili daitezkeen tresnak, labanak,...) gordetzeko armarioekin.

**Frantzian**, seguritate arrazoiengatik, polizia zeldetan ia sekula ez dago oherik. Zelda barruetan gutxitan dago komuna eta ez dute laborik eta dutxarik ere. Pintura eta lurreko baldosa bereziak dira eta zeldako tresneria banku integratu batekin osatzen da.

Antzeko zerbait gertatzen da **Holandan**. Filburgeko zelda eta kalabozetara egindako bisitan ikusi zen, zeldetan ohea eta komuna badaudela, baina ez laborik eta ez osasun instalazio amankomunik ere (bi dutxa eta lababodun bi sala 18 zeldentzat); dena hormigoia da eta ez dago higigarri-rik.

**Inglateran**, hauek dira zeldan egon oh. diren gauzak: ohea, koltxoi eta mantekin. Normalki ez dago zelda barruan komunik, baizik osasun instalazioak amankomunak dira. Zeldetako hormak azulejoarekin estaliak egon ohi dira.

**Massachusetts** Estatuan (USA), oheak metalezkoak dira, koltxoirik gabe (higiene eta seguritate neurriengatik). Bostonen eta Cambridgen, badaude zeldetan osasun zerbitzuak eta lababo sartuak. Brooklinen, osasun zerbitzuak bakarrik. Dutxarik ez dago, poliziaren egoitzan denbora gutxi pasatzen delako. Burdin sareak plastiko berezi ("lexan") batekin estalita daude, eta torlojuak lotzeko sistema, buru hilketarako ez erabiltzeko estudiatuta dago.

**Suitzan**, zeldetan, ordu gutxi batzuk igarotzeko beharrezkoak diren tresnak bakarrik daude. Batzutan, higigarriak aislamendu zelda batentzat propioagoak izan ohi dira. Kasu honetan, besteetan ez bezala, higie zerbitzuak zeldatik kanpo daude eta zerbitzuan lanean ari diren pertsonak ere erabili ditzakete. Ur zerbitzua osoa da. Zeldek, horma, zolu edo ateetan ez daukate instalazio berezirik. Batzutan ikusten da ateak sendotu edo argite-ria instalazioak babestu behar izan direla.

#### 4.4.12. Higiene pertsonala

Atxilotuen esku jarri behar diren higiene pertsonalerako bitartekoak, Freiburgen (**Alemania**), ordenantzaren 24. artikulua arautzen ditu. Han esaten da atxilotuari, goizean eta arratsaldean garbitasuna egiteko, eta otorduen aurretik eskuak garbitzeko aukera eman behar zaiola. Bizarra zaintzapean eta seguritate neurriek galerazten ez dutenean bakarrik moztu daiteke. Xaboa eta toaila eman behar zaio beti. 16. artikulua xedatzen du gainera, pertsona bat zikina edo parasituekin iristen bada, ahal denero, baldintzak kontuan izanik, atxiloturik sartzen den unean garbitasun osoa egiteko aukera eman behar zaiola.

**Argentinan**, ez zaie atxilotuei garbitasunerako ezertxo ere ematen, beraz auzitegiatarako bost egunetan batere garbitu, bizarra moztu gabe egonda eta egoera penagarrian iristen dira.

Alderantziz, **Austrian**, garbitzeko, bizarra mozteko, eta abarrerako behar dituen gauza guztiak ematen zaio atxilotuari. Atxilotuei, egunean behin, garbitzeko ur beroa ere ematen zaie. Astean behin ur beroarekin dutxatu daitezke eta desinfekzio neurriak ezartzen dira.

Lehen esan den bezala, **Belgikan** bisitatutako zelda gehienetan badute komuna, baina ur korrientea erabiltzeko zeldatik kanpora irten behar da. Atxilotu ondoren eta epaitegira eraman baino lehen, xaboiarekin eta urarekin garbitzeko aukera eman behar zaio atxilotuari.

**Frantzian**, ez zaie atxilotuei garbitasunerako, emakumeei konpresa higienikoak besterik ezer ematen.

Beste horrenbeste gertatzen da **Holandan**, baina hemen familiak ekar diezaioke atxilotuari garbitasunerako behar duena.

**Massachusetts** Estatuan (USA) ere ez zaio atxilotuari garbitasunerako ezer ematen, eskatzen badu, komuneko papera bakarrik ematen zaio.

**Inglaterrian** galdekizunari erantzun dionak ez du ezer esan galdera honetan.

**Suitzan**, ez dago garbitasunerako ezer eman beharrik, beharrezkoa ohizko zerbitzuetan bait dago. Zerbitzuak zelda barruan daudenean ordea ez da horrela gertatzen.

#### 4.4.13. Mantak eta erropak

Freiburgen (**Alemania**), manten gaia, ordenantza garatzen duen polizia erregionalaren zuzendaritzak 1990eko martxoaren 8an indarrean sartu zuen xedapen batek arautzen du. Mantak eta toailak, garbitu gabe behin eta berriz erabiltzea galerazten du. Nolanahi, mantak, erretzen ez den materialarekin eginda daude.

**Argentinan**, atxilotuei ez zaie ematen ez mantarik eta ez erropa berogarririk; batzutan familiak eramaten die, baina orduan poliziak beretzat hartzen ditu.

**Inglaterratik** bidali zaigun erantzunaren arabera, hemen ere ez zaie atxilotuei ez mantarik eta ez erroparik ematen.

**Massachusetts** Estatuari (USA) dagokionez, Bostonen ez da erroparik ematen, ez eta mantarik ere; Brooklinen eta Cambridgen, mantak margolarak bidaltzen dira atxilotuak zelda utzi ondoren.

**Austrian**, atxilotuei ematen zaien mantak, astero aldatzen eta garbitzeko margolarak eramaten dira. Higiene arrazoiengatik, atxilotuei soinean daramatzatzen erropak aldatzeko beste batzuk ematen zaie.

**Belgikan**, udal poliziaren zeldetan, atxilotuari, gauerako koltxoi mehe bat ematen zaio. Neguan, manta bat ere ematen diote. Polizia nazionalaren zeldetan, koltxoia eta mantak izaten dituzte. Mantak hilero aldatzen dira. Beharrezkoa izanez gero, udal poliziak margolarak bidaltzen ditu mantak; polizia nazionalak aldiz, zerbitzu militarreko margolarak, eta hemen garbitzen eta txukuntzen dituzte. Epaitegiko zeldetan ez daukate erroparik, atxilotuek ez bait dute hauetan gaua sekula pasatzen.

**Frantzian**, gauean, manta bat ematen zaio atxilotu bakoitzari. Manta hauek, margolarak bidaltzen dira garbitu ditzaten.

**Holandan**, gauza bera egiten da, eta hemen astean behin aldatzen dira mantak. Rotterdamen, atxilotuei beste erropa batzuk ere ematen zaie batzutan.

**Suitzan**, manta ematen da atxilotuak gaua ere zeldan igaro behar badu. Orohar, higiene baldintzak onak dira.

#### 4.4.14. Janaria

**Alemanian**, Freiburg lurraldean, ordenantzaren 21. artikulua jasotzen du atxilotuei eman behar zaien janaria. Administrazioa, beharrezkoa den janaria zihurtatzera beharturik dago, eta praktikan, gertuko taberna batetik edo elkarte sozialen batetik ekartzen da janaria. Egunean hiru otordu eman behar dira, bat edo bi beroak. Janaria ebakita ekartzen da, labana zaintzapean bakarrik erabili bait daiteke. Egite prozesalengatik atxiloturik ez badaude edo kargurik gabe libre uzten ez badituzte, atxilotuek beraiek ordaindu behar dituzte janariaren gastuak. Alkoholaren kontsumua galerazita dago, baina tabakoa, goizeko seietatik gaueko hamarrak arte erre daiteke; praktikan atxilotuek ezin dute zigarrorik eduki.

**Argentinan**, egunean lau otordu ematen dira. Janaria, polenta (gisatutako arto irin horia) beroa da. Edaria, ura eta mate egosia (mate belarraren infusioa edo tea) ematen zaie. Ez zaie tabakorik ematen, eta normalean familiak eramaten die atxilotuei janaria.

**Austrian**, egunean otordu bero bat ematen da. Edari ez alkoholiko guztiak har daitezke eta erretzen ere uzten da, debeku zehatzetan salbu (medikuaren aginduz, zelda kolektiboetan, ohean, gauean). Atxilotuek, osasun edo erlijio arrazoiengatik dieta jakin bat jarraitu behar badute, beraien janaria prestatu dezakete. Nolanahi, medikuak kontrolatzen du janariaren kalitatea.

**Belgikan**, janari erregimena, Barne Ministerioaren agindu batek arautzen du. Gosarian (goizeko 8etan), bazkarian (eguerdian) eta afarian (arratsaldeko seietan), litro erdi kafea (esnearekin) eta 150 gramu ogi gurinarekin eman behar zaie atxilotuei. Polizia nazionalak bere kuarteleko sukaldetik

eramaten du janaria. Udal poliziak, janarien udal zerbitzuar eskatzen dio. Atxilotuek hemen, otordu aberatsagoa jasotzen dute, zopa eta postrearekin. Ministerioaren aginduak atxilotu bakoitzarentzat egunean 113 FB-ko presupostua finkatzen du. Erretzea debekaturik dagoen arren, atxilotuak zaintzen dituzten polizia batzuk erretzen uzten diete, baina horiek ezin dute tabakorik eduki. Epaitegiko zeldetan ez da jatekorik ematen; atxilotuei, jaten, polizia komisaldegian edo kartzelan ematen zaie.

**Frantzia**n, egunean bi otordu ematen dira, gehi gosaria (kafea). Ahal bada, janari beroa ematen da, baina presupostua agortu denean, bokadiloak eskeintzen dira. Edateko, ura eskaintzen da, eta tabakoa, seguritate neurriengatik, debekatuta dago.

**Holanda**n, hiru otordu ematen dira egunean. Egunean bi alditan bokadiloak ematen dira, eta janari beroa otordu batean. Edari bezala kafea, tea eta ura eskaintzen da. Familiak, janari eta edariaz aparte, tabakoa ere ekar diezaioke atxilotuari, eta komisaldegian ere saltzen da. Arrazoi ezberdinengatik atxilotu batzuk jarraitzen dituzten janari ohiturak (adibidez, musulmanak) aintzakotzat hartzen dira.

**Inglatera**n, egunean hiru otordu ematen dira, hiruetan janari beroarekin; edateko ura, eta tabakoa debekatuta dago.

**Massachusetts** Estatuan (USA), otorduetan, sandwichak, kafea, tea eta esnea ematen zaie, eta batzutan, baita gozokiak ere. Otorduak, atxiloketak irauten duen denboraren arabera ematen dira. Bostonen eta Cambridgen, Macdonaldekina kontratu bat daukate. Brooklinen Friendlyrekin. Cambridgen eta Brooklinen, familiakoek, nahi izanez gero, ekar diezaike janaria atxilotuei.

**Suitza**n, atxiloketa egiten den orduaren eta atxilotuaren egoera pertsonalaren arabera ematen da jaten.

#### 4.4.15. Sendagilearen arreta eta bisitak

Sendagilearen arreta eta bisiten maiztasuna dira hurrengo galderaren muina.

**Alemania**n sendagileak berehala ikusi behar du atxilotua Freiburgeko ordenantzaren 32. artikulua arabera, atxilotua gaiso dagoenean edo gaiso dagoela esaten duenean. Atxilotuak eskatzen badu, sendagile jakin bati deitu dakioke, bestela, poliziak aukeratzen du sendagilea edo atxilotua klinikara eramaten du. Ordenantzaren 32.3 artikulua dio, interesatuak ospital tratamenduan dituen nahiak errespetatu behar direla, eta 32.6 artikulua, gaisotasun guztiak erregistro liburuan notatzeko agintzen du. Bestalde, 13. artikulua arabera, atxilotzeko gai dena bakarrik atxilotu daiteke. Zalantza dagoen kasuan, sendagileari deituko zaio gaitasun hori frogatzeko.

Gainontzeko bisitei dagokionez (ordenantzaren 42. artikulua), eta hauek ere erregistro liburuan notatu behar dira, atxiloketaren helburua arriskuan jartzen ez dutenero egin daitezke, baina beti atxiloketa erakundeko ardura-dunaren esku dago erabakia eta ponentearekin harremanetan gehienez 30 minutu iraun ditzakelarik. Aurrean polizia funtzionario bat egongo da beti eta hizlarien hizkuntza ulertu behar du (bere kabuz edo interpretari bidez).

Gauza bera esan daiteke telefono deietaz, eta horiek atxilotuak ordaindu behar ditu zuzenean.

**Argentinan**, polizia sendagileak bisitatu behar ditu atxilotuak behin gutxienez. Inkomunikaturik ez badaude (inkomunikazioak bost egunerarte iraun ditzake), beste pertsona batzuk bisitatu ditzakete.

**Austrian**, sendagile ofizialak erregulariki bisitatu behar ditu atxilotuak. Poliziaren egoitza berezietan zigor administratiboak bete daitezkenek, atxiloteta denboraldi baterako denean, atxilotuak astean ordu erdiko bisita bat izan dezake.

**Belgikan**, polizia nazionalaren zeldetan eta epaitegietan bere zaintza-pean daudenen kasuan, behar izanez gero, zaintzaileek sendagileari deitzen diote eta honek zelda barruan aztertzen ditu. Sendagileak erabakitzen du atxilotua klinikara eraman behar den ala ez. Udal poliziak, zaintzapekoaren osasunari buruz zalantzak ditueneko edo sendagileak egiteko zerbait dagoenean, zuzenean unibertsitate klinikarekin jarri behar da harremanetan. Kontsulta dohan da eta sendagileak erabaki beharko du berriro, atxilotua klinikari utzi behar den ala ez. Atxilotuek ezin dute beste inoren bisitarik izan. Abokatuak, langile sozialak eta laguntza sozialerako edo ongizaterako beste adituak ezin dira atxilotuekin harremanetan jarri poliziaren edo epaitegi zeldetan dauden bitartean.

**Frantzian**, atxilotuek, sendagile internistaren bisita izaten dute, eta atxilotetaz arduratzen den polizia judicialaren ofizialak erabakitzen badu, familia-koek bisitatu dezakete.

**Holandan**, normalean, sendagileak ez ditu bisitatzen atxilotuak, droga-zaleak edo zoroak diren kasuetan salbu. Orduan, bisita atxilotetaren hasieran egiten da premia dagoenero. Sendagileak, sendagile zerbitzu komunitariokoak dira. Beste pertsona batzuen bisitari dagokionez, behin behineko atxiloteta ikerketa arrazoeingatik bada, asistente sozialen eta abokatuen bisita baimentzen da. Atxiloteta prebentiboa denean edo ardura subsidiarioa betetzeko aurkitzen denean, familiakoen bisitak onartzen dira, baina praktikan hori ez da gauzatzen pertsonal eta bitarteko faltagatik. Teorian, gazteek beti izan dezakete gurasoen bisita; praktikan, aurreko arazo berberak sortzen dira.

**Inglaterran**, atxilotuak sendagilearen laguntza izan dezake eskatzen badu edo polizien ustez atxilotuak sendagilearen azterketa behar badu. Komisaldegiko sendagile batek egiten du hori. Abokatuaren eta familiakoen bisitak ere baimendu daitezke.

**Massachusetts Estatuan (USA)**, atxilotuek nahi duten sendagilearen bisita izan dezakete, baina ordaintzen badute, eta beti polizia ofizial baten zaintzapean. Behar izanez gero, ospitalera eramaten dituzte. Beste pertsona batzuk bisitatu ditzakete, normalean 24 orduan bi bisita, baina hau baldintzen arabera aldatzen da. Normalean, familiakoen edo lagunaren bisita, fiantzaz ezartzen zaienean eta libertatea lortzen dutenean izaten dute.

**Suitzan**, sendagileak, atxiloteta hasten den unean bisitatu behar ditu atxilotua, honen osasun egoerak hala eskatzen badu. Atxilotuak burua hiltzeko asmoa duela susmatzen bada, sendagileak sarri bisitatzen du.

#### 4.4.16. Atxiloketa egoitzen kontrola

**Alemanian** atxiloketa egoitzak ez ditu kontrolatzen ez aginte judizialak eta ez fiskaliak ere. Kontrol hori egiteko eskuduna aginte administratiboa bera da, ikuskapenerako duen zerbitzu bereziarekin. Zentzu honetan, ordenantzaren 10. artikulua xedatzen du, polizia zerbitzuaren buruak hilerok bisitatu behar dituela, eta emaitzak jakinarazi behar dituela eskudun zerbitzuen bidez hutsegiteak berehala konpontzeko.

Egoitza administratiboak direnez gero, inkesta egindako beste herrialde gehienetan ere ez dituzte epaileek edo fiskalek kontrolatzen zeldak edota kalabozoak. Zerbitzuaren arduradunak edo eskudun ministerioak egiten du kontrol hori.

Galdeketei emandako erantzunen arabera, **Frantzian** eta **Suitzan** bakarrik aldatzen da egoera. **Frantzian**, fiskalak kontrola egiteko ahalmena du, eta nahi duenean burutu dezake. **Suitzan**, egoitzen eta atxiloketaren kontrola judiziala burutzean, polizia dagoen guztiaren berri eskudun aginteari ematera behartuta dago. Instrukzio epailea edo Ministerio publikoaren ordezkaria, instrukzioaz arduratzen direnez, nahi dutenean sar daitezke polizia-egoitzetan.

**Inglateran** bestalde, Lambeth eskualdean bisitari laikoekin esperientzia bat burutu dela adierazten da.

#### 4.4.17. Atxiloketaren erregistroa

Freiburgen, **Alemanian**, atxilotuaren datuak atxiloketa zentru guztietan egon behar den erregistro liburuan jasoz (ordenantzaren 4.4 art.) egiten da atxiloketaren erregistroa.

**Argentinan**, **Holandan** eta **Inglateran** ere badago "atxilotuen liburuak".

**Frantzian** bi erregistro daude, bata judiziala, polizia judizialaren ofizialak eramaten duena, eta administratiboa bestea, polizia postuko burua eramaten duena, non inskribitzen bait diren atxilotuari kentzen zaizkion objektuak.

**Belgikan**, epaitegian ez dago atxiloketen erregistroarako sistemarik, berreratuak polizia nazionalaren zaintza eta agintepean aurkitzen direlako. Polizia nazionalak eta udal poliziak, atxiloketa hasi den ordu zehatza atxilotuaren datu pertsonalak notatu behar dituzte liburuan.

**Massachusetts** Estatuan (USA), eserlekuen liburuan ("booking" deituriko prozedura) erregistratzen da, argazkiak ateratzen zaizkio, eta gainera, bideotape batean filmatzen da prozedura guztia. Era berean, konputagailu zentralean ere egiten dira kontsultak, sujetuak buru hilketarako joerak dituen jakiteko. Atxilotuak joera hori era batean edo bestean azaltzen badu, fitxategi zentralean jasotzen dituzte bere datuak.

**Suitza**, datuak informatizatze bidean oso bizkor ari da sartzen, baina liburu edo fitxategiak kontsultatzea zaila izango dela uste da; pertsonak gehiegizko publizitatetik zaindu nahi dira.

#### 4.4.18. Kasu bereziak: toxikomanoak, adinez txikiak eta besteak

**Alemanian**,<sup>\*</sup> kasu berezien artean, alde batetik *mozkorrak* bereizten dira, desintoxicazio zeldetan sartu behar direlarik, eta hauen ekipamendua ez da zelda normalena: komunaren ordezkak dago, eta ez du ez aulkirik eta ez mahirik. Arduradunen zaintzatik ihes egindako *adinez txikiak* ezin dira zeldetan sartu, horientzat, beraientzat Gazteen Administrazioan zaintzarako dauden lokaletan sartzen dira. 14 urtetik aurrera bakarrik egin daiteke behin behineko atxiloteta lege prozesalean oinarrituta. Ustez *atxilotu ezin diren pertsonen kasuak*, dagokien ospitalera eramanez konponzen dira.

**Argentinan** adin *txikikoentzat* egoitza bereziak daude. Beste kasu arazotsuetan sendagile azterketak egiten dira eta ospital publikoetan sartzea erabakitzen da. *Toxikomanoentzat* ez da ezer iragartzen.

**Austrian** *toxikomanoak* bakarkako zeldetan sartzen dira eta *gazteak* aldentutako zeldetan, *gaiso mentalak* bezala.

**Belgikan**, *toxikomanoen* kasuan, polizia sendagile bati deituko dio. Bestalde, *gazteen* atzipen praktika duela gutxi aldatu egin da, baina ez lege erreformaren bidez. Adinez txikiak egongeletanedo poliziaren bulegoan bertan zaindu behar ditu polizia, ez zeldetan. Bestalde, Adin Txikikoen Baberako Legearen 53. artikulua epaileari ahalmena ematen dio gazteak gehenez 15 egunetako kartzelara bidaltzeko; ministerioaren erabakiz (88), praktika hau alde batera utzi da.

**Frantzian**, *toxikomanoak*, lau egunerarte atxilotuta egon daitezkenak, sendagileak egunero bisitatu behar ditu. 16 urtetik gorako *gazteak* atxilotu daitezke.

**Holandan**, *toxikomanoentzat* behaketa zelda bat dago, edo sujetua ospital psikiatrikora (sail itxira) eramaten da. *Gazteak* normalean, gurasoen etxean jartzen dira, baina batzutan etxe berezietan edo komisaldegietako neurri berezirik gabeko zelda erregularretan sartzen dira.

**Inglateran**, *gazte bat* atxilotzen den kasuan, gurasoei deitzen zaie, eta horiek, asistente sozial batekin, polizia gazteari egiten dion elkarrizketan egoten dira.

**Massachusetts** Estatuan (USA) *toxikomanoak* segituan bidaltzen dira desintoxicazio zentru batera. Ezin badituzte horietan sartu, zeldetan gertzen dira edo ospitalera eramaten dituzte beraien intoxicazioa larria bada. *Gazteak*, helduengandik erabat aldentutako zeldetara eramaten dira Brooklinen eta Cambridgen, eta Bostonen, egoitza ezberdin batera. Gauza bera gertatzen da *emakumeekin*. Gainera, gazteen zeldetan ez dago burni sarerik, egur sendozkoak dira (agian burni sareak baina okerragoak).

**Suitzan**, kasu berezietan hartzen diren neurriak, Europako beste herriaide batzutan normalean onartzen diren antzekoak dira. Aipagarria da, hartzen den neurri bereziena, atxilotua non sartu behar den berehala erabakitzea dela, polizia atxilotzea erdi bideko neurria besterik ez bait da. Ez dago egoitza berezirik adin *txikidunentzat*, baina bere tutoretza duen agintariari berehala jakinarazi behar zaio.



#### 4.4.19. **Sindromearen unean hartzaren diren neurriak**

Freiburgeko (**Alemania**) ordenantzaren 39. artikulua sindromearen unerako, eskuburniak edo indar alkandorak erabiltzeko aukera iragartzen du, bereziki erresistentzia dagoen kasuetan. Sendagileak tratatu beharreko ondoreak edo gaisotasunak gertatzen direnean, Gurutze Gorriari edo sendagile bati deitzen zaio, dagokion lasaigarria, edo kasurik txarrean indar alkandora jar diezaieten.

**Austrian** eta **Inglaterrian**, sarritan jartzen dira eskuburniak, eta kolpeei aurre egiteko buruan kaskoa jarri den kasurik ez da ezagutzen.

**Belgikan** ere ez dute buruan kaskorik jartzen. Bortxakeria eta eraso kasuetan, polizia sendagileari deitzen dio, giltzapetua lasaitu eta lagundu diezaioten. Eskuburniak zeldatik kanpora dagoenerako bakarrik jartzen zaio, epaitegirako edo epailearen aurrean aitortpenak egiterako bakarrik. Bortxakeria larrien kasuan, giltzapetuari, lasaitzen den arte, eskuetan eta oinetan burniak jartzen zaio.

**Holandan**, non atxilotuaren segurtasunerako beharrezkoak direnean eskuburniak jartzen diren, telebista kamaren bidez 24 orduetan kontrolaturik dagoen "behaketa zelda" deitua dago. Sendagileek atxilotuari metadona emateko baimena dute. Kasu larrietan, ospital psikiatriko batean sartzeko agindua ematen da.

**Massachusetts** Estatuan (USA), ikara larriaren kasuan, berehala gaiso mentalen ospitaletara eramaten dituzte atxilotuak. Oso gutxitan erabili behar izaten dira euspen neurriak, eskuburniak erabili beharra, alegia.

**Suitzan**, atxilotua ospitalera (larrialdietara) edo kartzelara eramatean, behar izanez gero, bitarteko fisikoak eta sendagileen laguntza erabiltzen dira. Itaundutako agintariek, galderari erantzutean, ez dute esaten pertsona sindromearen unean aseguratzeke kaskoa edo antzeko mediorik erabiltzen den.

#### 4.4.20. **Araketa eta katxeoa**

Atxiloketa orok eskatzen du atxilotua arakatzea eta katxeatzea, bereztat edo besteentzat gauza debekatu edo arriskutsurik badaraman ikusteko.

**Alemanian**, bi gauza bereizten dira: gauzak edo arrastoak bilatzeko pertsonen erropak —eta beren gorputzaren kanpokaldean (eta ikusten diren zuloetan)— arakatzea, eta sujetoaren gorputzean eta ezaugarrietan kokatutako atxilotuaren katxeoa.

— Orohar, prozesamendu legearen 81. artikulua epailearen (edo, atzerapenagatik arriskua dagoen kasuan, fiskalaren eta bere laguntzarako funtzionarioen) esku uzten du egite bat frogatzeko gorputza katxeatzeko baimena ematea. Gorputz barruko araketa sendagileak egin behar du beti. Bestalde, prozesamendu legearen 163 b) 1,3 artikulua, "identifikaziorako azterketak arautzen ditu. Fiskaliak edo polizia funtzionarioak agindu dezake. Prozesamendu legearen 81. artikulua errekonozimendu eginbidez ardura-

tzen da, zeina fiskaliak edo polizia funtzionariak agindurik, hilea edo bizarra moztea bezalako gorputz osotasunaren aurkako erasoak baimendu bait ditzake. Daramatzen gauza susmagarriak ere arakatu daitezke (StPO-ren 102. art.) juezaren aginduz, edo atzerapenagatik arriskua dagoen kasuan, fiskalialaren edo honen laguntzarako funtzionarien aginduz.

—Baden-Wurtttembergeko Landean, polizia legeak, atxilotutako pertsonak arakatzeko baimena ematen die polizia funtzionariei. Arakatzeko lanak sexu bereko pertsonak edo sendagileek egin behar dituzte, bizitza edo osotasunerako arriskua dagoen kasuetan salbu.

Arakatzeko froga edo gauza errekisagarriak aurkitzen badira legez kendu egiten dira. Atxilotutako helburua edo instalazioak arriskuan jarri ditzaketean gauzak ere legez kendu egiten dira. Dirua eta baliodun objektuak erretentitu egiten dira, eta legez kendutako edo erretentitutako gauza guztiak erregistro liburuan jasotzen dira. Atxilotua lekuz aldatzen bada, bera daramaten lekura aurreko gauzen zerrenda osoa eramaten da.

Katxeo intimoari dagokionez, atxilotua ezin da ukatu, izan ere, StPO-ren 81. artikulua araberak, azterketa hauek edozein kasutan sendagile batek egin bait ditzake, eta indarra ere erabili daiteke proportzionalitate has-tapenari dagokionean.

**Argentinan** ere, katxeo intimora ezin da inolr ukatu. Komisarietan polizia funtzionariak eta presondegietan funtzionariak dira katxeoa egiteko eskubidea dutenak. Atxilotuei, oinetakoen sokak, gerrikoa, tanpoiak, botikak, dirua, baliodun objektuak eta pospoloak kendu egiten zaie.

**Austrian**, katxeoa egiten duen funtzionariak sexu berekoa behar du izan, eta objektuak, daukaten arriskuaren arabera kentzen dira.

**Belgikan**, katxeoa eta gorputzaren ikerketa bereizten dira. Gorputzaren ikerketa sendagileen egitekoa da. Sendagile adituak Kontseilu Kamara-ren enkargua jasotzen du (1990eko uztailaren 20ko prebentziozko atxilotetari buruzko legea). Katxeo poliziala atxiloteta administratibo edo judizialaren kasuan egiten da. Poliziak, atxilotua erabat bilutsik jartzera behartu dezake, baina bakarrik poliziaren aurrean, ez beste pertsona batzuenan. Poliziak ezin du atxilotuaren gorputza ikutu. Giza gorputzaren barruan hutsune edo zuloetan izkutaturik egon daitezkeen objektuak ikusteko, poliziak atxilotua makurtzera behartu dezake. Emakumeak, sexu bereko poliziek bakarrik arakatu eta katxeatu ditzakete, eta emakume poliziarik ez balego, poliziek deitutako emakumeek (adibidez, polizia Administrazioan enplegatutako emakumeek). Atxilotua zeldan sartu aurretik, poliziak erropak katxeatzeko obligazioa du. Atxilotuarentzat edo hau zaintzen duten pertsonentzat arma arriskutsu bilakatu daitezkeen gauzak, poliziak erretentitu egin behar ditu. Katxeora ezin da ukatu, baina bai epailearen aginduz perito sendagileak egin beharreko gorputzaren ikerketara.

**Frantzian**, ordena publikoko guardiek egin ditzakete katxeoak. Suje-tuak ezin du objektu bakarrik gorde, gerrikoa, sokak, korbata..., dena kentzen zaio. Katxeo intimoa, drogazaleei sistematikoki egiten zaie, baina emandako erantzunaren arabera ukatu daiteke.

**Holandan**, katxtoa baimendu dezakeen pertsona, guardiako koman-dantea da. Atxilotuak tabakoa gorde dezake. Gainontzeko gauza guztiak kentzen zaio (adibidez, erlojua, gerrikoa, sokak, dirua). Ezin da katxto intimo-ra ukatu.

**Inglaterran**, zaintzako ofiziala da katxtoak egiteko baimenduta dagoen pertsona. Atxilotuak, erropa, betaurrekoak eta erlojua besterik ezin du eduki.

**Massachusetts** Estatuan (USA), katxtoa ohizkoa da lehen araketa egi-ten den unean. Atxilotuak ezin du berekin objektu bakar batik eduki.

**Suitzan**, poliziek beraiek egiten dute katxtoa, baina beti sexu bere-koek. Atxilotua ukatzen den kasuan, indarra erabiltzen da. Katxto intimo-rako epailearen edo fiskalaren baimena behar da (lurralde batzutan). Hasie-ran, eta oraindik prozedurarik ireki ez zaien atxilotuak direnez, ez zaie beren gauza pertsonalak kentzen, ez behintzat buru hilketa arriskurik ez badago (orduan, gerrikoa, tiranteak, botikak... kentzen zaizkie). Armak edo tresna arrisksuak, legez kendu egiten dira beti.

#### 4.4.21. **Tratu txarrak**

**Alemanian**, atxilotuei tratu txarrak eragitea, zigortu egin daiteke kode penalaren 340. artikuluaaren arabera, eta zauriak pertsona partikularrek er-egiten dituztenean, iragarritako zigor arrunta larriagoa da. Bestalde, proze-samendu legearen 136. artikulua, debekatu egiten du itaunketarako tratu txarrak erabiltzea, eta horrela lortzen diren frogak ez dute balio epailearen aurrean. Gainera, tratu txarrak adierazi dezake funtzionariak bere eginkizun ofizialak bortxatu egin dituela, eta beraz BGBko 839 eta GGko 34. artiku-luen arabera erantzule egingo da. Bestalde, polizia funtzionariak, istiluak dominatzeko eta kontrolatzeko tekniketan trebatzen dira akademietan, eta honek tratu txarren praktikari aurre egiteko balio dezake. Azkenik, zerbitzu-ko ikuskaritzaren aurrean eskabide edo erreklamazio eskubidea erabili de-zakete atxilotuek.

**Frantzian** eta **Holandan** ere, atxilotuari tratu txarrak ez emateko, lege penala eta diziiplina zigorrak ezartzen dira, eta horiek eragotzi ditzakete.

**Argentinan**, presoak auzitegitik pasa ondoren, ez da berriz komisalde-gira itzultzen, eta presondegietako funtzionariak, tratu txarrek eragindako aztarna edo zauririk gabeko presoak nahi izaten dituzte, eta kontrakorik gertatzen den kasuan, aktan jasotzen dituzte xehetasunak.

**Austrian** tratu txarrei aurre egiteko erabiltzen den bidea, kode pena-lean eta poliziaren atxiloteta zentruak arautzen dituen ordenantza adminis-tratiboko (1988ko irailaren 28ko 566 zkia.) zenbait arauetan egiteak zehaz-tea da. Aipaturiko ordenantzak agintzen du, zaintza organuak, errespeto, seriotasun eta irmotasunarekin tratatu behar dela atxilotua.

**Belgikan**, atxilotuei tratu txarrak ez emateko, poliziaren zeldan atxilo-tuak igaro dezakeen gehienezko denbora oso zehatz mugatu behar dena-ren eritzikoak dira. Aldi berean, erregistro liburua zehaztasunarekin erama-tea ere kontrolerako sistema egokitzat jotzen da. Atxilotetaren kontrola

areagotzeko, poliziak berehala eman behar dio fiskalari atxiloketaren berri, eta honek erabaki behar du atxilotuta utzi behar den ala ez.

**Massachusetts** Estatuan (USA) funtzionariaren batek atxilotu baten kontrako gehiegikeriaren bat egiten badu, sumario administratiboa zabal-tzen zaio, audientzia izan dezake, eta azken erabakia lanetik botatzea edo prozedura kriminal bat irekitzea izan daiteke. Zeldak, 15 minutuz behin ikuskatzen dira telebista zirkuitu itxi baten bidez buru hilketei aurre egiteko, baina honela, polizien jarrera ere kontrolatu daiteke.

**Suitzan**, inkestak dionez, pertsonak tratatzeko moduari buruzko polizia-ren barne aginduak daude. Agindu horien hastapena, sarritan poliziaren le-geetan ezarrita dagoena, pertsonen duintasunari zor zaion errespetoa da.

#### 4.4.22. Atxiloketak atxilotuengan duen eragina

Atxilotuetan, atxilotu egoera horrek duen eraginari dagokionez, **Ale-manian** inkestari eman zaion erantzunak dio, normalean atxilotu gutxi por-tatzen direla oldarkortasunarekin, gehienek etsipena azaltzen eta hitzez adierazten dute beraien egoerarengatik protesta.

**Argentinan**, atxilotuei estatusun handia nabaritzen zaie atxilotuta dau-den denboran.

**Austrian**, atxilotuak oldarkorrango azaltzen dira.

**Belgikan** inkestari eman zaion erantzunean esaten da, gauza askoren baitan dagoela atxiloketak atxilotuarengan izaten duen eragina: susmagari-riak ustez egin duen delitu moeta, bere nortasuna, atxiloketa egiteko unea-ren baldintzak, e.a. Nolanahi, esaten denez, atxiloketa eta itaunketaren on-doren pertsona bat giltzaperatzen denean, normalean lasaitu egiten da, baina beste batzutan, atxilotuak era oldarkor eta indarkeriaz erreakziona-tzen du. Pertsona horiek, urduri jartzen dira eta atxiloketak oldarkortasuna enarazi egiten die.

**Frantzia, Holanda** eta **Suitzatik** iritsitako erantzunek ere arau orokor-rik ezin dela eman azpimarratzen dute, baldintza ugariren baitan dagoela dena.

**Massachusetts** Estatuan (USA), atxiloketak lasaitu egiten ditu norma-lean, eta poliziaren zeldan pasatuko duten denbora, jakinik motza izango dela, lo egiteko edo atsedena hartzeko aprobetxatu nahi izaten dute.

#### 4.4.23. Familiartekoei eta lagunei berria ematea

**Alemanian**, 163 b StPO artikulua aitortzen du, atxilotuak, bere atxi-loketa egoera berehala familiakoei edo konfiantzako lagun bati jakinarazte-ko eskubide konstituzionala daukela (104. art. 4 GG). Are gehiago, deia be-rak pertsonalki egin dezake, horrekin ikerketaren helburuak arriskuan jartzen ez badira. Funtzionaria bada berria ematen duena, sujetoa identifi-kaziorako atxilotu dutela besterik ez du esaten. Halabaina, 172,2 StPO arti-kuluak jasotzen duen behin-behineko atxiloketaren kasuan komunikatzeko

obligatorik ez badago, hori, epaileak barneratzeko agindua eman ondoren bakarrik egingo da. Bestalde, Freiburgeko polizia erregionalaren zuzendariak jakinarazten du, atxilotuek askotan ez dutela atxilotetaren berri familiakoei eman nahi izaten. Mozkor baten kasua denean, familiakoei deitzen zaie bila joan daitezten. Familiakoei berria ematen ez zaien kasuan, erregistro liburuan adierazi behar dira komunikazio hori ez egiteko egon diren arrazoiak.

**Argentinan**, poliziak eman beharko lieke familiakoei atxilotetaren berria, baina horiek normalean, libre ateratzen diren beste preso batzuen bitartez jakiten dute.

**Austrian**, atxilotetaren berri berehala ematen da.

**Belgikan**, poliziak adin txikidun bat atxilotzen duenean, beti deitzen die bere familiakoei. Helduen kasuan ere, horiek eskatzen badute eta polizia organuaren ustez ikerketa arriskuan jartzen ez bada, deitzen zaie familiakoei. Poliziak ez die beste pertsona batzuei deitzen.

**Frantzian**, normalean, ez zaie familiakoei deitzen, adinez txikiak diren edo polizia judizialaren ofizialak beharrezkoa dela ikusten duten kasuan bakarrik deitzen zaie.

**Holandan**, emazteari, gurasoei eta asistentzia sozialerako zerbitzukoiei ematen die poliziak atxilotetaren berri. Atxilotuak eskatzen duenean, asistentzia sozialerako zerbitzua arduratzen da beste pertsona batzuei deitzeaz. Gazteen kasuan, komunikazioa hasieran egiten da. Beste kasuetan, ikerketarako behin-behineko atxiloteta denean.

**Inglaterran**, poliziak deitzen die familiakoei, **Massachusetts** Estatuan (USA) aldiz, telefonoz deitzeko eskubidea aitortzen zaio atxilotuari.

**Suitzan**, atxilotua normalean konfiantzako pertsona batekin harremanetan jarri daiteke, eta pertsona hori abokatu izan daiteke.

#### 4.4.24. Abokatuari deitu

**Alemanian**, lege prozesalaren 137. eta 136. b artikuluen arabera, ustez egite zigorgarri bat burutu duen (edo susmagarria ez bada ere) badu atxilotuak abokatu baten asistentzia eskubidea. Hori, polizia funtzionarioak jakinarazi behar dio atxilotuari. Ez dago ordea, abokatu defendatzaileak eginbideetan eta poliziaren itaunketetan parte hartzeko eskubiderik, nahiz eta atxilotua abokaturik gabe poliziaren aurrean aitorten egitera ukatu daitekeen. Abokatuak, epailearen edo fiskalaren aurrean egiten diren itaunketetan lagun diezaioke atxilotuari. Atxilotetan zehar eta prebentziozko arrazoiengatik, atxilotuak badu asesore legal bat ekar azaltzeko eskubidea.

**Argentinan**, atxilotuak inkomunikaturik dagoen bitartean (bost egun) ezin du abokatuarekin hitzegin.

**Austrian** eta **Frantzian**, epaitegian sartzen den unetik aurrera bakarrik izan dezake abokatuaren laguntza.

**Belgikan**, lehen 24 orduetan ezin diote deitu abokatuari. 1990eko uztailaren 20ko lege berriak iragartzen du, instrukzio epailearen agindupeko atzipen ofizialaren ondoren, atxilotuak, baldin eta kartzelan badago, aboka-

tuarekin hitzegin ahal izango duela. Abokatua ezin da sartu atxilotua aurkitzen den zelda edo polizia bulegoetan.

**Holandan, Ingalaterran eta Massachusetts** Estatuan (USA), atxilotuak badu abokatuari deitzeko eskubidea.

**Suitzan** ere bai, baina lurralde askotan ezin du abokatuak aurretiazko ikerketetan parte hartu.

#### 4.4.25. Ofizioko abokatu txandak

**Alemania**ko hiri batzutan, adibidez Freiburgen, abokatuaren kolegioak antolatutako larrialdietarako ofizioko abokatuaren zerbitzu bat badago. Hiriko egunkariak argitaratzen duen telefono publiko baten bidez, edozein unetan lortu daiteke abokatu bat. Funtzionaria horren berri ematera behartzen duen araurik ez dago, beraz itaunketa egiten duen funtzionariak nahi badu bakarrik jakinarazten dio atxilotuari. Gainontzean, poliziak ez dauka atxilotua abokatu posiblei buruz zertan asesoraturik, defendatzailea aukeratzea interesatuari bait dagokio, eta behar izanez gero, telefono listina eskuratzen zaio.

**Argentinan**, badago abokatuaren ofizio txanda, baina ez dira komisaldegietara joaten.

**Austrian, Holandan eta Ingalaterran** (Law Societyk eraturik) eta **Massachusetts** Estatuan (USA) (defendatzaile ofizialen bulegoa) ere badago ofizioko txanda, baina ez dago ez **Frantzia**n eta ez **Suitzan** ere galderak planteatutako zentzuan.

#### 4.4.26. Kolektiboen eta adinez txikien barneraketak

**Alemanian**, Freiburg lurraldean, ordenantzaren 20. artikulua xedatzen du, atxilotua, ahal dela, bakarkako zeldan sartu behar dela. Beraz, kolektiboa sartzeko aukera geratzen da, baina oso gutxitan edo ia sekula ez da horrelakorik egiten. Kasu batzutan, zeldan isolatuta uzteko aukera ematen da: atxilotua edanda dagoenean, oldarkoia edo gaiso mentala denean. Bestalde, bus zelularra ere badute manifestazioetan edo atxiloteta masiboetan erabiltzeko.

**Argentinan**, kolektiboak eta adinez txikiak barneratzeko zelda bereziak daude, baina ez dago araudi berezirik.

**Austrian** ere badaude taldeak eta adinez txikiak barneratzeko zeldak, eta erregimen berezia dute.

**Belgikan**, epaitegian, atxilotu bat baino gehiago egon daitezke zelda berean, epailearen aurrean agertzeko zain. Zeldak falta diren kasuan, poliziak elkarrekin jartzen ditu atxilotuak. Atzipen administratiboagatik barneratze kolektiboa ez da zeldetan egiten, ekintzak edo manifestazioak irauten duen bitartean leku irekietan baizik. Adinez txikiak ez da polizia zelda erabiltzen. Adinez txikiak zaintzeko kristalez aldundutako espazioak iragarritan daukate udal poliziaren gorputz batzuk.

**Frantzia**n, komisaldegi handietan ere badaude zelda kolektiboak. Jende pilakatze handiak dauden kasuetan salbu, adinez txikiak helduengandik aldentzen dituzte.

**Holanda**n, gurasoek nahi adina aldiz bisitatzeko ditzakete barneratutako gazteak.

**Massachusetts** Estatuan (USA), Bostonen, "holding cells" deituak daude, eta denboraldi labur batean pertsona multzo bat esku burniekin lotuta edukitzeko dispositibo berezi bat dute, eta gero, eraikuntza berezi batera eramaten dituzte. Garrantzia txikiagoa duten polizia bulegoetan, adibidez Brooklinen edo Cambridgen, dauden zeldetan banatzen, edo ahal bada, behala epaitegietara bidaltzen dituzte. Gazteentzat erregimen berezia dago; uneoro helduengandik aldentuta egon behar dute, eta beraien zeldek ez daukate burnisarrerik.

**Inglatera**n eta **Suitza**n, banakako zeldetan sartzen dituzte betik atxilotuak.

#### 4.4.27. **Hobekuntza desiragarriak**

**Alemania**n, Freiburgeko poliziek galdera hori egin eta erantzun zuten, onartutako arauei erantzuten ez dieten zeldak badaudela oraindik funtzionamenduan.

**Argentina**n galdeketari eman zaion erantzunean, inkomunikazioa kentzeko, atxiloteta arbitrarioak egiteko aukera bertan behera uzteko eta lege hausketak judizializatzeko premia azpimarratzen da.

**Frantzia**n, poliziak familiari deitzea eta atxilotutako pertsonari beraiekin hitzegiteko aukera ematea komenigarri ikusten da. Defendatzailea itaunketetan egoteko agindua indarrean sartzeko premia aldarrikatzen dute abokatuek. Teoria mailan, ezinbestekoa dirudi atxiloteten luzapen baimenen kontrol zehatza eramatea.

**Holanda**n, sendagileen kontrol handiagoa eta pertsonal gehiago nahi luke poliziak. Atxilotuaren egoera hobetzea ere beharrezkotzat jotzen da, errekurso aukerak zabalduz eta baimendutako muga batzuk bertan behera utziz. Barneraketa erakunde bezala poliziaren zeldak eta kalabozoak erabiltzeari aurre egitea ere beharrezkotzat jotzen da, komisaldegietan ez bait dago barneratze erregimen egokia gauzatzeko aukerarik.

**Massachusetts** Estatuan (USA), elkarrizketatu guztiak (Brooklineko John M. Walsh kapitaina, Cambridgeko Joseph Grainger kapitaina eta Bostongo Lucy Warren administraria), auzitegiek gauzez ere funtzionatu beharko lutekenaren eritzikoak dira (New York Estatuan bezala), atxilotetaren iraupena laburtzeko. Era berean, larunbatak ere gaitu beharko lirateke, aste buruetako atxilotetei aurre egiteko. Bostonen, non "booking" prozedura (sarrera liburuan erregistroa) eta argazkiak komisaldegian ez den beste leku batean egiten diren, hori guztia komisaldegian bertan, Cambridgen eta Brooklinen bezala, egin ahal izatea nahi dute. Bostongo elkarrizketatuak, aireztatze sistema hobetzea proposatzen du, burnisareak isolatzeko erabiltzen den "lexan" deituarengatik airea kanporatzea zaila denez, airea berritzea asko kostatzen delako.

**Suitzan** galdera honi eman zaion erantzunean esaten da, galdetutako funtzionarioek eritzi ezberdinak azaldu dituztela beraien lurralde edo herrien errealitateen arabera, halere esan daiteke, egungo egoerarekin nahiko ados azaltzen direla. Bestalde, Suitzako testuinguru politiko-sozialean egoera nahiko onargarria da. Poliziak oso gutxitan egiten ditu gehiegikeriak, baina gertatu daitezkeen gehiegikerien balorazio bat egiteko nahiko daturik ez dago. Halere, araudi legal zehatzago baten premia sentitzen da. Azken urte hauetan egin diren kode prozesalen erreforma projektuetan, poliziak alor penalean duen agintea murrizteko joera garbia ikusten da; adibidez, aurretiko ikerketa Ministerio publikoaren esku uzten da, poliziak pertsona atxilotzen duen unetik bermatzen da atxilotuaren defentsa eta atxiloketa salbuespenezko neurritzat jotzen da. Oso premiazkoa da erizpide hauek indarrean sartzea.

#### 4.5. LABURPENA

Galderei emandako erantzunen edukia azalduta, laburbilduz, honako hau ondorioztatu daiteke atxiloketa zentruen baldintzei buruzko arautegi eta praktika konparatuari dagokionez (atxiloketa zentruak orohar, ez bakarrik udal zaindegiak):

1. Aztertu diren herrialde askotan kalabozoak udal poliziarenak dira edo Udal egoitzetan daude, baina herrialde gehienetan ez da horrela. Atxilotuak, eskudun agintaritzaren aurrera, nagusiki egite zigorgarrien pertsekuziorako ardura duten polizien aurrera eramaten dira beti, polizia nazionalaren, polizia erregionalaren edo —Massachusetts eta Suitzan bezala— udal poliziaren aurrera.

Epaitegietan eta gorputz berezien egoitzetan (adibidez mugetako polizien egoitzetan) izaten dituzte zeldak edo kalabozoak.

2. Zelda edo kalabozo horien funtzioa, nagusiki, poliziak lehen ikerketak egiten dituen eta epailearen eskuetan jarri arte pertsonak erretentzea da. Zentzu honetan, normalean, egoitza hauetan barneratzeko arrazoiak, atxiloketa baimentzen dutenekin bat datoz: nagusiki, nolabaiteko larritasuna duten egite zigorgarriak egitea edo egin denaren susmoa.

Halere, leku batzutan zigor motzak, nagusiak edo isuna ez ordaintze-gatiko subsidiarioak betetzeko ere erabili daitezke zentru horiek, edo Austriar bezala, askatasun kenketa dakarten zigor administratiboak betetzeko.

3. Arrazoirik sarrienak, aldatu egiten dira herrialde batzutatik bestetara, halabaina, jabegoaren aurkako delituak burutzea edo publikoan mozortuta egoteagatik prebentziozko neurriak hartzea dira bai batzutan eta besteetan atxiloketa arrazoi nagusiak. Atxiloketa arrazoin bezala oso garrantzitsuak dira baita drogekin zerikusia duten jardun ilegalak.



4. Atxiloketaren iraupena ere ezberdina da (6-12 ordu identifikaziorako, edo Argentinan bost egun), askotan atxiloketaren arrazoiaren arabera bereiztu behar direlarik.

Nolanahi, denetan garbi dago, atxiloketak diligentziak burutzeko behar den denbora baino gehiago ez duela iraun behar. Ondorioz, praktikak erakusten du oro har ez dela agortzen epe legala, eta salbuespenak aparte, polizia nahiago izaten du atxilotua lehen bait lehen epailearen eskuetan jartzea. Herrialde askotan beraz, atxiloketak ez ditu 12 ordu irauten.

5. Poliziaren zelda eta kalabozoek, prozesamendu mailan ezartzen den legedia orokorraz gain, beraien ezaugarri eta erregimenari buruzko araudi berezirik ez dute normalean.

Baina, barne arau eta aginduak aparte, herrialde batzutan badituzte arau berezi eta zehatzak. Hau da Austriako kasua, non libertatea kentzen duten zigor administratiboak ezarri daitezkenez, eraikuntza berezituak eraiki behar izan dira horretarako, eta ondorioz beraien ezaugarri eta erregimenerako araudi bat izan behar dute, eta arau horiek poliziaren beste atxilotuak lekuetara ezarri dakieke mutatis mutandi.

Alemaniarako ereduak ere adierazgarria da. Hemen, barruti mailan eta arau administratibo izatearekin araudi oso xeheak dauzkate.

6. Kokapenari dagokionez, zeldak eta kalabozoak normalean poliziaren ohizko egoitzetan daude. Baina, bereizten dira denbora epe laburrerako atxilotuak lekuak edo gaua pasatzeko erabili behar direnak, edo baita, droga motaren bat hartzeagatik eraginda daudenak desintositatzeko erabiltzen direnak ere.

Askotan nahiago izaten da zeldak behe solairuan edo sotoan kokatzea —nahiz eta publikoari sarrera galerazi—, goi solairuetan jartzea baino, eta hau seguritate arrazoiengatik egin ohi da. Kontrako aukera egiteko arrazoi horiek berak ematen dira ordea sarritan.

Sarbideak, sarrera eta irteerako publikitateari aurre egiteko moduan ez daude eraturik betik, nahiz eta komenigarria hori dela aitortu.

7. Zelden eta kalabozoen neurriak ere ez dira leku guztietan berdinak, are gehiago, Estatu batean leku batetik bestera aldatzen dira batzutan. Nolanahi, bakarkako zelden neurri arruntak 5 edo 6 m<sup>2</sup> eta 8 m<sup>2</sup> artekoak dira.

Burnisareak ala ateak, leihorik baduten ala ez, eta beste gauza batzutan ere ez dago arau orokorrik. Inkestari eman zaion erantzunetan alde handia dago. Halere esan daiteke, gehienetan badutela atea eta leihoa (hausten ez den kristalarekin), eta beste batzutan burnisarearekin.

8. Lokalak ez dira beti ongi aireztatzen leihoen bidez, askotan leiho horiek leku itxietara ematen dutelako. Kasu hauetan, airearen berritzea errazten duten mekanismoak esigitzen dira, eta mekanikoak edo leiho eta ateen gainetan jarritako leihatilatxoak izan daitezke.

9. Normalean, leihoen bidez argi naturala bai sartzen da, eta kasu horietan, argi artifiziala behar den orduetan bakarrik erabiltzen da.

Kasu batzutan, argia ez da itzaltzen (argi etengailuak zeldatik kanpora daude) ez eta gauez ere zelda okupatuta dagoenean; beste herrialde batzutan berriz, gaueko hamarretatik goizeko seiak arte argia itzalduta edukitzea agintzen da.

10. Seguritate sistemak, giltza eta sarraila bidez isten direnetan eta kontrolerako nahiko pertsonala edukitzean oinarritzen dira funtsean. Normalean ez dira erabiltzen telebistaren barne zirkuitu bidez atxilotuak une oro kontrolatuta edukitzeko sistemak. Baina kasu batzutan bai (soinuak entzuteko instalazioak bezala), oso arriskutsuak diren eta etengabeko kontrola behar duten sujetuak sartzeko zeldetan eta zeldetara ematen duten pasiloetan, alegia.

Atxilotuen segurtasunak ere eskatzen du arreta. Horretarako, polizia funtzionarioak zelda sarri kontrolatzeaz gain, zelden barruan timbreak ere (guardia postuarekin interfonoak izan ala ez) ipintzen dira, larrialdietan deitzeko balio dezaketelarik.

Beharrezkoa ikusten da hala eta guztiz, zelda barruan gutxieneko intimitate pertsonala erabat ezabatuko ez duen ikus edo entzunezko kontrolari ihes egitea kasu larrietan salbu.

11. Higigarriei dagokionez ere, aldaketa handiak daude; batzuk begi bistakoak dira, herrialde ezberdinetan atxilotetak irauten duen denbora epea ezberdina delako, eta bestalde, baita zelda bakoitzak bete behar duen funtzio bereziagatik. Alemanian esate baterako, bulego normal bat bezala osaturik dauden zaintza zelden ondoan, desintoxikaziorako erabiltzen direnak daude, eta hauetan erabat beharrezkoak diren elementuak bakarrik daude, sujetuak ekintza basatirik eta ondorioz bere buruari minik egin ez diezaion.

Zeldetan normalean ohea badago (normalean hormigoizkoa, eta batzutan higiene eta segurtasun arrazoiengatik jartzen ez den arren, koltxoia ere izaten dute) eta komuna; hormak lauak dira, zolua bezala, kentzen edo kalteetzen zaila den materialarekin estalia. Atxilotuak bere burua zauritzeko edo ekintza basatiak egiteko erabili ditzakeen gauzak kendu egiten dira, beraz, hormen gainetan ez dago kable edo hodirik, betik azpitik doaz; horma eta beste gauzetako eta dauden higigarrien ertzak edo erabat eraikuntzan integratzen dira (hormigoian edo zementuan) edo hormari edo lurrai oso sendoki lotuta daude.

Zelda barruan normalean ez dago ur korrienterik eta osasun instalazioak askotan amankomunak dira. Nolanahi, atxilotuentzat dutxak jartzea komenigarria ikusten da.

12. Atxilotetara garbitasun baldintza txarretan eta/edo parasituekin iristen diren sujetuen kasuan, herrialde batzutan ikusten da atxilotuak atxiloteta garaian bere burua garbitzeko bitartekoak izan behar dituela, eta horregatik, bere esku jartzen dira garbitasunerako gauzak (xaboia eta toaila), nahiz eta bizarra mozteko aukera gutxi egon (zaintzapean bakarrik egin daiteke hori). Inkesta gehienek arabera ordea, ez dago garbitasuna egiteko

aukerarik: leku batzutan komuneko papera eta konpresak (emakumeentzat) besterik ez da ematen.

13. Leku askotan, ez zaio ematen atxilotuari ez mantarik eta ez erro-parik. Ematen diren lekuetan, erropa horien garbitasunaz arduratzen dira, edo margolara bidaliz edo poliziaren garbiketa zerbitzuan garbituz. Erropa horiek berritzeko maiztasunean ere alde handiak daude: Belgikan hilean behin; Holandan, astero.

Alemanian, segurtasun arrazoiengatik, mantak erretzen ez den material batekin eginak dira.

14. Atxilotuari, normalean, egunean otordu bero bat ematen zaio atxiloketak denbora askotxo irauten badu. Halere, herrialde batzutan hiru otordu ematen zaie, horietako bi, beroak. Edateko, ura eskeintzen da, eta leku batzutan kafea eta tea. Tabakoa eta labanak debekatu egiten dira segurtasun arrazoiengatik (janaria ebakita ekartzen da), eta jateko orduan, erlijio edo beste arrazoi batzuegatik egin behar diren dieta bereziak ere har-tu ohi dira kontuan.

Herrialde batzutan, familiakoek atxilotuari eramaten dioten janaria onartzen da. Atxilotu batzuk beraiek ordaindu behar dute leku batzutan.

15. Herrialde guztiek onartzen dute, atxilotuak eskatuz gero, sendagileak bisitatu dezakela, baina normalean (eta salbuespenak aparte), ez da iragartzen derrigorrez egin beharreko gauza bezala, eta hori egitea oso komenigarria ikusten da. Leku batzutan, sendagileak esan behar du sujetua atxilotu daitekeen ala ez.

Herrialde batzutan, beste bisita batzuk ere iragartzen dira, sendagilearena bezala, erregistro liburuan notatu behar direlarik. Halere, atxiloketaren objektua arriskuan ez jartzea da beti kontutan hartzen dena, eta atxiloketaren arduradunaren esku geratzen da baimena ematea.

16. Atxiloketa egoitzak poliziaren ohizko zerbitzuen barruan daudenez, horien kontrola eta jarraipena burutzea funtsean zeregin administrati-boa da, eta beraz, dagozkien ikuskapen zerbitzuek egiten dute.

Hala eta guztiz, zentru hauetan garatzen den jardunaren eta giza eskubideen artean dagoen harreman estuarengatik, herrialde batzutan, fiskalak edo epaileek egoki ikusten dituzten bisita eta kontrolak egin ditzakete. Are gehiago, Ingalaterrako leku batean, bisitari zibilek instalazioen egoera kontrolatzeko eta aztertzeko plan piloto bat ere burutu da.

17. Herrialde guztietan behartzen da atxilotuen erregistro liburua eramatea, non notatu behar diren atxilotuaren datu pertsonalak, data, atxiloketa hasi eta amaitu den ordua eta atxiloketan zehar gertatu den guztia. Leku batzutan, bideo kamara batekin grabazioa ere egiten da, eta atxilotuen erregistroa egiteko konputagailu sistema piskanaka ezartzen ere ari dira, batez ere, poliziaren eskuetatik gutxienez behin pasatu direnen datuak komisaldegi guztiek ahalik eta laisterren izan ditzaten.

18. Kasu bereziei dagokionez, mozkor eta toxikomanoei hain zuzen, atxilotetan zehar tratu berezia izan dezakete daukaten intoxikazioaren arabera, baina hori ez da herrialde guztietan iragartzen. Hori bai, kasu larri eta oso berezietan eta sendagileak gomendatzen badu, atxilotua ospital edo sendagile kontsulta batera eraman ohi da. Estatu Batuetan bakarrik bidaltzen dira toxikomanoak berehala desintoxikazio zentru batera.

Adinez txikiak diren gazteekin ere hartu ohi dira neurri bereziak, ez dituzte zeldetan sartzen, eta herrialde batzutan tratu berezia ematen zaie familiakoei eta/edo langile sozialei deituz.

19. Sindromearen unean, normalean sendagileari edo Gurutze Gorrari deitzen zaio behar duen lasaigarria emateko, eta behar izanez gero, beste neurri batzuk, eskuburniak edo indar alkandora ezartzeko. Belgikan, atxilotua oso oldarkorra denean, atxilotuak bere buruari minik egin ez diezaion, eskuak eta oinak lotzen dizkiete lasaitzen diren arte.

Holandan "ikuskapen zelda" deitua erabiltzen dute, non atxilotua 24 orduetan hestuki zainduta dagoen telebistaren zirkuitu itxi bidez. Sendagileak metadona eman diezaioke atxilotuari.

Kasu larrietan, leku guztietan agintzen du sendagileak sujetua ospital psikiatriko batean sartzea.

Inkesta egin den herrialdeetako batean ere ez zaio atxilotuari buruan kaskorik jartzen sindromearen unean.

20. Arakatzeko eta katxeoei dagokionez, atxilotuen intimitatea errespetatzen den lekuetan, arakatzeko hutsa, sujetuaren erropak ikutuaz egiten dena, eta katxeo sakon edo intimoagoak bereizten dira. Normalean aitortzen da katxeoa sexu bereko pertsonak egin behar dutela, eta gorputz barruan begiratzeko sendagilea behar dela. Normalean ez zaio sujetuari katxeora, ez eta intimora ere ukatzeko eskubiderik ematen; gure datuen arabera, hori Belgikan bakarrik gertatzen da.

Bestalde, objektu debekatu guztiak eta zilegiak izan arren atxilotuek beren burua zauritzeko erabili ditzaketanak kendu egiten dira. Hau gauzatzeko, atxilotuari erropa (gerrikorik, korbatarik, sokarik... gabe) besterik ez zaio uzten.

21. Poliziaren atxiloteta lekuetan tratu txarreari aurre egiteko normalean erabiltzen den bidea, kode penaletan eta diziplina arauetan atxilotuei zor zaien errespetoa betetzen ez duten funtzionarioentzat pena eta zigor handiak ezartzea izaten da. Belgikan inkestari eman zaion erantzunean esaten da, aurreko neurriak hartzeaz gain, beste neurri onuragarri batzuk ere badaudela, hala nola, polizia zeldan ahalik eta denbora gutxien edukitzea, erregistro liburuak zehatz-mehatz betetzea eta poliziak fiskalari atxilotetaren berri berehala ematea eta honen esku uztea atxilotetarekin jarraitzeari buruzko erabakia.

Zeldak telebisio zirkuitu itxi bidez kontrolatzeko bidea, Estatu Batuetan erabiltzen da, eta bai buruhilketak galeratzeko eta baita poliziaren portaera kontrolatzeko ere bide egokitzat jotzen da.

22. Atxiloketak atxilotuengan duen eraginaz egiten den balorazioa asko aldatzen da herrialdeen arabera. Gehienetan esaten da, atxiloketak la-saitu egiten duela atxilotua, eta gehienetan ez dela era oldarkorrean porta-tzen. Halere azpimarratzen da, kasuaren araberrakoa dela dena, eta honi bu-ruz ezin da arau orokorrik eman.

23. Atxilotuak, normalean, bere familiakoei edo lagunei atxiloketaren berri emateko deitzeko eskubidea izan ohi du, baldin eta horrekin ez badio atxiloketaren helburuari kalterik egiten. Atxilotuak berak pertsonalki deitu ezin duenean, polizia arduratzen da zeregin horretaz. Berri emate hau, ba-zutan adinez txikiak direnen kasuan bakarrik egiten dena, atxilotua atxilo-keta lekuan sartu ete berehala egitea esigitzen da.

24. Abokatuaren kasuan ez da gauza bera gertatzen, honi, parte har-tzeko eskubidea, atxilotua epailearen esku jartzen den unetik aurrera baka-rrik ematen zaio legedi askotan. Hori bai, isilik egoteko eskubide indibidua-la eta abokatuaren aurrean bakarrik hitzegitekoa aitortzen da.

25. Aurrekoaren ondorioz ordea, herrialde guztietan ez daude komi-saldegira joateko abokatu txandak; hori oso komenigarritzat jotzen da eta baita poliziak atxiloketa burutzen duen une berean parte hartzeko ahalme-na ere. Alemanian, abokatuaren elkarteak hiriko prentsan argitaratzen du bere guardiako abokatuaren telefonoa.

26. Normalean ez da esigitzen atxiloketa bakarkako zeldetan buru-tzea. Salbuespen asko gertatzen dira hemen. Jende pilakate handiak dau-denean, zelda pertsona bat baino gehiago sartzen da; Alemanian gainera, bus zelular bat dago. Salbuespena bestalde, sarri gerta daiteke atxiloketek asko irauten badute, poliziak bere egoitzetan zelda gutxi izaten dituelako. Kasu horietan, bakarkako zeldan pertsona bat baino gehiago sartzen dute, edo herrialde batzuk atxiloketa lekuetan dauzkaten zelda kolektiboak erabil-tzen dituzte.

Massachusetts Estatutik (USA) jasotako erantzuna oso deigarria da, bertan esaten bait da Bostonen "holdind cells" deituak daudela. Horietan, hormaren kontra sistema berezi bat dago jendea eskuburniekin lotuta den-bora epe labur batean edukitzeko, eta gero eraikuntza berezi batera era-maten dituzte.

Normalean, gazteak ez dituzte zelda kolektiboetan sartzen.

27. Amaitzeko, gure berri emaileek emandako gomendioen artetik, ondorengoak azpimarratzen ditugu:

- atxiloketa lekuak eta hauetako bizitza baldintzak jasotzeko araudi be-reziak onartzea,

- atxilotuak inkomunikaturik ez edukitzea,

- atxilotuek familiakoei abisatzeko eta abokatuari atxiloketa lekura joan dadin deitzeko aukerak hedatzea,

— sendagileen kontrol handiagoa,

— auzitegiek gauzez ere funtzionatzeko premia, horrela atxiloketaren iraupena laburtzeko, eta

— atxiloketa zentru hauek zenbait pena edo denbora gutxirako libertatea kentzen duten zigorrak betetzeko leku bezala ez erabiltzea, epaituak atxilotuengandik aldentuta edukitzeko eta libertatea kentzen duten zigortara kondenatutakoen oinarrizko eskubideak bermatzeko baldintzak dauden kasuan bakarrik erabiltzea gomendatzen delarik.

V ATALA

**NAZIOARTEKO ARAUTEGIA**

## 5.1. GILTZAPETZE-EGOERATAN EZAR DAITEKEEN JAURPIDEAREN ZIRRIBORROA, NAZIO BATUEN ZENBAIT SAILEN BIDEZKO ERABAKIETAN OINARRITURIK

### 5.1.1. Sarrera

Nazio Batuen sailek askatasungabetzeari buruz egindako azaleko azterketari lehen begirada emanez, poliziaren giltzapeetan edo lehen uneko atxiloteta gertatzen den beste toki batzutan ezar daitekeen erabakirik ez dagoela dirudi.

Halere, egoera horretako jaurpide zehatza oharteman ez bada ere, dauden erabakietan oinarrituta bat gertatzerik badaukagu. Sail batzutan, zenbait erabakiren ezartze-eremuaren zehaztapenak erabaki berberak giltzapeei ezartzeko aukera dagoelako ondorio zuzena ateratzeko bide ematen du. Beste batzutan, esatemoduen zehaztapenetara jo beharra dago. Baina, hauetako ezein irizpide erabiltzerik ez dagoenean, presondegiei ezar dakien erabaki asko aurkitzen da, eta giltzapeei ezartzen zaien moduan hauei ere ezartzea nahikoa onargarri gertatzen da.

Kontutan hartutako erabakiak eman dituzten Nazio Batuen sailak ondorengoak dira, erabakiak noiz hartu dituzten, hurrenkera horretan:

1. Giltzapetuekiko jokabidean jarraitu beharreko gutxieneko arauak, 1957.eko uztailak 31.

2. Legea betearazteko ardura duten lanarientzako jokabide-arauak, 1979.eko abenduak 17.

3. Adingabeekin zuzentasunez jokatzeko Nazio Batuek ezarritako gutxieneko arauak (Beijing-ko Arauak), 1985.eko azaroak 29.

4. Edozein motatako atxilotze edo giltzapetzea jasaten duten guztien babeserako irizpide-multzoa, 1988.eko abenduak 9.

5. Askatasungabetutako adingabeen babeserako Nazio Batuen arauak, 1990. urtea (Gaizkintzaren aurrehartzeari eta gaizkileekiko jokabideari buruzko Nazio Batuen Zortzigarren Biltzarra).



### 5.1.2. Giltzapetuekiko jokabidean jarraitu beharreko gutxieneko arauak.

Arau hauetako zati bat giltzapetze-kasuetan ezartzeko zehazki ohartemanda dago. C zatia da, "Atxilotuak edo lehen-mailako presondegikoak" izena daramana. 84. arauak ezartze-eremua zehazten du:

"Ondorengo erabakietarako «salatua» izena emango zaio zigorlegearekiko hauspenagatik *polizi-gela batean*, edo presondegian, *bahituta*, baina oraindik epaitzeke dagoenari."

Arau honen hirugarren lerroaldian jaurpide berezia aipatzen da, bakoitzaren askatasunaren babesari lotutako erabakien edo salatuekin jarraitu beharreko biderapena zehaztuko dituztenen kaltetan gabe ezarriko dena.

Jaurpide berezi hori ondorengo da: gazteak eta adinekoak eta baka-rrantzako gelak banatzea, klimaren araberrako tokiko ohitura berezien kaltetan gabe. Bahituek eurek, Administrazioaren bidez senide edo adiskideengandiko kanpoko janariak lortzeko aukera izango dute. Euren jantziak erabili ahal izango dituzte, beti ere garbitasunari eutsiz. 89. arauaren ezarpena, ordea, zalantzazkoa da, horrek dioenez, salatuari ordaina jasoz lan egiteko aukera eskaini behar zaio beti, baina inoiz ez da horretara behartu behar.

Ondorengo arauaren ezarpenak ez du, berriz, inolako zalantzarik sortzen, bahituari irakurgaiak eta idazgaiak eskuratzeko aukera ematen bait dio.

91. araua ere ezar daiteke, bere medikuaren edo dentistaren zainketa baimentzen bait dio.

Beharbada, artezen ezar daitekeena 92. araua da, norbanakoak bere familiari berehala bahituraren berri emateko aukera izan beharko duela eta horrekin eta bere adiskideekin harremanetan jartzeko eta horien bisita hartzeko arrazoizko erreztasun guztiak eskeiniko zaizkiola bait dio.

Salatuak eskubidea du, horrelakorik ohartemanda dagoen kasuetan, legeak ezarritako eran abokatua izenda diezaioten eta bere abokatuarekin barrean egoteko.

Halaber, hauek ez dira ezar daitezkeen erabaki bakarrak.

Esateko, ezarpen orokorreko arauen artean, lehen zatian agertzen direnak, 7. arauak, erroldeari buruzkoa, bahituak dauden leku guztietan, bahituaren nortasuna, bahituraren arrazoiak eta zein agintarik erabaki zuen, sarrerako eta irteerako eguna eta ordua bilduko dituen orritan banatutako azaldun errolda eduki beharko dutela dio. Baita ere, baliozko bahitze-agindurik gabe inor onartzerik ez dagoela dio (behabada, arau hau ezin izango da giltzapetze-kasu guzietan ezarri).

Nabarmena da, berriz, giltzapetuentzako gelei buruzko araua ezar daitekeela. 10. arauak ezartzen duenez, giltzapetuentzako gelek, eta bereziki gaueko egonaldietarako direnek, osasun-eskakizunak bete beharko dituzte, klima ere kontutan hartuz, eta haize-bolumenari, gutxieneko neurriei, argiei, berogailu eta aireztapenari arreta berezia eskainiz.

Osasun-antolapideek egokiak behar dute izan, giltzapetuak une egokian horietaz baliatzeko aukera izan dezan. Baina eta dutxa-antolapideek ere halakoak izan behar dute. 14. arauak arau nagusi hau ezartzen du:

“Giltzapetuek erabili ohi dituzten gela guztiek behar bezala eta garbi egon beharko dute.”

19. arauaren arabera giltzapetu bakoitzak bere ohea izango du eta nahiko ohe-jantzi, maiz aldatuko baita.

Elikadura eta ur korrentea eskueran izateari buruzko arauak ere ezar daitezke.

43. araua, giltzapetuen euren gauzei eta/edo eurenak diren gauzei buruzkoa dena, ezartzerik ez dagoela pentsatzea lelokeria litzateke (bahituak izenpetuko duen zerrenda egingo da eta aske uzteko garaian gauza guztiak itzuliko zaizkio).

Antolatzen saiatzen ari garen jaurpidean sar zitekeen beste araua aurkitu dugu, bigarren zatian, A zatian, zigortuei buruzkoa, hau da, giltzapeetako lehen bahiturarekin zerikusirik ez duen tokian. Halaber, 57. arauak honako hau ezartzen du:

“Presondegia eta gaizkilea kanpoko mundutik bereizteko eragina duten gainerako neurriak, askatasun gabetuz norbanakoari bere buruaz nahi duena egiteko eskubidea kentzen diotenez gero, kupigarriak dira. Horregatik, zuritako bereiztearen edo diziplinari eusteko kasuetan salbu, espetxeetako sistimak ez ditu egoera darizkion sufrimenduak areagotu behar.”

Gaizkilea kanpoko mundutik bereizteko eragina duten gainerako neurriei buruzko esaldia sartzeak, hain era zabalean aipatzen dituela, bereizte hori ez zenbat iraungo duen, ezta non gertatuko den ere zehaztu gabe egiten dela, giltzapetzei ezar dakiekeen arau nagusia ateratzeko bide ematen du: berez kupigarri den egoera bati darizkion sufrimenduak ez dira areagotu behar. Eta arau honetatik, atxilotze-toki horietan egoteak sufrimendu osagarriak eragingo ez duela bermatuko duten arau praktikoak atera daitezke.

### 5.1.3. Legea betearazteko ardura duten lanarientzako jokabide-arauak

Legea betearazteko erantzunkizuna duten lanarien multzoan, oharrak aipatu bezela, poliziaren egitekoak betetzen dituzten lege-arloko langile guztiak sartzen dira, izendatuak zein hautatuak izan direnak, batez ere atxilotze edo bahitze-ahalmenak dituztenak. Azken azalpen honek eskuartean daukagun gaiarekin duen artezko lotura erakusten digu.

2. atalak ezartzen du, legea betearazteko ardura duten lanariet, euren egitekoa betetzerakoan, gizabanako guztien giza duintasunari men egin eta babesa emango diotela eta giza eskubideak defendatuko dituztela. 3. atalak guztiz beharrezko izan daitezen kasuetara mugatzen du indarraren erabilpena.

5. atalak erabakitzen duenez, legea betearazteko erantzunkizuna duen ezin lanarik ezin izango du torura-ekintzarik edo bestelako portu edo zigor anker, errukigabe edo lotsarazlerik egin, bultzatu edo onartu, ezta nagusi baten agindua edo egoera bereziak inbokatu. Aipatu debekua, gizabanako guztiak torturaren eta bestelako portu edo zigor anker, errukigabe edo lo-

tsagarriren aurkako babesari buruzko Adierazpenean, Batzar Nagusiak onartutako horretan, bilduta dago. Interesgarria da Adierazpen horretan tortura hitzari ematen zaion zehaztapena:

“... tortura gertatu dela ulertuko da herri lanari batek, edo horrek bultzatutako beste edozeinek, beste edonori, horrengandik edo hirugarren batengandik argipidea edo aitortpena lortu nahian, edo horrek egin duen edo ustez egin duen zerbaitegatik zigortu nahian edo hori edo beste batzu bildurtu nahian, zigor edo sufrimendu larriak, gorputz zein buru-mailakoak, ezartzean.”

Azalpenean aipatzen da “portu edo zigor anker, errukigabe edo lotsagarriak” esatemodua ez duela Batzar Nagusiak zehaztu, baina edozein gehiegikeriaren aurkako, gorputz zein buru-mailakoa, ahalik eta babesik handiena eskaintzen duen aldetik ulertu beharko da.

Hurengo atalean lanari hauek bere ardurapean dituzten lagunen osasunaren bete-beteko babesa ziurtatzeko eta, batez ere, beharrezko izan da-dinean mediku-sorospidetza eskaintzeko beharrezko izan daitezen neurriak hartzeko betebeharra dutela ezartzen da.

Arau-bilduma honek poliziak bere ardurapekoekiko jokabidea jarraitu beharreko oso arau orokorrak biltzen ditu, halere, zalantzarik gabe, giltza-peatan edo lehen-mailako atxilotze-tokietan ezarri beharreko jaurpide orokorraren legezko esparrua ezartzeko laguntza ematen du.

#### 5.1.4. Adin-gabekoentzako Zuzentza-Administraritzako Gutxieneko Arauak (Beijing-ko Arauak)

Bigarren zatian, “Ikerketa eta Auziperatzea”, 10. araua, “Lehen Harremana” izenekoa, zudua duguneko lehenengo aldiko adin-gabekoaren atxilotetaz hain zuzen ari da.

Lehenengo lerroaldiak honako hau dio:

“Adin-gabeko bat atxilotzen den bakoitzean, atxilotetaren berri berehala gurasoei edo tutoreei emango zaie...”

Jakina, “adin-gabeko bat atxilotzen den bakoitzean” esaldia hitzez hitz ulertzen da, hau da, atxiloteta bera gertatzen delako, atxiloteta hori sailkatzeko aurrez inolako lege-baldintza edo ustezkorik gabe edo baldintza horren kaltetan gabe.

3. lerroaldia aurrekoak baino zalantzazkoagoa da, eta honako hau erabakitzen du:

“Kasu bakoitzeko baldintzak kontutan izatearen kaltetan gabe, legea betetzeko agindua duten ihardute-erakundeen eta lege-hausle adin-gabekoaren arteko harremanak adin-gabekoaren lege-baldintza babestu eta hari kalte egitea galeraziko da.”

Baina arau hau argitzen duen aipamenak adin-gabekoei dagokienez legea betetzeko agindua duten polizia edo gainontzeko funtzionarioek izan

behar dute jarrera eta biderapenari buruzko funtsezko alderdi batzuez ari da. Hain zuzen, "kalte egitea galeraziko da" esaldia erakorra dela dio elkarreagineko alderdi asko izan litzakeena (adibidez, hitz gogorrak erabiltzea, bortxakeria fisikoa, inguruarekiko harremanak). Eta zera ere argitzen du, zuzentza-ekintzekiko ihardunak berak bakarrik adin-gabekoei "kalte egin diezaiekeela", beraz "min ematea galeraztea" esaldiari esanahi zabala eman behar zaio, hau da, gutxieneko kaltea gutxienera murriztu lehenengo aldian. Horrek garrantzi nabarmena du legea betetzeko agindua duten erakundeekin lehenengo harremanari dagokionez, izan ere, adin-gabekoaren Estatua-rikiko eta gizartearekiko jarreran eragin handia izan bait dezake. Horrezaz gain, gainontzeko edozein ekintzaren arrakasta lehenengo harreman horien menpe dago. Kasu horietan, ulerkortasuna eta irmotasun onbera garrantzitsuak dira. Askotan giltzapea dakarren "lehenengo harreman" hori interesatzen zaigu. Zuzentza sistimari hasiera ematen dion lehenengo atea.

12. arauak ere erabaki interesgarriak ditu bere baitan. "Polizien gaitasuna" deitzen da:

12.1. "Eginbehar horiek hobeto betetzeko, adin-gabekoekin askotan edo bete-betean aritu edo adin-gabekoen gaizkintzari aurre egiteko funtsean ari diren poliziei gaitasun eta gaikuntza berezia emango zaie. Hiri handietan helburu horrekin polizi talde bereziak egongo dira."

Aipamenean arauak agintzen duen gaitasunaren garrantzia bereizten da, aurreko arauaren sorburu izan zen ideia egiaztatuz, "polizia lehenengo harremana denez..."

Ondorengo arauan ere, aurrehartzeko giltzapeaz ari denean, giltzapea dela eta bada erabilgarri den lerroaldi bat, 5. lerroaldia, alegia:

"Babespean dirauten bitartean, adin-gabekoei arreta, babesa eta behar duten gizarte-segurantza, hazkuntza, lanbide, sikologi, medikuntza, gorputz-mailako laguntza emango zaie, adina, sexua eta bakoitzaren berezitasunak kontutan izanik."

"Babespean dirauten bitartean" esaldia behar bezain zabala da giltzapeari dagokionez erabilgarri izateko.

#### 5.1.5. **Edozein bahiketa edo giltzapetan dagoen edozein babesteko irizpide multzoa**

Nazio Batuen baliapide hau da agian ari garen lehenengo bahiketari zuzenean egokitzen zaiona.

Hitzen zehaztapenean esaten denez "bahipen"tzat gizaki bat atzematea jotzen da ustezko lege-haustea edo agintaritzak agindutakoa dela eta... Bahitutako gizakia eta atxilotutako gizakia bereizten dira, gaitzezpen-epairik izatearen ala ez izatearen arabera (lehenengo kasuan ez dago). Eta, beraz, bahitzea eta giltzapetzea bereizten dira, bahitutako edo espetxeratutako gizakiaren egoeratzat.

